





N.º 700

TŠIRRISTADAK



1-68320
F-7224A

AN
29231

T̄SIRRISTADAK

R. M. AZKUE-TAR ABADĒAK

EGINAK

Lenengo pīloa

BILBON
EUSKALZALEN MOLDAGINTZAN


1898

VASCOFILLORI

ADISKIDEA: Gure albistaritšuari dautsazun begi onagaitik zuzendu gura dautsut Tširristada-pilotšu au. Izan leike bat edo baten zirikadaren bat zeutzat bere egotea. Au gora-bera ontzat eroango dozula uste dot, geure adiskide Tšistularrek eta Artatšorik eta besteren batek zeugandik izaniko kiñakadaak tšartzat artu eztabezalako, ta neuk bere zuk ipiñiriko ezizen edo *mezizenagaz* barre baiño egiñ eztodalako.

Osasuna ta bakea izan daizuzala bizi zireanarteko egunetan.

TŠIRRIST.



LENENGOA

TŠIRRIKIST NOR DAN.—TŠIRRIKIST ONDARROAN

Atzo goizaldean, enekian zer egin da aida baten (atsoak arrausi egiteko bear dabon astia baiño ariñagoan) Anbotoko menditik Ondarroara ioan nintzan. Nora niñoan enekiala, Elizondotik gorako kale baten neure burua ikusi neban; da leio bateko irrikituetatik eriotzea legez sartuaz, agura baten ondoan iarri nintzan. Zurruka zurruka egoan agurea lo. Bekokian putz egiñaz amesetan ipiñi neban.

¿Adiskidea, nor az eu? itandu eustan.

—Ni, Tširrist.

—Ezizen polita. ¿Itšasapoa ala leorreko arraiña az eu?

—Ni ez itšasokoa ez legorrekoa. Nire Aita tšimizta bat zan; nire Ama, traganarrua. Biak il zirean neu iaio nintzanean.

—¿E?

—Udako eguraldi zargoridun bero bero baten, odaí bat ioan Bermeo-ganeko Soñubetik

becra itšasorantz; egarri zan, da Izaro deritšon ugarte-atzean ura edaten asi zan; da edan da edan da edan egoala, beste odai baltz itzaltsu ikaragarri batek *damba*, trumoiia egiñaz, buru buruan io eban traganarrua: tšimizta batek ebagi eutsan traganarruari sabela, ta sabel ebagi atatik iaio nintzan ni; eta iaioeran *tširrist* egin nebalako, izen auše ipiñi eusten. Nire Ama traganarrua, neu iaioaz batera, euritu ta il zan. Nire Aita tšimistea itšasora iausi ta betiko itzaldu edo amata iatan.

—¿Orduan Tširrist az i? ¿Tšimista-traganarruen semea edo alabea? ¿Ume zurtza? ¿Ez nebarik, ez arrebarik, ez aiztarik, ez anaerik bakoa? ¿Onan da?

—Bai.

—¿Eta zetara ator, edo zek akar?

—Ni enakar ezek, neu nator neure indarrez. Zuek, gizon da emakumak, iakiaz legez, ni albista edo barriakaz bizi naz. Nun ze barri nabil erririk erri, basorik baso ta odairik odai. Bilbon gaur iaioriko EUSKALZALE deritšon paper bat, adiskide andia dot; eta astean astean bialdu nai neuskeoz or da emen batu al daidazan albista-barriak.

—Orrek esan nai dau, Ondarroan ze barri dan iakitera atorrela. ¿Ezta?

—Bai. ¿Zelan dau kale onek izena?

—Onék *Iparkale*. Kale aizetsuagorik osasuntsuagorik eta maitagarriagorik eztago Bilbon.

Emen aizerik eztagoanean, itšasoan bere eztago.

—¿Emen dago arto-bero-usaiña!

—Badakit zegaitik diñoan ori. Noberak noberen burua goratuten dabenean, egoten da arto-bero-usaiña; baiña noberen erria goratuten danean, ez; bestela elitzake beste usaiñik artuko, gizona bizi dan tokietan, arto-bero-usaiña baiño.

—¿Zegaitik diñok ori?

—Goazan, esate baterako, Berritura. Ogei etše daukaz erreskadan; beste guztiak atso-aguren agiñak legez, or da emen banakatuta dagoz. Eta bertako edozeiñegaz berbetan asten bagara, laster esango dau, aize ederragorik Ondarroan bere eztagoala, bide garbiagorik toki gitšitan, ur oberik Oizen bere ezetz. Eliza bat dauke (ezta tšarra) Ondarroako Elizan sartuko balitz, *kompesanario* edo autorleku bat irudi izango leukeena; San Pedro bat, izurde-buruduna; ta Berrituar baten aurrean Eliza-konturik aitatuezkero, laster agertuko leukez euren San Pedro, Elizpea, abatetšea, *organua* ¿ta zer ez?

—Ondarroari *erri beruu* (erri beroa) esaten eidautse. ¿Zegaitik?

—Batek badaki!

—Eta *Ondarrua erri beruu* esanezkero, aserratu egiten eizaree.

—¿Aserratu? Lekeitioarren batek esanezkero bai, osterantzean ez.

—¿Zegaitik ori?

—Urrengo baten esango dot. Itši daigun Berritu ta eldu gaizan Markiñara. An bere zure kontuan arto-bero-usaiñ andia artuko dogu.

—¿Zer bada?

—Arek badauke zer-goratu. Zelai bat dauke, Bizkaian erri-barruan eztagon lakošea; pelotatoki bat, geurearen antzekoa.

—Beste egun baten aratuko dodaz Markiñako zokondoak; gaur Ondarroako barri iakin nai neuke.

—Esan Markiñar bati zer deritšon beren erriari ta laster esango dau *Paris tsiki* dala. Edozeiñek dau noberen erria maite.

—Baiña gizona...

—Bai, Tširrist. Pelota-kontuan Markiñari, palanka-iokoan Berrituri ta itšas-arazoetan Ondarroari itši geldi geldi. Markiñako umea, surrak garbituten ikasi daianeko, eroan pelotatokira; Berrituko umea palanka-ondora; Ondarroako umea tšalupara; ta irurori asten itši; ta asten itšiaz beste barik, ikusiko dozuz beti pelotaria, palankaria ta erramaria.

— Orrek egiak izango dira, ta, ezer kendu ta ezer ipiñi barik, biralduko dautsadaz nik EUSKALZALERI. Nik oraiñ Ondarroa ezautu nai neuke. ¿Sagardao asko izan da aurten? ¿Arraiñ asko dakazue? ¿Kanta barririk ikasi dozue negu onetan? ¿Zuen maisuak, irakasleak barik, maisuak dira? ¿Ikastetšeen ordeez eskolak dauka-

zuez oraindiño? ;Erdaldunak ala euskaldunak dira zuen umeen burua argitu bear dabena?

— Adiskidea, Ondarroa ezautu nai dabena, datorrela Santa Klaretan. ;Aušc da erria! ;Au da bizilekua! Eta atorreanean gero, atea ioten bere ez ibili; aberastasunik eztago gurean; baiña daukaguntšua emoteko biotza, iñok ez lakošea.

.....
Au esanaz, itzartutera ioan, da nik alde egin bear.

BIGARRENA

TŠIRRIST ARRATIAN ERIOTZEAGAZ

I

Zapatua edo larunbata zan; odaiak arratsalde-erdirako iges egin eusten; enekian nora ioan. Onako baten «gaur iaio bear dau EUSKALZALEk» otu iatan; da tširrist eginda, Bilbon nengoan. Zabaldu neban albistaria, ta Arratiara ioanalditšu bat egin bear nebala irakurri nebanean, iñori agur bere egin barik aldendu nintzan.

Astelen-goizeko eguerdi-aurrean *Villaro* (1) deritšon urian zear igaro nintzanean, eguzkia artuten egozan Elizondoan amabi edo amalau gizon, abade bat edo bestegaz, iru aldratan banatuta. Enenduen eurak ikusi; nik eurak ondo aztertu nebazan baiña. Esango neuke, esatea ondo baletor, nok eukan surrik gorriena ta dindirritsuena, nok tšapelik andiena ta sartuena. Geienak eukezan eskuak sakeletan sartuta. Irakurten iñor bere ezegoan. Neuk neure artean. «¿Zer? Au dan erri euskeratsua izanda, euskerazko al-

(1) *Lenago Arantzako* eritšon.

bistari bakarra gaur (1) agertuta ¿inok irakurri ez? Gogaldi tšarraz urten neban Elizondotik. Lurrak ezetariko gauza on barik nekusazan. Arbiak edo *naboak* asitan itota, elgorriak ilten dabezan umeen antzera. Baserri-etšeak lurruntan egozan; noizean bein arran tšikien ots motela entzuten neban; idizkoren bat bere igaroten iatan iutika neure aurretik; eta eurak ikusiak gomutaratu eustan arako

Arratiako sekorra
tšikia baia bizkorra.

Amabiak-inguruan bost edo sei sakristauk beste ainbeste Elizatan kontzelariari (2) ots eragin eutsen; da or da emen banatuta egozan gizonak, tšapelak erantzita, emakumakaz batera arren egin eben. Neuk neure artean: «zerura begira bizi dan erria, ezin il leike.» Baserritar guztiak asi zirean gero, euren tšakur anka-zuriakaz batera, etše-aldera ioaten. Ni, ez gose nintzalako, iateko gose beintzat; bada ondo dakizu nire gosea ta egarria albista-gosea ta barri-egarria izaten direana; ni, zer edo zer iakiteko gurariaz, urren zan etšean sartu nintzan.

(1) Zapatu edo larunbat-arratsaldean eginda egoan albistaria; baiña legeak, baimena eskatuta lau egun geroago agertutea agindu daroalako, Errege-egunerarte eziban EUSKALZALEK argia ikusi al izan.

(2) Kontzelaria esaten iako baserrietan tšilin nagosiari, kontzejura edo batzarrera, banatuta bizi direan gizonai ots egiten dautselako.

Mai biribil baten egoan ogi-zukuz (gaur zu kuari *sopa* esaten eidautsazue) bete bete beterik erratiĭu andi bat. Ēnekian zelan ulertu, baserri-etše baten zer-ian egon, da nok-ian ez egotea. Gora-bidea aurkitu-nairik nenbĕlela, berrogei urte-inguruko emakuma bat etorren maĭletan beera, gona-magalaz negar-malkoak legortuten. Eneutsan berbarik egin nai izan; banekian, ezer ikusi barik berbea entzueran, ikaratuko zana-ta. Eldu nintzan goiko gela batera; ta an bost lagun ikusi nebazan, lau oe-inguruan, boskarrena oean bertan: alde baten abade zaartšu bat, begietatik urrunduta eukan liburu baten latinkada batzuk irakurten; beste aldean, oekoari eskuturretik eutsala, osagiĭa bizartsu bat. Abadearen eskuman mutil mokoti bat egoan, alde guztietara adi: eliz-mutiĭa; ta onen aurrez aur, oera beti begira, aguratšu gaisoaren suiĭa. Oe-barrenean mai tšiki bat ikusi neban altara-antzera apainduta: Elizakoak emon iakazan igargarri ziuurra.

Begiratu neutsan ondo gaisoari. ;Eztozu iĭoiz ikusi libururen baten, bizkaitarra dala-ta, agura bat antzeratuta: sur-luzea, matraiĭa-urtena, kapela-atze-iagia, pipea ezpanetan, da tšartesa lepoan dingilizka ta belauneraiĭoko abarkaduna? Onetarikoše agura maitagarria zan, nik oe atan nekusana. Abadeak aurrera ta aurrera beren latinkadetan iarduan; osagiĭeak, gaisoaren eskuturrari itši barik, orduari edo erloio baltz bat eske rrean eukala «*ezteko eskapurik*» esan eban;

abadeak au entzun ebanean, liburua lepoz gora zabal zabalik oe-ganean itšita, kurutze bat egiñaz, sur-ganean ipiñi eutsan aguratšuari eskua. Gero suiñari begiratuaz «karraka dator eriotzea» esan eban.

Nik, au entzueran ¿zer? esan neban neure-artean, «Antšiniako bizkaitarrak, udagoieneko sagarrak legez urrituaz doaz ¿da nik eni ilten itši? Sartu nintzan bideetatik urten neban, edo *karraka* etorren eriotzeari aurrea artu nairik.

II

Kanpora urten nebaneko, len baiño otzago ta isilago etše-inguruari eritši neutsan, da atatik igarri neban eriotzea urre ebiłena. Begiratu neban eskerreko aldera ta bera zan. ¿Zelan ibilten dira udako goizaldeetan parasmaak (1), maastietan, ameraunak kukulorik kukulo dingilizka egiten, euli soiñodun alperrak euretan kateatu daitezcan? Onelantše korta-ondoko iko-adarretan ebiłen eriotzea. Gorengo adarrera ioaten itši neutsan, da arako leirotik gelara begira ikusi ebanean, oratu nai izan neutsan; baiña ni tširrist banaz, a larrapast da; nik zegaz eutsi ezpadaukat, ak eztauko nundik oratu; eta berbetan astea otu iatan.

(1) *Marasmaak* (Markiña-aldean), *mismauak* (Mundaka-aldean), *armiarria* (Gipuzkoan), *arriu* (batzuk). Geiago bere badagor; dakizanak, bekaz.

—Aup.

—¿E? ¿I emen? ¿Zetan abil?—esan eustan.

—Ni barri-bila, beti legez.

—Beti legez zaar-bila ni.

—Agura baten azurrak lodituko abe ¿Bost!
Itšiok orri.

—¿Neuk oni itši?

—Ator ona puzka baten. Mutil, argal a-
go eu.

—Argal ez, makar bai. Ni edonun bizi naz,
da edozein tokitan naz bat, edozein tokitan go-
gorra ta sendoa; baiña leku batzuetan makarra,
beste batzuetan lodi lodi, ibili ezindakoa la-
košea.

—(Pozarren nengoan ni, autuak luzatuteko
taiua artu ebanean). ¿Zelan izan leike ori?

—Esate baterako, Bilbon lodi lodi bizi naz.
Ardantegi askotan, neu lodituteko egiñiko nas-
te baltzizka bat salduten da; lukainkatzat asto
ta tšakurren aragi iguingarriakaz egiñikoak; eta
kale geienetan daukadaz gainibetaak (*cuchillo*,
couteau erderaz), su-arma edo iskiñosak eta bes-
te amaika tresna ilgarri.

—Entzutea badaukat.

—Badator gero iaiegun bat, zeinbat andiago
naiago, utsagaitik asten dira matrakan, bota-
ten dabez birao ikaragarriak, erderaz beti; ta
erderaz alkar ilten dabe; ta urrengoarte.

—Emen eztago olakorik.

—¿Emen alkar il? Lurrerako ta eskaratzerako

tresnaak izanezik, eztauke beste ilgarririk; ta arekaz il-bearrean, biztu egiten dira.

—¿Ezaldabe ian-edanik eta ase-beterik egiten?

—Nor edo nor ilten danean, bai; osterantzean, geien geienak domekarik domeka edo iganderik igande ardaoia edaten dabe, aste-egunetan ura. Ta urak il bear nau. Itšasoko uragaitik daukat lurrekoa madarikatu barik. A adiskide andia dot; legorrekoa barriz, areriorik bildurgarriena.

Or oeratuta dagoan agura tšimur ori, bost edo sei bidar euki dot begiz iota; baiña oraingoan ez; agura-gose naz.

—Urrengoan bere makar da erkin ikusiko aut. Ioan ai, gose baaz, beratza batera ta il eik idizkorik guriena.

—Eztodala nai, enazala ni idizko-gose, agura-gose baiño.

—¿Salda-zalea alaz? Agura-aragiak saldea, egiteko izanezik, etšok ezetarako balio.

—Orregaitik ezta, geure lotsagarriak direalako baiño. Or Zeanuritik edo Dimatik beera, pipeta baiño sur luzeagodun agura, kapela-andi, lepo-urten, matrailla-gorri, ule-luzeren bat ikusten dodan bakoitzean, dar dart egiten dauste azurrak, eta odai trumotsuai tšimizta bat eskatuteko gogotan egoten naz. Baiña arako *plata y oro*, edo *componer cazuelas*, edo *cestos y sillan*, edo *aceitunas* edo onako erderakadaren baten uluka, emen zear ibiltzen direanak, ikusten do-

dazanean, eskuak eurenez tšaloka asten iataz.

Onetan orretan etorri zan arratsaldea, etorri zan iluntsea, etorri zan arratsa, etorri zan gaba; ta eriotzeak, bigarrenez leiora iko-adarretik igonda, begiratu-ebanean, gaisoa lo osagarri baten egoan. Beren ondoan alabea baiño besterik etzan agiri.

EUSKALZALE: esaiok baserritarrai ardaoa baiño ura maiteago izan daiela, gaba baiño eguna, erdereea baiño euskerea, alperreria baiño lana, kalea baiño baserria, ardantegia baiño Elizea; ta bake gozotan zartzarora elduta, zorionez bete beterik andiko aldean bizi izango direala.

IRUGARRENA

ERIoTZEA TA TŠIRRIST ERRIRIK ERRI

I

Arratiako aguratšua eriotzean erpe-artetik atarata gero, Oñatira ioan nai neban; baiña eriotzea, nire ustea igarri ebanean, iko adarretik teilatura igonaz, berbetan asi iatan.

«Tširrist, barritsu orrek ederra egin daustak gaur, eugaitik iges egin iaustak agureak: baiña etorriko iatak neuri bere eretia. Itši geldi geldi.

—Gose baaz, ator neugaz Aizkorri-aldera; zer-ian egongo dok an.

—Ara gero: gaur egin daustan oskilkeri onen orde, euk maiteen dauan bat, al dodan ariñen ilgo ioat.

—¿Nor? Nik etšaukat ez gurasorik, ez anae-rik, ez arrebarik, ez nebarik, ez aizardarik; ez lengosu-lengosiñarik, ez izeko-osabarik; ez aiderik, ez erritarrik.

—Baiña adiskideak daukazak.

—Ori bai. ¿Baiña nor ilgo dok? ¿Ondarroako agurea?

—Ori ezta ezer. Atso-aguraak ilten direan artean, gazteak atso-aguratuten dira-ta.

—¿Euskalzaie?

—Ezta. Paper bat ilarren, beste paperen bat iaioko litzake-ta. Paperak galgarauak legez egi-ten dabe: iliko batek amalau sortu.

—¿Nor dok bada, ik ilteko nire adiskide ori?

—Euskerea bera.

—¿Euskerea euk il? Berreun errik lareun gi-zalditan il ezin izan daben berbeta zaar au; mendiak soiftekotzat, euskaldun guztien biotzak biotz-tzat, Paradisua seaskatzat eta bizilagun-tzat eguzkia daukazan berbeta eder mamintsu garbi sendo bakar au ¿euk il? ¡Bai zera!

—Tširrist, euk ikusiko dok.

—¿Zelan ilgo dok, bada?

—¿Nai izango dok etorri neugaz datorren do-mekan ibiltaldi bat egitera?

—Baiña nik egun orretan Oñati-n egon gura neuke.

—Beste egun baten ioango az.

—Tira bada.»

II

Eriotzea aurkitutea ezta gauza gatša.

Etše bat erreten dagoanean, amatatzaileak (1) baiño bere lenago ioaten da bertara. Itšasoan

(1) Itzaltzaileak, emendatzaileak.

ekaitz andiren batek ontzi tšikiak ondoratu-agiñik darabilzanean, aizeaz batera ibiltzen da. Beste zer-egiñik euki ezik, ilerrietara (1) ioaten da, ango ilartitzak (2) irakurriaz barrealdi bat egi-tera.

Igande edo domeka-goizean, bederatzi ta erdiak inguruan, *Mala-espera*-ko meatoki-ondoan egoan langilcaï begira.

«¿Ondotšu e?, esan neutsan.

—Kaisio, Tširrist. Mea ataraten diarduenak ikusten naiagok.

—Pozik egongo az, iai-egunetan lanean dabilzanai begira.

—¿Zertzat naukak? Iaungoikoaren Semea ilnebanetik eta gora, errukia zer dan ikasi ezpadot bere, kristiñau utsa naz.

—Eztaigun astirik galdu. Amen naukak. ¿Nundik asiko gara?

—Goazan lenengo Begoñara ta sartu gaizan bertako Eliza ederrean. Entzun ondo. Irakurten dagoz.

—¿Zer diño?

—... *natural de Soria y feligrés de Begoña; hijo legítimo de D. Segundo Majado y D.^a Andresa Lobo, naturales y feligreses ambos de Soria, de una parte; y de la otra Maria Ignacia Gorozika y Urionagoitiandia...*

(1) Ohietara, *Kanpo santuctaro*.

(2) *Ilarri*, ilerrietako arriakaitik; eta *ilartits* erderazko *epitafio*-gaitik oitu ebazan Oihenart-ek.

—¡Erruki dot! Goazan or zear, estulka asi baiño lenago,

—Goazan orain aor dagoan baserriñura.

—¿Zelango iragarria da ori?

—*Anteiglesia de Basauri. Partido judicial de Bilbao. Provincia de Vizcaya.*

—¿Nor da or doan gizon gorritzka luze markar ori?

—Oriñe da emengo Alkatea. Goazan berorren atzetik, iarrialdia eukiko dabe-ta.

—¿Zer diño Alkatearen eskerreko-aldean dagoan gazte orrek?

—Paper batzuk daukaz esku-artean da zerbait irakurri bear edodau. Asi da.

—*En la anteiglesia de Basauri, á 3 de Enero de 1897, en el salón de sesiones del Ayuntamiento...*

—¡Uut! Badakit zer dan. Lengo igandeko iarrialdiaren agermena.

—Ator Bilbora.

—Orra enator. Orko barri ondo dakit. Or euz az nagosi, eriotzea.

Ioan giñean gero, lenengo Deustura; ta Elizaraturik erderazko berbaldi-zati bat entzungenduan; bigarren Algortara, ta an beste ainbeste; irugarren Plenziara, ta gu ioan-orduko Mezea azkenaldean egoan.

Orduan eriotzeak esan eustan, elizpean egoitea ona izango zala; Abadeari ezipazan bere, erri-

koai entzungo geutsalako. Andik laster urten eben mutil kondotšu batzuk garraizika (1) ta arin aringa (2), garitzetako tšoriak arri bat iaurti ta legez.

—*Lusiano, vamos á jugar á la raya.*

—*No quiero á la raya; á correr.*

Ikaratuta nengoan ni; eriotzea, irri-barreka. Urten eben amalau edo amasei neskatilak, ondo apainduta guztiak. Geienak asi zirean bat batera barriketan. Nik entzun al izan nebana auše zan.

¿Pero qué pesado es D. Manuel, chicas! ¿Por Dios! Ahora ni tiempo nos queda para pasear.

Ikaratuta nengoan ni; eriotzea, irri-barreka.

Urten eben, tšimiñotan egoten direan bate-len antzera, danbaladaka (3) edo zabuka (4), zortzi edo amar gizonak; okozpeko bizardunak, masusta eldu ariñen antzeko arpegidunak... eta abar.

Neuk neure artean: «Onek eztirudie, bada, Valladolid-en asiak.»

¿Zelan egoten dira udaazkeneko odai batzuk, euria egin nai ta eziñik; orain tanta bat, gero beste bat darioela? Alantše egozan itšas-seme arek: batak arrausi, besteak estul, besteak zintz.

• Noizbait ioan zan euretariko bat kale-ondora,

(1) Didarrez, gedarrez, uluka.

(2) Arineketan, lasterka.

(3) *Balanccámdose, se balançant.*

(4) *Zibuka* bere esaten da.

ta odaietara ondo begiratuaz, *Norteste va á entrar, Señores* - esan eutsen lagunai - *esta noche, buena saparrada.*

Ikaratuta enengoan ni, arrituta baiño; ta eriotzea ezegoan irri-barreka; barre-algaraka egoan eriotzea.

«Tširrist, esan eustan gero. Eroango enduket oraindiño *Escuela Dominicaletara*, ta an ikusiko eukezak mendia lakoše neskabila bana bana-koak, erderaz tautik eztakienak, erderazko *lezinoiak* artzen; eroango enduket gero iluntsean Eliza askotara, ta entzungo eukezak bi edo iru berbetan errosarioak. Esaidak orain: neure alde iaukadazak dirua, arrokeria, abade asko, alkatteak, eskola guztiak. Iri mendiak eta tšabolaak itšiko deudadaz.

¿Eztok uste, nik, orrenbezte lagun eukiezkerro, euskera zaarra laster ilgo dodala?

—Nik ez.

—¿E?

—Il edo bizi, neuk bere lagunak badaukadaz, da emen alkar ikusiko dogu.»

Au esanaz aldendu giñean.

LAUGARRENA

ERESTALDI BAT

I

Batean eriotzea, bestean bizitzea; eta nik ez batean ez bestean ezin neure gogorik bete. Badakik, EUSKALZALE, norako ustea neukan. Arratian zear Aramaiori begi ona egiñaz, Aizkorrira niñoian, andik Oñati neure gogo batean ikusteko; ta eriotzeak atzera onantz ekarri nenduan. Gero, beste izate guztiak legez, neuk bere neure gauzatsoai legea dautset; eta arako EUSKALZALEN irugarren geia kalerik kale ikusi nebanean, «tširrist», mutiltšu saltzailē baten kaltzerpean sartu nintzan. ¡Damutu bere egin iatan sartua! Arteratu nintzaneko, «jemen dago erdera-atsa!» esanaz, asi nintzan kaltzerpeko paperak zeintzuk zirean ikusten; da ona emen euren izenak: *El Imparcial*, *La Correspondencia de España*, *El Liberal*, *El Heraldo de Madrid*, *Las Dominicales*... ¡Pu! «¿Nok atarako nau ni borrreru onen artetik?» esan neban.

EUSKALZALE: aren artean bizi bear badok, gizagaiso orrek, erruki aut. Nire iaube beterrea,

tširibiri edo inguma baten antzera, io orra ta io ona ebiñen, garraizi ta garraizi. Erderazko paperak, laban eginda legetsez, ioazan kaltzerpetik erosleen eskuetara. Ordu erdi igarota, nire iaubea zubi-ondoan egoala, menditar-antzeko gizon sur-andi bat etorren, sakeletan eskuak ebazala ta astiro, aize gitšiaz itšasoan ibiltzen direan ontziak legez. Nire iaubeak aurrean igarri bear izan eutsan nor zan; bada urreratu zaneke: «*Erri ¿quierusté EUSKALZALE, periódico vascongao en vascuence?*» esan eutsan.

—¿*Cuánto es?*

—*Diez centimos.*

—*Carito tambien, ya me parese; pero...* (sakeletik «tšori» andi bat ataraten asi zan)... *Alleva.»*

¡Nire poza, azkatu nenduenean! Erri (paperdun mutilak esango leukeena) luzaro egon zan zuri begira; nire ustez siniztu bere ezin eutsen begiai, onek euskeraz irakurten eutsenartean. Gitšienez lau bidar irakurri eban nun da zeinbategan salduten zarean; eta arako «tšori» andi bat zala gei bakotšaren balioa irakurrieran, buaruari atz eginda «Tšori, tšori ¿zer da tšori?» esaten eban. (1) Errik lenengo orrialdea baiño

(1) «Tšori» izena Espainiako «tšakurrak» sortu-orduko, ipiñi eutsen itšasaldean izentzat, Frantziako *sur edo sotsai*. Amar eunen daukez tšori andiak; best tšikiak. Au gora-berra, ezin esan leioe *amarrakoak* eta *hostekoak*; bada amarrakoa esanaz, beste diru bat adituten da: zortzi ogerleko daukazan edo eukazan urrezko dirua.

lenago irakurri nebazan nik zortzirak. Zortzigarrenean niarduala, gizon bat ioan geure alboan, eskuetan paper bat croala, *musika* edo ereziduna bera; ta ni zer etezan iakitearren, tširrist, orri-artean sartu nintzan.

II

Etzenduke esango zelako poza artu neban, *musikadun* paper a *Euskalduna* zala irakurri nebanean. Ondo begiratu neutsan, daukazan ñebeteetatik atara neban noiz iaio zan. Biok zaree *euskal*: bat-ori *sale*, beste ori *duna*; biok Ama baten semeak, ia ia bikiak. Ama lakoak bazaree, etzaree mutil tšarrak izango. Pozarren niarduan Diputaziño edo Ekauta-Buruari egiñiko eskaria irakurten.

Gipuzkoako Ekautak asmauriko gogamen ederra (*Eskoletako* maisuak euskera iakin daielela), Naparroakoak onetsi edo baiezturikoa ta Arabakoak aintzat arturikoa, Bizkaikoak eztau gaurrarte ez baieztu ez ezeztu, ez onetsi ez gaitzetsi, ez ontzat ez tšartzat artu. Gure Ekauta-Burua guztizko erri-maitea eida, euskereari ezeidautsa arpegi mukerraz begiratuten, da gamera zuzena dala diño.

Nik arpegiz baiño eztazaut; eta egia esateko, arpegi tšarragotan iñoiz biotz andiak eskuta edo ostendu dira.

Alango egunen baten, usterik gitšien danean,

sartuko naz Ekautetšean, iarrialdi bat ikusteko.

Gero irakurri neban, *Euskalduna* deritšon paper maitagarri ta errikoï orretan, neuri egiñiko eskutitz labur labur adiskide usaiñeko bat.

Bai, laguna. Erri askotako gatša da erderaz berba egitea. Eskolak ikastetšetu daiguzan, da gazteak zaarrak baiño obeto iakingo dabe gure euskera ederra.

Azkenez ja zan poza! Bilbon berton *Euskeria* deritšon Ereskida edo Orfeoïak, erestaldi bat emon bear ebala irakurri neban.

Badakizu, adiskidea, nitzat ate zarraturik eztagoana; ta sei seiretan tširrist eginda, irrikitu batetik barruratu nintzan.

¿Zelan egoten dira artaburu baten garauak, alkar ioten da alkarri eusten? Alantše egozan ango lagunak; goïan gizonezkoak; bealdean, ume banakaren bat eta gizontšu bat edo beste-gaz, andrazko-piño andia, kapela barik geien geienak, buruko zapiaz asko: guztiak aoa zabalik eta toki batera begira. Batzar onek oraintše berrogeta amar urteko Bilbo gomutaratu eustan.

Or da emen nenbiñen ni, nun iausi edo erori enekiala. Zokondo baten, biren lekua ederto beteten ebala, Ama baten sartapean guzur-urtika iarduten daben ume batek baiño arpegi gorriagoaz, atso lodi, buia (1) edo tuntuiza lako lepo zabaldun, sur-tšiki bat ikusi neban: beroa euki

(1) Erderaz, *boya*.

eziñik, putz da putz da putz. Ni beragana. Noi-
zik noizera ¡Jesus! esaten eban, da aspo erdi-
zulatu batek legez putz gero, sei edo zortzi go-
ra-bera bularrari eragiñaz. Enekian atso lodi
aren *Jesus* da putzak erderazkoak ala euskeraz-
koak zirean, beste egalean atsotšu makar sar-
din sardin tšimurdun batek berba bi edo iru
esanarte. Onek uste eban lodiak ezekiala eus-
keraz; da beren estutasunean asi zan esaten:

—«Ortiko egalean dagoan gilbor-andi bikotš
orrek, obeto egingo eban berorrentzat aulki bat
ekarri baleu; gu onetara, garean baiño bere za-
palago egitera etorri barik.

—Ni lodi banajagon, da i argal, soster ori,
jan ein neuk leez. ¡Aurki bat ekarri biar nebalal
ekarrin euk, orraztoki orrek.

—«Orraztokia neu? Bai ta i barriz buskantz.»

Goiko ta beeko guztiak asi zirean šššššššš;
ta agertu zirean eresle edo kantariak.

Lenengo ataleko eresle edo kantaak lau zi-
rean, laurak euskerazkoak: *Intšauspeko alaba*,
Ezkon-berriak, *Damatšo bati*, *Ernaniri*. Lenen-
go biak eztakigu nok egiñak direan; irugarrena,
Garmendiak; laugarrena, Santesteban-ek.

Irugarrenean iarduenartean, atso argalak be-
ren eskerreko emakuma gazte bati: «alper don
ezetz esatea, esan eutsan. Bai ¡neuri siñiztu era-
gin? Orrek ortše eskutuan dauke *binboliña*, edo
orgañua, edo neuk badakit zer,»

Atso lodiak argalari: «Isilik ago, zirin ori.»

Argalak lodiari: «Ago eu isilik, gura badon.»
Goiko ta beeko lagunak: šššššššššš.

Bigarren ataleko eresiak iru zirean, irurak latinezkoak: *O sacrum convivium*, *Ave Maria*, ta *Jesu dulcis memoria*. Lenengoa ta irugarrena Eslavak egiñak dira; bigarrena, J. L. Anson-ek.

Isilune baten atso lodiak eskumako lagunari zer edo zer esan eutsan. Besteak erantzun eutsana auše zan: «Sí, Salus; tienusté rason. ¡Pa dar un mal tambien!... Vaigamos á casa.» (1)

Arek urten ebenean, atso argalak lodiaren begirakuna itzalari irri-barrezka agiñak erakutsita, aaaoraintše lodituko gara gu» esan eban.

Izen erdidun atso lodia, Markiñan luzaro egoniko *Guardia sibil* baten alabea zala esan eben; da agaitik ekiala euskeraz berba egiten, da ondo.

Irugarren ataleko eresiak lau zirean, laurak euskerazkoak: *Mariñelaren Kantea*, *Kontsezi-rentzat*, *Tšarmangarria* ta *Praisku Tšomin*. Lenengoa ta irugarrena, Arin-ek barriraztuak; bigarrena ta laugarrena ezta kigu nok egiñak direan.

Gutziz ederra izan zan erestaldi guztia. Entzuleak tšaloka eskuak ondo berotu ebezan; batez bere *Praisku Tšomin* da ganerakotzat edo geigarritzat eresiriko *Gernikako arbola* entzun

(1) Bai, Salus; zuzen zagoz. Gaitz bat emoteko bere... Gonzan etšera.

ebezanean. Aurrera, mutilak. Gernikako Zugatza barrero loratuarte, aurrera.

Atso argalak *Kaiku Kaiku*-ri eritši eutsan onena; ta gero bost edo sei itandu eutsen:

«¿Nor da, baiña, onako gauza ederrak egiten dabezana?»

—Bat bertokoa eida; besteak, Madrilgoak.

—¿Madrilgoa ta euskerazko gauzaak egin?»

—Eztira Madriltarrak, euskaldunak baiño.

—¿Zegaitik eztakarrez bertora?»

—Arentzako Ikasolarik (1) eztagoalako.

—Egin.

—Da ganera eleukee Madriltarrak ori ontzat artuko, iñor barik geldituko litzakez-da.

—¿Ezin egin, nik sarri esaten dodana? Emon daiskuela eurak euskaldun bat, eta guk baten orde z sei erdaldun emongo dautsaguz, eta eskupekotzat bakotšari biderako dirua.»

Barrezka asi zirean au entzun ebenak. Nik eneuke negarrik egingo, atsoaren eritšia iazoko balitz.

(1) *Ikasola*, Academia, Académie. (Larramendi).

BOSKARRENA

OÑATI-INGURUKO ITZAIÑA

I

¿Zelan egoten dira gabonetan edo eguberrietan peska-mutilak aoa zabalik, surra gorrituta ta usaiña artu nairik, gozotegi baten aurrean, gozozko aingira ta eliza ta zubi ta iauregi ta mendiak ikusten?

Onetaraše nengoan ni zapatu edo larunbat-arratsaldean, Aizkorri-ganean lenengo, Aloñako tontorrean gero, Oñatiko uriari begira. Guztia egoan zuriz iantzita, lenengoz launartutera ioaten direan umeak legez, edo euren errira aberastuta iaurtu edo itzuliriko *indianoak* udako ialetan ibiltzen direan gizan.

Iñoiz ikusi eztabenentzat, edurrez oso estalduriko erri bat, ikusgarririk zalegarriena da. Gitsitan egoten da lurra zerua baiño ikusgarriago, ta ezta bear bere; osterantzean zeruaz aztuta gaur baiño bere luzaroago bizi izango gintzatekez.

Arratsalde atan, zeruak beren burua biñoiztu

ta beren edertasunaz lurran b̄loiztasuna iantzi e-bala esan eikean.

Done Migel goaingeruaren izeneko Eliza andi ederrak, ni nengoan mendi-tontorretik begirata, perretšiko bana-banako, samur samur, orio-eske dagoan bat irudian. Ikastetše andi edo *Unibersidadeak*, Markiñan egiten dabezan *kokotak* (gozozko ianari zuri batzuk) ekarri eustazan gomutara.

Artzaiñakaz egoteko usteaz igon, da artzaiñik, ez ardirik, ezta tšakurrik bere agiri etzanean, zer edo zer iakin bear neban-da, geldi geldi, zeruz apainduriko erria luzaroago ikustearren, Aloñatik beerantz asi nintzan.

Eneban ezer entzun, mendi aretan egon nintzan arte guztian: ez aizeen tšizturik, ez tšakurrien zaunka edo aausirik, ez tšorien tšioketarik, ez erreken zurrumurrurik, ez arranen ots motelik.

Iia bide barrian nintzala, *aida gorri* entzun neban, da nik neure-artean «baiaukaat laguna» esanaz, barbaroa zan tokira urreratu nintzan.

II

Baserritar gizato bat, iñoiz orrazirik (umetan izanczik) buruan ikusi ezebana, burdi geratu baten inguruan, io batera ta io bestera, bei markar izpitsu tšiki biri, zirika zirika ta akuluaz lepazurra austen ebilen.

Errukiak eroan nenduan eurakana. Eneban besterik egin burtazpian sartu ta burtardatzari *tširrrrist* eragin baiño; ta berakotan legez asi zirean beiak eta burpilak eta burtzaiña ibilten. Baserritarrak orduan buztarria palagatuta, «tira potšo» esanaz, dzapartada edo iuti baten burkanera igon eban.

Lenengo lenengo, pipea *tabakos* bete eban; bigarren, burtaurreko taket batetik dingilizka egoan argi-mutilla izio eban; gero barriz, argian bertan pipakadea biztuaz, beiai «tira ariñago, etšera goiaz-da» esanaz, Aizkorri edurtsuari eresi edo kantaten asi zan.

Aizkorri zaarrak
negura-ekero
urtero urtero du beintzat;
burua tšuri
kikil biotza
eta lainoa tšapeltzat.

Korputz biloiza
ozkirritua
ikusirikan, odeiak
zerutik jetši
ta agertzen zatzuz
berotu nairik erraiak.

Aurtšoak, amak
bularra gorde
ta ugatzik gabe bezela,
orduan daude
ardi gaisoak
gose ilgarria dutela.

Iñude-bila
ardi zurztuak
itšasaldara dijoaz,

eta egunero
oroitzen dira
beren Aizkorri gaisoaz.

Arrano ta sai
bela ta mirotz
eta aize-ekaitzak, nik uste,
zure semeak
non eta nola
bizi otediran dakuste.

Arkume-zale
dira arranoak,
erio-putzak aizeak;
ez galde oiei,
Ama samurra,
il etzaizten aditzeak.

Zure malkoak
errekaturik
itsasorontz dijoztela,
gau ta egun daude
guri esaten
naigabetua zaudela.

Eska zaiozu
zeru goiari
uda berriko eguzkia,
lozez jantzirik
berriz Amatu (1)
ta ikusteko etšadia. (2)

Eta lasterka
mardul mardulak
ardi iletsuak ¡begira!
zure altzora
bee ta beeka
izketan elduko dira.

Zeruak intzez
ase zaitzala
eta eguzkiak giro onez;

(1) Ama egin. (2) Familia.

zure belarrak
abeletsetan
urre ta zilartu bitez.

Zuregan bizi
oi dan artzaia
oso da zoriontsua:
lurra urruti,
urruti miñak
dauzka, eta urbil zerua.

Eztitan nengoan burtzaiñari erezi edo kanta
au entzuten; osterantzean akulu barik ziri egin-
go neutsen beiai, Oñatira gautu-orduko eldu
nai neban-da.

Baiña gogoz egonezkero ¿nok ezteritso idi-
búrdiari ariña, edurrari beroa, gauari egun-sen-
tia ta zimaurre-atsari odoloste-usaiña?

Burdian gogaitu barik, edurtzan otz enintza-
la, gabaz gogo argiaz, zimaurre-pilo-ondoan iguin
barik eldu nintzan Oñati-ondora, ondo gaututa.

Bigarrenez asi zan burtzaiña eztarria garbitu-
ten. Parkeske dagoana baiño adiago nengoan
ni, burtzaiña berba onek eresten asi zanean:

*Yaunque la orasion suene
yo no me boy de aqui...*

«Agur Marietako Tšilinak ots eginarren,
emendik ezazala ioango ¿e? ¡ta erderaz esan
bear! Gelditu ai bada berton, kirten ori, eguna
etorriarte» esanaz beiak eta burdia ta burtzaiña,
luma putz egiñikoa legez, ormakondora iaurti
ta itši nebazan.

SEIGARRENA

OÑATI-TIK BERGARA-RA

I

Zeuk esanda nekian, adiskidea, il onen lengoetan Bergaran da Beasañen inoizko iaialdi ikusgarrienak egozaneko barria.

Auše zala ta etzala, io Ondarroa ta io Motriku (baiña ez batera ez bestera ioan barik) nenbilen Oñatiko kaleetan, ainbat barririk geien batu nairik.

Onetantse nengoala, «Tširrist», esan eustan bat edo batek; begiratu neban nor etezan ¿da nor zala esango zenduke? Eriotzea zan.

—¿Zer darabilk, o mutil?

—¿Zer erabiliko ioat? Betiko zer-egiña: andra alargun bat il ioat gaur arratsaldean: da ezetarako gogo barik itši naiok.

—¿Zer bada?

—Iakin baneu nor zan, eneban onakorik egingo, baiña...

—Esaik, esango badok.

—Ezetariko etorri edo ogibide barik gelditu dira ume zurtzak. ¡Iakin baneu, iakin!...

—Etsoat inoiz beste onenbezte entzun. ¡Erio-

tzea, iñor il dabelako damuarren! Ator neugaz, da neuk argituko dauat gogo iñun ori. Esaidak lenengo nortzuk direan, or kale barrian atzera ta aurrera ta otsean otsean tšapela erazten dagozanok. Abuasiñak (1) etedira?

—Ez; mutil orrek ikaslariak edo *estudianteak* edo orretarikoak dira; eta euron asmo guztiak eztira bestetarako izaten, ez ikasteko baiño. Edurtzan ibilteko, abarkak oiñeratutea otu iake; *Santa Agedan* kantaak ikasten diardue; ta guztia da euren liburuak ez ikastearren.

—¿Eta nortzuri erazten dautse eurok tšapela aiy sarri? ¿Nortzuk dira orrek?

—Orrek, beste orrek *Unibersidadeko* irakasleak dira.

—¿Nok esango eban? Etšaukek bada euskaldun-arpegirik.

—Eztira ta ezin euki.

—¿E?

—Amar edo amaikatatik, bi baiño eztira euskaldunak, beste zortzi edo bederatziak... badaikit, Tširrist.

—Ezin izan leike.

—¿Ezetz? Diputautzat *Sanchez* daukanak, artu daijala maisutzat *Lopez*.

(1) Tširristek estau bat bere gomuta izan, baiña erderazko *alguacil* esateko berba asko daukaguz; *Amabia* ta *Merino* (Gipuzkoako Goierrin), *Amar-gizona* (Aramaio-aldean), *Amarren-gizona* (Oñatin bertan), *Albentea* (Naparroan), *Prostua* (Zarauzen), *Tšinela* (Bilbon).

—¡Nik neukan poza, EUSKALZALERI Oñatiko barriak bialduteko! Enabil geiago, banaioak emendik.

—¿Nora, laguna?

—Bergarara lenengo, Beasainera gero.

—Neu bere eugaz naioak.»

Auše esanda, aizea baiño ariñago Bergarara-tu giñean.

II

Gu Bergarara eldu giñeanean, bazan an zaratea ta tšilin-otsa. Eguraldi tšarrari arpegi ona ipiñiaz, oiñen ganean burua euki al eben atso-rainoko guztiak, urten eben kalera, argitea ikusteko gogoaz.

Eriotzea ilun-zalea dalako, sartu giñean biok elduaz batera, San Pedron Eliza-ondoko Gozotegi baten. Papao bat egiñik egoan atean, aoa zabalik, bertako otseña. Gu, iñori *Gabon ez kaisio* ez ezer esan barik, atzeko aldera ioan giñean.

Lau gizon egozan mai tšiki baten kontran *kartaak* eskuetan, da aurrean artagarau ta indiarrek ebezala; euren ondoan, *gitarra* zaar soka bi baiño ezeukazan bati, *sirrin sarian* ots eraginaz, *Urra labiru* kanta edo eresten iarduan hateg. Atzeratšuago agura okotz-urten bat eta gazte-irudiko bi egozan mai biribil baten *kafea* artuten; eta zokondo baten, azurki

edo gozogarri-zorro baten etzanda ikusi genduan amazortzi urte-inguruko mutil bat.

Geu sartuaz batera «au rok (1) lo-guria» esan eban zorro-ganeko mutilak; eta eriotzeak niri: «Plazentziatarren batzuk dozak onek.»

Urreratu nintzan aguratšua gana ta adi nengoan. «Ni gaztia nintzuan orduan. ¿Eta zer eñ jeutsan Esparterok? Aurrera ta aurrera ta aurrera ta aurrera...»

Itši neutsan agureari, aurrerago ioan nai ene balako; ta tširrrrrrist eginda, kartaka ebiñen baten eskuetara ioan nintzan. Lau karta eukazan eskuan: errege urrea, tšanka (2) edo zortziko bi buruz bera ta lauko ezpatea.

«Pariak bai, esan eban nire Ugazabak.

—Neu nok esku.

—Esaipa. (3)

(Eskuak).—Baukadaz pariak.

(Bigarrenak).—Ederrak.

(Irugarrenak).—Bai.

(Laugarrenak).—Baiña.

1^{ak}—Paso.

2^{ak} (nire lagunak).—*Bentajia* (?) enbiro. (4)

1^{ak}—Onek etšaukak ezer.

3^{ak}—¿Euk zer daukak?

1^{ak}—Nik zaldun bi.

(1) *Dok*-en ordez

(2) Erderaz *sota*.

(3) *Esaiĕ bada*.

(4) *Enbido*.

Orduan eriotzeari «eusteko esaiok» esan neutsan nik isil isilik; eta eriotzeak, batek baiño geiagok entzuteko eran, «eutsi» esan eutsan esku zanari.

Esan baeban esan eban: jagi zan tšanka-pareduna, urreratu zan Esparteron barriak emoten iarduan agureagana; ta beren ondoko bati sama samatik oratuaz «I, *asukaiĭo*, fuari (1) eurre Aifa konpiĭeruagana; ta esaišok (2), urranguan moskortuta etšera doianian, *eutsi* daišola ondo ormiari; atzo lez pozutzara blaust jau-sitša...» (3)

Berba onek entzunda guztiak jagi zirean; zorro-ganekoari ioan iakon lo-gurea; agureak Espartero aurrean itšita, bakeak egitera sartu nai izan eban; musulari asarratu zanak eta *asukaiĭok* alkarri samatik oratu eutsen; neska papo-andia, zaratea entzueran, barruratu zan; da eriotzeak niri belarrira esan eustan «noiz edo noiz onako ikuskizun bat bear naioan; beti beti ni nabiĭen legez, negar-artean da osagiĭe-atzetik ibiltea, ezta bizi-modu ona...»

Eztakit zer geiago esan eustan; bada ni atralaka ta auska edo burrukarik ez ikustearren, atso batzun atzetik kalerik kale ioan nintzanda.

(1) *Ioan* edo *Joan ai*.

(2) *Esaiok*.

(3) *Iausita*.

ZAZPIGARRENA

BERGARA-N

I

Etzenduke siniztuko, adiskidea, zein gogai-karria dodan gaba: aguraak lo-gura eztireanean, ardantegi-zulo baten sartu ta baparrri biparri (1) neguko gau luzeak gogoz igaroten dabez; atsoak, gabak iragoteko, guzur-artean ipuin bat esanaz, da ardazkada aria egiñaz, sutondoan eztitan egoten dira; gazteak eztabe bear izaten onetarako ez surik (biotzean daukelako), ez ardaorik (duarik izanezik), ez gogorik, ez guzurrik: alkar bat egitea izaten dabe naikoa.

Nik barriz eztot iakiten gabak zelan igaro.

Loak artuko banendu... baiña ni enau iñoiz loak artu. Goizalderen baten topoz topo egin dodanetan, asi naiako ba loari zer edo zer esan nairik: «¿O mutil, zer darabilk?» Eztaust begiratu bere egiten. ¿Zer da egitea? Onetara nire igesi beti ibilteko, iñoiz otu iat zorduna etedodan; eztot baiña gomuta zer zor daustan.

(1) *Baparrri biparri* esaten iako barriketan iarduteari. *Baparrri* izango da *bat barri*-ren ordezkoa; *biparri* ostera *bik barri*-rena.

Gabeko amarrak ots egin ebenean, urten neban kafe-etše batetik San Antonioko auzotegi-aldera (Bergaran zan au); euria lurrak artu-ala edo zeruak bota-ala zan; kaleetan *serenorik* edo gau-iagolarik bere ezebilēn, argirik zeruan bere etzan agiri; enekian nora ioan.

Onetan oiñ-otsa lakoa entzun neban, geroago ta andiagoa; ioan nintzan otsa zan-aldera ta iru mando ikusi nebazan, apal apal irurak, alkarri lotuta, bata besteen atzetik; aurrekoaren ganean baltzitasun bat etorrela.

Zelan edo alan gaba igarotearren, atzeko anka biak alkarri inkata legez itši neutsazan irugarren mandoari.

Gelditu zan, da geratu zirean aurrekoak bere.

Orduantše ezautu al izan neban mando-ganeko baltzitasuna. Ogeta bost urte inguruko mutilkoto bat zan au: mün tšarrekoa ta biotz tšarrekoagoa. ¡Zertzuk eraso eutsazan ak beren miñari, irugarren mandoa zirkin egin nai ezebala gelditu zanean! ¿Nok esan zeinbat eta zelangoz zartadaak emon eutsazan mando errukarriari?

Mandoari zartadaak baiño niri miñago egiten eusten mandazaiñaren arao (1), birao (2) ta buroak (3).

Gogait eragin eustanean, azkatu neutsazan

-
- (1) Exclamación.
 (2) Maldición.
 (3) Blasfemia.

ankaak mandoari; ta beren ordez mandazaiña ez aurrera ez atzera egin ezirik itši neban.

Mandoak, mutil tšikien igesi oi dabilen katua legez, iges egin eben; da neuk bere eneban luzaroago mandazain mandotuari entzuten egon nai izan.

II

Urrengo goizean inoizko pozarren ioan nintzan Bergarako Elizara, San Pedron izenekora.

Ni sartu nintzaneko; bete bete eginda egoan Elizea. Udako Andra-Marietan, mando-korta baten ondoan erratilu (1) bat eztiz beterik eguerdiko bero-unean ipiniko baleukee, elitzake baltzituko Bergarako Elizea orduan baizen baltz beintzat. Altara nagosiak argi utsezkoa irudian. Alkatea ta lagunak, tangarta langoše kapela andiak gora begira euren alboetan itšita, iarrita egozan; elizmutilak (beste izenez elizsaguak), kuiak (2) zulo batetik bestera ibiltzen dircan legez, ederto apainduta eurak, or sartu ta emen urten ebilzan, pozarren bi edo iru mila gizon da emakumaren begiak eurari adi egozala ekuse-nean.

Azkanengo argiak izio zireanean, organoak iai andietako otsaz burrundara andia egin eban. Urten eben gerotšuago iru abadek altara nago-

(1) Fuente.

(2) *Kui*, conejo.

sira, ta asi zirean koroan *Introito* edo asierakoa cresten. Onetariko gauzetan edozein sakristauk daki nire aldean asko. Dan moduan dala, ederra eritši neutsan Bergarako eresleak entzuff eragin euskuen Mezeari.

Igon eban onako baten irakastegi edo pulpitora Abade gazte batek, Bergarako semea bera, ta arpegian bertan euskalduna dala agiri dabena. Ezta esatekoa Bergararrak berbaldi a entzuteko euken aditasuna (1). Bota eban Elizgizonak *latinazoa*, ta gorputza aurrekera zelanbait makurtuaz, asi eban berbaldia.

Nik berbaak banentzuzan, baiña zer ziñoan ezin ulertu neban. ¿Begarako euskerea EUSKALZALEN euskerea bera izan da, nik aditu edo ulertu ezin? Banenbilēn batera ta bestera, obeto entzutearren, baiña alperrik.

Atso bat egoan aoa zabalik irakastegira begira, konkortuta legetsez; da ni, lotsa-baga lotsa-baga eginda *Tširrist* ao-barrura sartu nintzakion.

Ederto nentzuzan andik irakasleak ziñoazan berbaak. Aditu bagako berbaak entzuteaz gogait egin nebanean, agiñak ustel da abar banan aratuten asi nintzan. Onetan nenbilēnartean, atsoa, buruaz baietz-kada andi bat egin, da aoa sarratuaz, loak artu eban: adur edo lerde-tantakaz batera urten neban nik atsoaren aotik. Or-

(1) Atención, attention.

duantše ezautu neban erderazko berbaldia entzuten egon nintzana; ta iñori geiago begiratu barik Elizatik urtenaz, Beasaiñera ioan nintzan.

Elizara niñoala gizon andi bat ikusi neban Beasaiñen, eskuetan makila andi bat eta maki-la-ertzean oial zuri eder bat ebazala. Iakin-gureak eroan nenduan ni oial aren tšimur da tolos-uneetara ¿ta zer irakurri nebala esango zenduke, adiskidea? Berba onetšek:

Los hijos de San Ignacio saludan á los hijos de San Martin de Loiaz.

Arpegirik ez eukitea sarri oba izaten da. Nik orduan arpegirik euki baneu, lotsaz gorritu ta sutu ta kiskaldu egingo iatan.

Eneban Elizan sartu nai izan.

Euskaldunak eztakie, adiskidea, euskereak zer balio daben; euskaldunak eztakie erdera bi geure berbetea ito nairik dabilzanik; euskaldunak eztakie euskerea ilezkero, Euskalerria erri ustel bat izango dana; balekie, elitzake ain sarri ta ain asko lotsatuko TŠIRRIST.

ZORTZIGARRENA

SASI-ESKOLA

Lengo ila, Zezeila, ez ilgo bai ilgo ebiten egunean; edo argiroago esateko, beren atzene-ko egunean, *Euskaldun Biltokian* (1) ikuskizun bi egozala irakurri neban. Lenengoa *Sasi-eskola*, umeentzako; bigarrena, *Eguzkia nora...* Au irakurri nebanean, *Eguzkia nora... Tširrist ara* esanaz, Bilbon sartu nintzan.

Arlote batzuk, aratuste (2)-eguna zalako, arpegia estalduta ebilzan; eneutsen begiratu bere egin gura izan.

Arratseko zazpirak io bear eben aurretšuan, Jardines-kalean zear atso batzukaz batera niñoean, da euren atzetik Biltokian sartu nintzan.

Ni sartu-orduko lekurik onenak artuta egozan: aurre aurrean amar urtetik berako umeak,

(1) *Euskaldun Biltokia* 1895 garren urteko Zezeilan 2^{an} sortu zan; 1896-garren urteko Zezeilan 17^{an} iaio, ta zortzi ille bete geroago izena artu eban.

(2) Aratuste, Bizkaiko toki askotan esaten iako erderazko Carnaval-i. Toki batzuetan barriz irugarrenari bakarrik esaten iako onetara. *Aratuste aragi-uste*-tik dator, da latifiekoko *Carnis tollendas* esan gura dan. Gipurkoa-aldean *inauteri* edo *inoteri* esaten dautse; Naparcoa-aldean *iagotca*.

atso-aguraren batzun ondoan; atzeratšua go ema-kuma batzuk aurretiaz irri-barreka, ikusi bear ebena gomutara ekarriaz; atze atzean abade banakaren bat bere ikusi neban. Edari bat pitšarren batera erazten danean, zeinbat beteago ta zarata edo ots zoliago egiten dau, ta arako musturrera (pitšar musturduna bada) edo samara (samaduna izanezkero) eldu-orduan, esan leike zaratea, sua legez, ilteko zeruratu nairik gora ta gora asten dala.

Onetarikoše zarata entzungarria gogoratu eustan, Biltokiko gizategia (1) lagunez bete zanean, entzun neban zarateak. Erdi-inguruan atso bi egozan, buruko zapidunak biak; biak berbetan, etozanen ardura andi barik. Euren ondoan mutiltšu, gordinik iateko gizako bat, paper biribil tšiki tšiki zuri-urdir gorriak (2) batuten ebiñen.

Urreratu nintzakenean, mutiltšuak atzo batari «Amama, gorde onek bere» esanaz, eskukada bi papertšu emon eutsazan.

—Tira, tšotšo, naikoa da-ta, oraintše asi bear daude-ta; iarri ai, neure eder ori, neure altzoan, esan eutsan atsoak. Eta umea ikuskizunen pozera iarri zan Amamaren altzoan.

—Ez Petriñasi, amar urteko aurtšo ziztrin

(1) *Gizategi* erderazko *sala* edo *salon*; Mogelek.

(2) Oraintsatik asi dira batzuk Bilbon Italiako ekandua (confetti deritšen papertšuak arpegira iaurtitea) eurakanduten.

oiek ezin egin lezaket, zuk diozun bezin ongi. (Petriñasi zan altzoan umea cukan-atsoa. Bestea Mari Teres).

—Baietz ba, Mari Teres. Atzo egin eben umeak badira, gaur bere ederto egingo dabe.

—Baiño ¿nola izan lezake? Adin ontan, mutilak eztakite ori bezelako gauzarikan.

—Mari Teres, Mari Teres: *sasi-eskola* (1) egiteko umeak eztabe urte-bearrik. Eta ganera zeuk ikusiko dozu: uda-antza dauke basoak, eta bein udara-ekero umeak beti dagoz eskoleari lepoa emonda.»

Onetan iru tšilin ots io ta goratu eben agertokiko estalkia (2), ta zugatz edo arbola batzun artean agertu zirean sei mutil tšiki. Euretarike bata, gorritšuen, beeganean iezarrita egoan, istarrak zabal zabalik eta istar-arte amabost intšaur ebazala ta atzetšuan *kutuna* izentzat euki daroan intšaur tšiki bat.

Intšaurretan iarduen mutiltšua. Intšaurreta oneri *kastorra* esaten iakala esan eutsan Petriñasi bizkaitarrak (Arratiakoa bera) Mari Teres Gipuzkoatarrari.

Ia Kalistšu, esaten eban noizik noizera beeganeke mutil gorriak.

Petriñasiren birlobeak, obeto ikustearren, A-

(1) *Sasi-eskola* esaten iako eskolara edo ikastešera ezioateari.

(2) *Agertoki*, escenario. *Estalki*, telon.

mamaren altzoan zutundu ta barre gozo gozoak egiten ebazan.

Petriñasik: «Tira, tšotšo, isilik eta geldirik. Itšizak etšerako barreok, eztautsek albokoai entzuten itši bear-da.»

Atzekoak aurrekoai: Beera, beera; *abajo*, *abajo*.

Agertokiko umeak intšaurretan edo kastrorean gogait egin ebenean, beste ioko edo olgeta polit bat asi eben. Mutil nagositšuenak zeia edo azoka edo merkatura ioan zala, ta tšakurra edo katua edo tanboliña edo tšoria edo tšistua erosi ebazala eresi bear eban. Eta beste seirak banan banan erantzuten eutsen: tšakurra zanak, zaunkaka; katua zanak, meauka; tanbolina zanak, oska; tšoria zanak, tšioka; tšistutza-koak, tšistuka.

Petriñasin altzoko umeari, onek entzunda, zoratu bear iakon. Amamak edu atan gora goraka ikusi ebanean, berba onek esan eutsazan belarrira: «Tira tšotšo. Goroztian Gorozti ta Donostian Donosti.» Esakune onen agerkizuna zein etezan igarri ezinda nengoala, Amamak ostera esan eutsan: «Etšean etšean lez, da emen emen lez. Ago geldirik zirin ori, bestela kanpora atarako aut.»

Gerotšuago mutil zaarrentšuenak zugatz edo arbola batera igon da, zozo-abiea ume edo kuma ta guzti atarau eban; agertu zan abia-iaubea, ta batak berena zala ta besteak aniñuagai-

tik ezeutsala emongo, alkarri oratu ta auskan edo burruka beera botatea egin eben.

Orduan ume ta agura, zaar da gazte, euren tokietatik iagi ta zutun zutunik egozan agertokira begira. Atzekoak orduan bere: Beera, beera; *abajo, abajo*: esan eben.

Ume auskariak banatu ta baketuteko, euren lagunak artetu bear izan eben.

Atzenez «aniĭu» iguingarria eskuan artuta, entzula guztiak tšaloka egozala, erreka-aldera «aniĭua» uretara iaurtitera ioazala esan eben mutiltšua, berba onek eresiaz:

Aiko emen dago
gure «aniĭua»,
duala orainfše thaira;
aingurakume
ta eskailo arinak
bebilz or bira ta bira.»

Eskoletako
erdalkeriak
?nok eztauz urrun iaurtiko?
Onelan gero
euskera ederra
bizi izango da betiko (1).

Ezta esatekoa, adiskidea, an batu zireanak eta nik geukan poza. Sarri sarri ta tokian tokian gura neukez orretariko ikuskizunak begien aurrean euki.

(1) Tširrist-ek erdi-agerta daberen eresi-irautsi edo *zarzuela* tšiki au, unneen ekantz edo erretratu ta eresi edo kanta ta guzti. EUSKALZALEK beren orri-artearen agertuko dau auzua.

BEDERATZIGARRENA

ANTON DA AITA

Lengo domeka edo igandean eguerdi-inguruan Bilboko kale-artean ibili nenbilen, zer edo zer iakin nairik, zeuri bialduteko. Ioan orra ta ioan ona, Eliza batetik urten, beste baten sartu; *kintoaldra*-atzetik bere ibili nintzan apurren baten; da ezin pilotu nebazan lauzuri balio daberen barri edo albista bi. Kale-artean neure gogoko gauzarik aurkitu enebanean, ardantegi baten sartu nintzan. *Goienkalen* (erderaz *Calle Somera*) aguratšu bat egoan gizon garrerdiko (1) baten aurrean. Euren berba egikeran Lekeitioaldekoak eritši neutsen; «Dši-dša, dši-dša...» ziarduen-da. Ona emen euren autua.

—Eztakit ezereen barririk, Kosepantoniñ esakeriaz esan daidan. Uste oso osuan etorri gara, Aita; baiña ¡¡Hjuuum!! Eztot nik neuk an bertan aaa usaiñ onik artu.

—¡Gero ta gero be eruan biar etedeuskue ba!
¡Ai neure Tšomintšu laztana!

(1) Garrerdikoa berrogei urte-inguruko gizonakaitik esaten da.

—Tšakurra izan banintz be... Modu onian berba egiñ dautset ba nik ba. Goizeko zazpi ta erdi erdidsetan ots egiñ dot *Diputau* orren etšian. Neskatīla gazte euskaldun batek atia zabaldu deust. Euskalduna naizana, berbetan asi-orduko igarri eidau; nik eztakit nun, da arako zetara noian esan dautsadanian, purrustadaka ta algaraka abidša da.

—Neska gangarren bat izan izango da ori.

—Neuk be oriše uste izan dot, baiña ez. Goizegi izan dalako barre egiñ dabela esan deust; eta beste ordu bi igarota be eztała Don Kulian edo Borrego edo ori ikusteko moduan egongo. ¿Zetarako da ezetz esatia? Ondo artu nau Diputauaneko otseiñ orrek, ondo, biar danez. ¶ Eleuke euskaldunak izan biar!!

—¿Da zer geidšago?

—Itšaron egiñ biar izan dot. ¿Beste ordu bitan zer egiteko?

—¿Da?

—Noian or ziar nora edo nora (esan dot neure artian), beiñ Bilbora etorriezkeru, ikusi daigun zer edo zer.

—¿Da?

—Da da ¿beti *dá*? Atzera ta aurrera, ibili ta ibili, begiratu ona ta begiratu orra, ikusi au ta ikusi ori: onelantše igaro dšat idša goiz-erdidša. Da ¡alegidša! ¡Ikusi barik gelditu enaizanian!

—Begiratu, Aita, nire gerri oni.

—¿Da zer?

—Onen lodidšerako ankaak euki dabez, guzurrik esan barik, nik ikusiriko zaldi batzuk. Eurak ikustearren baiño izan ezik-be, pozik etorri leike Bilbora.

--Itši eizak, Anton, barri orrek etše aldera goiazaneko. Tšominen ganian, neure Tšomiñ ederren arazuagaitik zer esan deusk Diputauak?

—Esango dogu ori be. ¡Alako zaldirik! Eneban siñztuko iñok esan baleust; ezta... Pla pla pla ibiltan izan dira. Bauke arek indarra baiño eztana. Pla pla pla: onetaraše, Aita. Burdidšak be gero euren ezteridšakuak edo gainakuak dandarrez eruaten dabez: gela au baiño andidšaguak etedirian nago. ¡Zemat zorrokada gari uste dozu, Aita, sartu leikezala burditzar aretan?

—¡Beti Aita ta beti barriketia? Anton oooo.

—Tšomiñen gora-bera onek ondo urtengo baleuskit, alakoše zaldi mardo mamintsu andi eder bat erosiko neuke.

—¡Ene San Antonio ta mutiła! Galduak gara, guriak egiñ dau, Anton. Ardantegiren baten sartu aiz i, ikusgura barritsu ori. Alperrik izango dok ukatutia: dšota ago i, dšota. Eridša-egunetako *katua* daukak ik, zirimara buru-ariñ orrek.

—Orrenbeste beste... be ez, baiña...

—Alper dala ukatutia.

—Ona ba: ibiñi ta ibiñi azpeltu naizanian da denda bateko arraiñ erre-usaiña suurretan ziar sartu dšatanian... edonok egingo leukiena nik be.

—Banaidšekidšan nik. Mizke asiriko umia,

edomun agiri. Amen dšeuan ire Aita zaar au orretariko asmo andi barik. Goizeko izarretarako dšagiarren, barua ausi baiño besterik etšuat egiñ, gosalduteko naidšagok ondiño. ¡Ai geure gaztetasuna ta geure mentasuna! ¡Arek zirian urtiak! Gaurko gaztiok dšan-edanerako, or da emen ibilteko ta oskiłkeridšetarako baiño eztozue balidšo.

—Gizonak aaaa. Beiñ Bilbora etorri ezkerro...

—Bilbon naidšagok neu be.

—Arraiñ-usaiñ gozo eztidša artu dodanian, barru guztidša zabal zabal egiñ dšat.

—¿Bai e?

—¡Alakorik! ¡Arranua! Ondo begiratu dot neuk barrura, andiki-tokidša eritši dautsat, eta karutšu izango dala be otu dšat, baiña!... «¡jaurra!! gaztiagotan eztok egingo, Anton; beingua gora-bera izango algozak, gaidšoiazan barrura.» Auše esan dot neure artian, da beti bertako bezerua izan banintz lakoše lautasunaz «egun on» esan dautset, «egun on» erantzun dauste; ta euskeraz, gizona, euskeraz Bilbon. Ondo artu nabe, Aita.

—¿Madarı madaridša! baiña ni beti lenera.

¿Da Tšomiñen ganeko «kintako» arazua?

—Egon beiñ, ezkaroi az urak be ta. Ondo artu nabe, sekula iñor ondo artua izan bada. Larrosia lakoše arpegi ederrekua da ugazaba-andria, arrautza-perretšikua berberbera. ¡Dšangoikuak urte on askotan gorde daidšola bizidša!

Kosepantoni neure emaztia be mardua ta galanta dot, baiña a be...

—¡Madari ma!... Esango neukez esapide gogorrak. ¡Gizon onen barritsua ta ganora bakua! ¿Neu beste beiñ eugaz iñora etorri? Uuuut.

—Ori esanarren eeee...

—Tira tira amaitu daigun autu au. Errial zidarren bat itši biar izango dok ¿ezete?

—Egidša esateko, errial bi ta erdi kendu daustez ¿Baiña zelako gosaridša?

—¡Errial bi ta erdi! Aitiaren, Semiaren ¿lotsa be ezaiz lotsa be? Ondiño geidšago entzungo dot. Errial bi ta erdi, dirauste, errial bi ta erdi. Muitiz, Muitiz zaarra: erruki aut gizagaišo ori. Ekiñ ekiñ urrenguan be laidšetan da zimaurgiñen da atšurketan da bedarra ebaten. Gorde gorde lauzuriko-laumarikuak. Kosepantoni Mui-tizko, neure erran berakatz-atala: eguzkidšaz batera dšuan ai goizian goizian urira, ortuari-dšak saltzeko arduri-az. Bai, Kosepantoni; atara izerdidša lodi; aurrerantzian be soiñeko zaarren magaletan dindirri ta bridšal da pistiñak agiri izango dšakuz guri. Kutša-onduan zurikorik badago, nok urundu bago. Gagozan gu gaurrate lege-gez begidšak tšikortuarte biarran, Anton bas-to *trabenarik trabena* ibili daiñ »

Onetan kinto batzuk agertu zirean santzoka ta ujuika, ta negarrez egon bear leukeana barezka ez ikustearren, ardantegitik urten neban.

AMARGARRENA

DURANGO-KO BURDIN-BIDEAN—ELANTŠOBERA-
BIDEAN

I

Eguarteko ordu bi ta erdiak zirean Atšurin zear Durangoko burdin-bidera eldu nintzanean. Iru tšilin-ots io ebezan, ni atera eldu baiño lentšuago. Itši eusten atea, ta *fu fu fu* abia zan tramankulua, kea eriola, burdiak dandarrez eroaten.

Ate-azpiko irrikitutik sartuaz, aurea laster artu neutsan su-burdiari. Argi-inguruan, nun gelditu eztakiela orekan (1) ibilten direan tširibiriak edo mitšeletaak edo ingumak legez, nenngoan ni, zein burditan sartu enekiala.

Lenengo ta bigarren burdientako lagunai bakesuegiak eritši neutsen, irugarrenekoai barriz oskilak, apaingarrizat betaurrekoak erabilten dabezan mutil gazte bat eta kapeladun atso ta emakuma makar batzuk zirean-da. Urrengo burdian sartu nintzan. Elantšobeko emakuma

(1) *Ezderaz cerniendo.*

zaartšu bat beren seme irudiko bategaz zokondo baten ikusi nebazan, da ni araše.

— «¿Ingalatierran be, ene semetšua, lebatza ta an₂ ulak eta dšaten dabez?

— Angularik eztakidše dšaten. Arek *Kiñebria*, *dšin* esaten dabe eurak. Edango leukie onakotan baiña baiña Ogoño lakoše upel bete be.

— ¿Eta an be Elizak eta dagoz? ¿Sermolari dšak eta?

— ¡Eune! An dagoz ba sermolaridšak, iñun badagoz. ¿Zelan ibilten dira *komediantiak* kale-rik kale, *bombua* ta *platiñuak* dšo ta dšo, miña ume atzetik brinko ta brinko darabilezala? Oñetaraše ibilten dira an sermolaridšak...

— ¡Lotsa gaiztokuak!

— *Salbešon aami* dauke izena. (1)

— ¡Potrestantiak izango dira baia!

— Zer esanik bez.

— ¿Eta zuek be alako zantarren atzetik ibilten zarie?

— Beñ edo beñ olgetiarren edo...»

«Billetes» esanda artetu iaken, ederto apainduriko gizon bat.

Gizon onek urten ebanean, «*Abuasiltzat* eure bizikoa intzan i», esan eutsan agin-artean Elantšobeko atsoak. Mutiña, leio bat edegi ta Amak ikusten ezabalakoan, *sigarrotšu* bat sakeletik atara ta erreten asi zan.

(1) *Salvation armii*.

Ama, bitartean, mutiak ekazan aldagarriak aratuten (1) egoan, beren artean gogamen onek eukazala: «Kalistro guriak gero, nik bata ta bestia esaten dotsadaz baia, badaki etsera bidia nondik dagan. Neuk ipiñiriko alkondara sartšua be berton deko; garriko-tšikota be, etsetik atararikua dala egingo neuke. İletšu bat eindakuan, kintako legiak libre isten botse (2), atzera dšun biar dau; bestela azur andidšak dekoz onen gorputzak eta dšangost (3) etserik erdidša.»

Gero semeak entzuteko eran: «Tšotšo, esan eutsan, *panparroi* ator. ¿Zetarako dira gomazko zer onek? ¿Uretan ibilteko? ¿Ortozik ezin ibili? Kalistro, ene semia, kaltzerdidšak be ¿zelakuak baia? «Pilitu (4) izan barik «kapiñan» izateko dšaidšua az i.

—Merkiak dira orrek Ama, dirudidšen baizen merkiaguak (5).

—¿Zeinbatekuak?

—¿Zeinbat deritšo?

—¿Erreal da erdi?

—Erreal da erdi *Lebrefuelen* (6) arnasia artziarren emon biar izaten da.

(1) Aldagarri, *ropa interior de muda*. Aratu, registrar.

(2) Badautse.

(3) Iango daust.

(4) *Piloto*.

(5) Elantšobe-aldean «baizen» esaten dabe askok «baiño» esateko, ta «baifio»-n ordez baizen.»

(6) *Lebrefuel*, Liverpool.

—¿Zeinbat ba? ¿Karuago?

—Bost errealez bera ezetara be ezebezan nai izan emon.

—¡Demorridšua! (1)

—¿Zer? ¿Karu? Esan Kosepa Kuanari emote-ko bost errealegaiti kaltzerdidšak. ¡Ardura barik!

—Badakok, biakok. ¡Ai Kalistro! Ire Aifak (Jainkuak zeruan euki daidšala) ik aiña irabazi izan balaidšok, urrezko etsia eingo dšuan Elen-tšueko Elizien aurrez aur. ¡Ura lez irabazi ta kia lez putz ein da bota! Alan bizi da zuen dirua.

—¿Asi gara? Ezkara oiñ išilduko iĭebetian.

—Kalistro ¿zeinbat diru dakak? ¿Ezin dšakin leike?

—¿Elentšuera eldu barik eztodala esango, eztau entzun?

Onetan gelditu zan su-burdia ta atzeko burdi guztiak bere bai.

II

Usansolo. *Dos minutos de parada.* (¿?)

«Ama ¡Elentšuera be *trena* Diputauak eingo ebala, esatia etzan izan? Eiten badabe, erderaz antše be esango dabez esateko guztiak.»

Onetan atea ots baten zabaldu eben, zarata

(1) «Demorridšua», *demoniua*-n ordeez esaten dabe.

andi bat eginaz; da *kondutore* bat agertu zan, eskuturretik emakuma bat ekarrela.

—*Aquí los de tercera; y si hablas mucho, á la perrera.*

—¿Nor da berau, arpegi andidšau?

—*Aquí, aquí.*

¿Aki diño beronek, aki? Aki antšina il tzan «koitarua», Lekitoko «ospizidšuan.

—*Calla esa bocota, desvergonzada.*

—¿*Desbreguentzaria* neu? Etxenduke esango ori, Tala goikuan bazengoz. Aaamen zer ikusi biar dogun beronegaz. *Segundia* dala. ¿Nok dšakik ba, zein dan *segundia*, erderaz dšagozak guztiak-eta?

—*Si no guardas ese pico, yo te lo haré guardar.*

—*E Usté, otros tambien-e ya saben á pegar,* esan eban Kalistrok.

—*Y á ti quién te da vela en este entierro?*

—*Uste tambien no pegar á mukeres.»*

Iagi zirean burdiko lagun guztiak; eta eskerak suburdia ibiltan asiari, bestela barregarri ibiliko zan erdalduna.

*
* * *

Gernikara eldu zireanean, Elantšobeko zaldiburdi batera ioan zirean arin aringa, Kalistrok berak ipiñi ebazan burdi-goñ goian, ontzitik ekazan soñnekoak. Bera atan ebiñenartean, Ama

burdi-barruan egoan zabal-zabal eginda, semearentzako lekua gordeten. A ta guzti bere ezeutsan balio izan beren asmo onek. Gogoaz kontra, geroago ta batuago egin bear izan eban beren gonaak. Agertu zan noizbait itšasmutila. Arpegiera argi argiaz itandu eban ezete-egoan berentzako iartokirik. Mandazain-irudiko gizon lodi batek erantzun eutsan:

«¿Geu gaiagozak *errementateko* legez, da eu ator ona *asientu*-bila? ¿Ulea artu nai dok, mutilko?

—¿Zer diño giñon onek? erantzun eban atsoak. *Errementateko* daguanak, *kotše partikular* bat artu biar leuke. Etšaramon, Kalistro. Neu eztutuko naz da lekua eingo dšak-eta.

—¿Kristina! ¿Gomazkoak gareala uste aldozu, atsotšoa?

—Ba geu izan gara lenengo: ta azkanengo etorri dana duala kanpora, «azkanengo mamogorri» esaten da-ta.

—¿Zer baaaa? Ez ba ze... Tira barrura, ene semetšua, lekua aamen dago-ta.

—¿Lenengo etorri dala? ¿Nun egon az ba, *mariñero de agua dulce*, nun oraiñarte? Sartu albaaz, sartu; nik eztot zirkiñik...

—¿Nor da *agua dulce*, zer dan be eztakiñ baia? ¿*Agua dulce* neure semia? Eztakot neuk mando-artian erabilteko. Tira barrura, Kalistro.

—*Agua dulce*, eztago lekurik emen. Aurrera, *mayoral*.

— ¿Ner da ori be? ¿*Mayoral* be bada neure semia? ¡Ene! Geidšago entzungot. ¿Zeu nor zara ba? ¡Andrak, auše ezeteda ederrarren erririk erri erakusten erabiliko dabena!!

—Aurrera, Florentino.

—¿Nori aurrera? Kalistro ene semia ¿eztot nik esan oiñez dšuan bagiñian obeto izango zala?

—¿Ogei urteko mutilak euki bear dau, aurrean ioateko naieza?»

—Ama, aurrian nua ni: esan eban Kalistrok.

—Bai, tšotšo. Emen andiki-usaiñak larriñu enaidšan, orraše naidšuaq neu be.

Zu, mandazaiña, edo Florentiño edo zariana ¿gure diruak eta onenak eztabe bardiñ balidšo? ¿Ala onek urregorriñan emon dabez euron amar errealak?»

Barre egin eben gogoz barruko ta kanpoko guztiak, atsoak esandako berba onek entzueran. Zaltzaiñaren (1) atzetšuan iezarri zirean Ama-semeak. Ama barriro asi zan barruko lodia zirikatuten; ezeutsan baiña semeak iarraituten itši.

Arteagara zaldi-burdia eldu baiño lentšuago aurkitu eben lengo emakuma Lekeitioarra, Florentiñok urrenetik ezautu eban, da asi iakon:

(1) *Burdi+zaina* ta *idi+zaina* ta *ardi+zainagaitik burtzain, itzain, artzain* esan daroagun antzera, *zaldi+zain* (erderazko *cochero* esateko) *zaltzain* esan leike. Idi-burdidunari *itzain* esaten iako, mando-burdidunari *mandazain*, zaldi-burdidunari *zaltzain* ondo iagokala esan leike.

«Lekeitidšo ¿ezaldago *kotšerako* dirurik?»

—¿*Kotšian* eure onduan dšuateko? Aš aš orreri, Lekeiñiarrak Iarrari. Aldatzera eldu gaižanian ikusiko dogu nor dan ariñago, on poparian zoiaze baiña.

—Gazte ¿Lekeiñioraiño ua oiñez eder ori? esan eutsan Kalistron Amak: eidšo ta amaiñuko az ba.

—Tira, Kalistro ¿zelako indianoak zarie zuek? Neskatiñā gaztiari oiñez oiñez joaten itši? Ori balekidše, atsoak be arrika egingo leuskizue Elantšoben.

—¿Nori arrika? esan eban Kalistron Amak: Ez siñiztu, tšiztu. Tšikiña, zuaz orrutz zeure bidian tšaka tšaka, neu be gaztia nintzarian oiñez ibilten nintzan-da.

—Ama ¿bide erdikua bost erreal baiño ezta?

—¿Da zer, iru bada be? Geidšegi badakok emoidak neuri, amen naidšagok nai neukiela-ta.

Kalistrok orduan bestela baitakoan (1) Florentiñori belarrira esan eutsan, Elantšobera elduta gero ordainduko eutsala Amaren isilik, eta Florentiñok berak berenez legez, neskatiñeari dei egin eiola. Ekiñen ekiñaz igon eragin eutsen zaldi-burdira lekeitiarrari.

Kalistro, eskuetara tšiztua bota, tšapela estutu ta gero guztiz gogo argiaz asi zan esaten:

«Lekeitidšo. ¿Zelan don ižena?»

(1) Disimuladamente, en cachette.

—Okela-gižena.

—¿Zer? ¿Asarratuta al-ago nigaz?

—Ez asarre, ez adiskide. Berbetako gogua baraukak (1), *kotšerua*k ižaten dira manduari be berba egiñen dakidšenak.

—¿Zetan dšuan az Bilbora? ¿Burua erakusten?

—Oriše bai; burua erakusten beintzat, beste zeregin barik. ¿Zer ba? Galantak dirianak be aurrera, ta gu be aurrera.

—Ta Lekeitidšon ¿ze barri da?

—Neu enaz *periorikua* (1)

—Umore tšarreko ator. ¿Piper miñak dšan aldonaz?

—¿Piperrak neuk Bilbon? Orrek etšian dšaten dira, besterik eztagonian.

—¿Lekeitidšo, eztogu berba gozo bat igandik gaur entzungo?

—Elantšobe, *trenian* adarra dšo reustazue (1) ederto ta eztaukat ezer esateko. Ezer dšakin nai dabena, ondo esan daidšala lenengo, or eu ta Maketenekoa kaļe kaļekoa Gernikekoa (2) alkarri ziñuka ibili barik. ¿Irukua rauke (1) onek otsian otsian? Kiñu beti. Batekua be etšake dšuangō bein ero (1) bein, miña atarateko.

—Gaztiak ¿nongua da neskato au? Ezeidšo-

(1) Lekeitioko Arranegi-aldean Eibartarren antzera *d-n* ordez *r* esaten dabe sarri; *baraukak*, *periorikua*, *ero*, *rauke*... *badaukak*, *periodikua*, *edo*, *dauke* esan bearrean.

(2) Gernikarrañ Lekeitiarrak destaiñaz esaten deutse: «Maketenekoa, kaļe kaļekoa, Gernikekoa.»

zue dšaramonik egiñ, belarri minberaduna da-ta, esan eban atsoak.

—¿Zeu nungua zara ba?

—Elantšobekua ni.

—Baita ni barriz lekiñarra.

—Agiri don, ene alabia.

—¿E? ¡¡Amen nun egon leikien gauzia!! ¿Nun agiri dot ba? ¿Surrian?

—Lekeiñarrak urtentšua izaten zarie.

—¿Nor da berau? Baita elantšobetarrak barriz... bakit neuk.

—¿Zer, zer?

—Sorgiñak.

—¿Zer da berba ori? Lekeitio, lenez ganera be... ondo lotsa galdukoa az eu beintzat.

—¿Neu olakua? Baita zu barriz Elantšobe, miña *probe*.

—Gogoz egozan entzuten da gogoz iarduen barrezka burdi-barrukoak; eta onek zeinbat barre geiago, ainbat sutuago egiten zan Lekeitio-ko neskatila arrain-saltzailea. Arteagara zaldiburdia eldu-zanean, norbaitek iatzi bear izan ebalako, kelditu ebazan zaltzainak zaldia, eta orduantse dzapartada baten iatzi-ta oiñez barriro asi zan lekeitiar mukerra. Orduan Kalistrok garraizika esan eutsan:

«Agur Lekeitidšo.

—Agur Elantšobe» erantzun eutsan neskatilak.

AMAİKA-GARRENA

GERNİKAKO ELIZ-ONDOAN

I

Oraintse aste bete etezan nago, Gernikara ioan nintzan zer edo zer iakin nairik. Banago; ta emakuma-aldra asko lenengo, ta gizonik ez gitši gero, banan edo biñan geienak, Elizarantz ioazan; dantzara edo zezenetara baizen ariñ ez; baiña ¡tira! neu bere eurakaz aurrera. Bagoaz, bagoaz, bagoaz; da Eliz-atarian aguratšu meats bi egozan, pipea mosuetan ebela.

Iñor ikaratuteko bildur ezpanintz ¡amaika berba egingo neuke alako gogaldietan! Iru bidar otu edo bururatu iatan agura biai zerbait esatea. Baserritarra izanda ¡Elizan sartuteko, bete-arte itšaron? Orregaitiño bere, ezer esaten asi-orduko, euren barri iakin nai neban, da eurerariko baten kapela-egal egalean iarri nintzan.

«¿Onakorik noz ikusi da Gerniken? Beste zer egin guztidšek albo baten itši te misiñora etorri te aditu eziñik egon bier?

—*Señoritoak ezeidire etorten, euskerazkoak entzuten da...*

—Baiñe gizona, *señorito* batentzat sei gagoz ezkarrienak. Eta ganera *señoritoak* bere ¿zer deuke, guk ezteukegunik? Ganeko *leviñie* erantziezkerok, arei bere alkondarie agiri izaten jake, ta sarri gurie baizen garbidše ez.

—Kanpotar asko dagoz geur Gerniken.

—¿Eta kanpotarrakaitik guk geure euskerie galdu bier dogula? Kanpotarrak, edo kanpora joan edo barrukotu, egin bier dabe.

—¿Badakik, lagun zaarra, zer egiten daben euskeldunekaz geur Euskeleerriko Abade ta Alkate ta aginpidie dauken askok? Geure atsoak geure kaltzerdidšekaz egiten dabena: artu musturretik, iruntzietara edo barrukoz kanpora ipiñi, ta gero tolostu ta gorde.

—Egidše, Abustiñ.

—Da gero barrukoa kanpoan, da kanpkoa barruen egon bier: Gerniken jazoten dagoana. Esan dot: enoa geur Elizera.

—Abustiñ. ¿Lotsatu bere ezgara egingo?

—Ni ez. Elizara erdereak daroenak eta Elizetik kanpora guri bultz egiten deuskuenak, aonek dira lotsatu bier dabena. ¿Zer ba? Baietz nago. ¿Ez ala?

—Abustiñ. Gaurkoagaitik, kalera etorri garienezkero, goazan barrura; bidšer etorri ez da bakie.

—¿Ta barruen zer egiteko?

—*Dios* da *Sielo* ta *sacramento* ta onek bada-kiguz geuk bere.

—Lagun zaarra, zeugaitik noa, bestegaitik ez.» Au esanaz, agura biak pipaak, eskerreko erpurua curakaz ioaz, ustuta, Elizara ioan zirean.

Nik, neure gogaldi ona ez ilundu edo goibeldutearren, Elizan sartu barik, mendi garai garai baterako bidea artu neban.

II

Gernikako aguren autua ezin burutik atara neban. Gogamen bat ataraten nebaneko, beste bat bururatuten iatan. Beste gauza askon artean aŕse otu iatan: Inoizkoren baten, Alkate ta Abade ta Diputau ta osterantzekoak nai dabelako, euskereak Gernikatik mendietara iges egingo baleu, zortzi edo amar euskaldun zintzo alkar artu ta—il edo bizi—eriotzean bean izanda bere, Gernikako zugatz edo arbolea ondo ondotik ta guztien artean mendi batera, euske-rea bizi dan batera, birraldatu bear leukeela.

Burutasun au nerabilēla, abade bat ikusi neban, nigandik urrun, solo baten laietan iarduen batzun aurrean. Ioan nintzan bertara; ta ona nik entzuniko erautsia edo autua:

—¿Baiña, Jauna, norako ditu berorrek berbok?

—Zuk esaizu ta...

—«Andra Maria Martiko, artean udeá tatiko, andik aurrera betiko. Esakunia da.

—Ederto dago. Neure Ama zaarrari entzun eteneutsalakua daukat.

¿Entzun dozuez iñoiz berba oneek? *Garden* garbia esateko; *epoa* enano-n orde; *enda, endeka* ta *endekatu*; *eizarra, etšadia*; *oporra* ta *oporeguna, estibai, ekarkor, gardostu, gartšua, gatsaga*... ¿Entzun dozuez iñoiz?

—Jauna ¿zetarako dau olako gauzetan burua austia?

—Zuek eztakizue. Berba onek eta onen antzeko berba zaar ederrak gozuago dira, gozuago, eztakit zer baiño be.

—Ondiño geišago entzungo dogu. ¿Ezteritšo, Jauna, labarto bero bero, keia darišona, ori ori, urre gorriša lakotše labarto-zati ederra, urdai-zatitšu bat erreta, koipatsu egiñezkero, berba guztiak baiño gozuago dala? ¿Ezteritšo berorrek?

—Zuek eztakizue zer dan gauza ona.

—Jauna, astegunetan eztogu asti andirik eukiten; baiña jaiegunetan juungo giñate ba berorren eskaratz-aldera; ta orren gozuak diriala berbaak uste badau, emon beigu berorrek lapikotšua ta ganerantzeko okela ta arrain da arrautza ta abar; da geuk berorrek nai aiña berba egingo dogu.

—Ori beste gauza bat da. Badago ba berbaakaitik dirua emongo leukiana.

—Zororen bat edo alakotšia.

—Esaizue, baldin badakizue, len aitatu dodazan berbaak zer esan gura daben; da alako

jai andiren baten bazkariša be, zelakua edo alakua, emongo jatzue.

—*Gardena* garbišagaitik entzun dodalakua daukat; *epua* ta *epotu* sarri esan daruagu; *endia* ta *kastia* bat dira; *enda* tšarrekua esaten da *kasta* tšarrekuagaitik; *endekia* jatorrizko indarra ta izatia galdu dabezan lora edo osterantzeko abeki edo bedarkiren bat da. Esan leike gizon dongiagaitik be, gurasuen mendu ona galdu dabenagaitik. *Eizarra* be esaten da. «Ni il da be, gure idišak eizar egingo dabe»: esakunia da. *Eizarra*, (neuk eztakit ondo) baiña, azatzagaitik edo lurrian goldiak egiten dabezan utsunakaitik esaten etedan nago. Geienak *lorratza* edo *lorrotza* edo *erkia* esaten dabe goldiak egiñiko utsunakaitik; *asatza* barriz gariša ereiteko egiten direanai. *Etšadiša* ta *familiša* bat dira. *Opor*-eguna da geldirik egoteko eguna; eurišagaitik edo... solora eziñ urten dogunian, esan daruagu *opor*-eguna dala. *Estibaiša* ta *eutsiša* edo *sekenak* eztauke alde andirik. *Ekarkorra* garau asko emoten dabezan sagar edo madari edo onetariko arbolakaitik esaten dogu.

Gardostu da oiño ilak, lumatšak obeto kendutiarren, sutan erabiltia. Baita esaten jako *sukarastau* be.

Gardostu esaten deutse beste batzuk tripakišak eta odolostiak eta onetariko jakišak, ur irakiñetan sartu ta gero, arrast arrast gaiñibetiaz garbitziari. Eurotarikoen bati entzunda dauka-

tsat ba, Purgatorišuan arimaak *gardostu* egiten diriala. *¿Gartšua* eztaki zer dan? Atš-arteko abetšu zaal zaal, orri-zeia, azal-zuriša, urri urriša ta artadišekua: auše da *gartšua*. *Gatsaga* barriz erriša da: Gipuzkoan dago bat, Araban beste bat. Eta *gatz-tokiša* esan nai dau. Esakune zaarra da (eztakit berorrek entzuna dan). *Gatza Gatzagan, koipia Motrikun, arekin egiten dira azaak bigun bigun.*

Adurra eriola iarduan Abade arek paper baten gauza onek ezarten. EUSKALZALE: nire us-tez aše da zure adiskide Vascofillo; ta laster izango dozu alako eskutiz gogaikarriren bat.

AMABI-GARRENA

BEMOLEKO ELIZKARI BATZUK. — «EUSKALZALE»-REN ADISKIDE-ARERIOAK

Adiskidea, belarririk eztaukat eta agiri izanda; bestela eskerrekoa aspaldion tšingarra legez gorri ta gori eukiko neban. Iru edo lau aste igaro dira nun nabilen bere esan barik. Aurrerantzean sarritšuago bialduko dautsudaz batu al dodazan barriak. ¿Nun egon nazala esango zenduke? Lengo egun baten (eztot esango nun, Vascofillo bein-ola legez asarratu eztaitean) bealdi edo lur-emote edo *entierri* guztiz ikusgarri bat neukan begien aurrean, gizonetan da emakumatan ezin-esan-alako beste ioazan gorpū-atzetik, abadetan bere inoiz baiño geiago.

Lurpera eroena nor zan iakitearren emakuma-artean sartu nintzan. Elizaurrera elduarte, adi egon nintzan. Anditasunik asko ipiñi eutsen koroe edo aro-artean gorpuari: aberatsa, benetako andikia, emakuma galanta, entzute andikoa, nun zer egin bear eban ekiana, erritar guztiakazkoa eukitekoa, *pianista* ona...

Elizaurrera eldu giñeanean, geienak barrura sartu zirean; ni gorpu-atzetik ilerri edo obieta edo ortu santura. Antše bere, adiskidea, abera-

tsa nor dan edo nor izan dan, laster ezautu al izaten da. Lurrean bertan gorpuari zuloa eginbearrean, orma baten, aterpean, egoan ni elduorduko tokia eginda. Elizeak gorpuari Abadearen aotik azken-agurrak egindakoan, sartu eben orma-zuloan andra aberats, benetako andiki, emakuma galant, entzute andikoa.

Ī-arria, Ī-artitz (1) da guztikoa, orma-zuloan ipiñi bear ebenean, išĪ išĪlik, oi dodanez, sartu nintzan, neure artean esanaz: ikusi daigun ementše, eriotzea ta neu baiño besterik bizi ezkareanezkero, nor dan aberatsa ta nor ez, ezautu eteleikean.

Lenengo egunean bertan azi zan gorpua, biziari iñoiz eztarion gizako ats edo kirats ilgarri bat, botaten.

Eskerrak surrik ez eukiteari: surrik euki baneu, neu bere atsen atsaz bertan ilgo nintzan. Begirik ez eukitea bere sarri oba baiño ezta izaten. Gorpu aren arpegia ikuseran zzein begi iguiñen iguiñaz etzan itsutuko? Ikusi izango dozuz adiskidea ur-beeran, paduretan (2), basa baltz baltza agiri izaten dan tokietan, zelan noizik noizera basatzen bertan unean unean zulo biribil biribiltšuak egiten direan, barrutik mamu edo kokoren batek arnasa artuaz egingo baileuzan. Onetaraše gorpu aren matrailak, esku-ga-

(1) Erderazko *epitafio*. Oihenart-ek dakar berba au.

(2) *Padura*, erderaz *marisma*.

nea ta agirian eukan aragi-une guztia azi zirean zimeldu, ubeldu ta zakonduten.

Bigarren egunean eriotzeak gorpua emazteztzat artuta eukana, eneban atsean da usteltasunean bakarrik ezautu; baita bien seme-alabaak ikuseran bere. Eriotzeak eta gorpuk daukezan seme-alabaak arrak dira. ¿Baiña zelango seme-alabaak? Euren Aita barrezka dagoala, euren Ama ian da irunsten dabenak. Egun onetan arpegi erdi-ingurua ustu eutsen.

Eztakit zeinbat egun igaro zirean azurrutsa, mamiñik ezer bakoa, ikusi neban-arte. Urten bear nebanean, azkenengoz begiratu neutsan gorpuari, ta ain makar, ain igar, ain il ikusirik, eta beren azurrak gordeten ain soiñeko balioitsuak, atzetan erestun urrezkoak eta zidarrezko domiñak (1) paparretik edo paparra egon zan tokitik beera dingilizka ikusitakoan, erruki izan neban gorpua ta gorpua baiño errukiago bera alan apaindu ebenak.

Urten nebaneko, azi nintzan irakurten il arrian arrokeriak ezarririko berba urre-kolorekoak: Urliaren emaztea, eztakit nungo *presidentea*, badakit zelango *fundadorea*... Eneban guztia irakurri nai izan. Neu legez, ori egin bear izan ebana barruan egon balitz, ezeban olakorik ezarteko gogorik izango.

¿Badakizu nun edo zetan igarri neban, sartu

(1) *Domiña, erdetaz metalla.*

nintzanetik urten nebanera egun asko igaro bear izan ebela? Obi-ondoan esegita ikusi nebazan lorazko koroetan: igar igar eginda egozan.

Burutasun bat otu iatan orduantse. Esaten dabe (aŕše zan otu iatana) euliak iñok uste daben baiño gaiso geiago zabalduen dabezala; gaisorik dagoan bati gatša edo eria mizkau edo tšukatu ta osorik dagoanari erantsi edo inkauaz. ¿Nok daki beste onenbezte eriotzeak egiten eztaben? Nik neuk beiñik bein eriotzea banintz, iñerri edo obitegietako lora-koroen una erleak legetsez mizkau ta iñ-una aše aoan dodala bizien etšera ioango nintzateke, euren gorputzetan eriotza-aurreko eztiā edo gorriñea ezartera.

Azi nintzan, besterik zer egin enekiancan iñartizetako barriketak irakurten: guztiak egozan erderaz; da egi egia: enago beti biurkerak egiteko gogotan.

Elizara ioan nintzan gero, zer edo zer ikusi edo iakitearren; da belarria, baldin baneuko, ipiñiko neuke, neuk azurtuten ikusiriko atsoaren arimeagaitiko elizkariak zireala. «Nire agintaritzea ezta mundu onetakoa» esan ebanak, aberatsen eskuetan itši eban mundu onetako agintaritzea.

Argiak eta abade-piñoa ta lagun-aldra andia ikusi nebazaneko, ezer entzun-orduko esan neban neure artean: Bergararrak esaten daben antzera, gaurko elizkaria *bemolekoa* da.

*
* *

Bemoleko elizkariak zer direan esan daigun lenengo. *Bemol*, *beknadro* ta *sostenido* zertzuk direan, musika-apur apur bat dakienak, eztauke inok esan-bearrik.

Erri batzuetan iru muetakoak izaten dira lurra-emoteak eta elizkariak. Iru mueta onek eztaukez erri guztietan izen bardiñak, ez gitšiago bere. Erri batzuetan esaten iake lenengoa, bigarrena ta irugarrena. Beste batzuetan zortzi-koa, laukoa ta batekoa: zortzi argikai lenengoa danean, lau bigarrena danean, bat irugarrena danean, gorpu-aurretik eroaten direalako.

Bergara-aldean *bemolekoa* esaten iako zortzi-ko edo lenengo elizkariari. Ta zegaitik dan iakin dot. Irugarren *salmua* (*Domine Deus meus, in te speravi*) itzal itzal, *bemol* da guzti, abadeak eresi edo kantaten dabe, elizkaria lenengoetarikoa danean, da auše da izen orren iatorria.

- Ni Elizan sartu nintzanean, zutunik eta isil isilik egozan gizonezko guztiak. Arik gerotšua-go iezarri zireanean, Abade gordin bat iasean da bee beetik, iuti edo gora goraka andia egi-teko makurtuten direanen antzera, *Parce mihi Domine* cresten azi zan. Bular ederra dauko dana dalakoak. Eztakit nor dan, baiña beren arloa amaitu-orduko gogoan sartu iatan. Azi baiño bere ias andiagoaz amaitu eban. «Ez ba, nik neure artean, gaur, oan tokira oala, nik ezautu barik ezaz egongo.»

Mezea azi-aurretšuan Elizgela edo Sakristeia-
ra ioan zirean iru edo lau Abade: euren artean
bular ederduna. Ni euren atzetik, baita ioango
nintzan maisu erdaldunen etšera bere. ¡Ain neu-
kan a ezaututeko gogo andia!

Sartu zaneko atara eban barru barruko sakel
batetik narruzko zigarro-ontzi bat, edegi edo
zabaldu eban da lagunari zigarrotšu bana eskiñi
eutsen. Bular ona badauko, biotza eztauko tša-
rragoa; esan neban neure artean. Ondo begiratu
neutsan abadeari: aren sanetan eztago euskal-
duna eztan odol-tanta bat, ezta usaiñik bere.
Zigarroa isio ebanean, iarri zan zutunik zokon-
do baten, besteakandik zerbait aldenduaz, da
kolkotik atara eban paper zuri zuri bat, neure
ezaun da adiskide andia. Euskalzale: ez gorritu,
zeu ziñean.

«¡Gizonak, asi zan esaten, nai dozue Euskal-
zale irakurri deizuedan? Gaur goizien artu juat:
eta batien mezatara, bestien zerera, au dala ta
ori dala, ezetarako asti barik ibili nok. «Batši
guzur» irakurten azi nok gero elizkarira nato-
rrela, ta, gizona, maisue etorri jatak eta agur ni.
Maisueri aitatu be ezin lekišo onako konturik,
jango ninduke osterantzien-da.

Don Turubio ¿paper ori *leiduten* zagoz? Ez-
taukazu okupaziño e andirik.

— ¿Zer ba, Oiñetše?

— Gizonak *pazientziše* bier dau olako pape-
rak leiduteko.

—¿Badakizu, Oiġetše, zetarako bier daben gizonak eruapena edo zuk diñozun pazientziše? Euskerazko albistari bat euki, bakar bat, eta beren kontra olako gauzaak euskaldun baten aotik entzuteko: aunetarakoše bier dau batek eruapen andikue edo *pazientie* izan.

—Etzaite, Don Turubio, berotu.

—¿Berotuko enok ba? Erdalduna baintz, orduan isilik edo isilduko ezpanintz be, enintzake beintzat arrituko; baiña, Oiġetše, azan errikue izan, daukaan soñekue euki, darabilan bizi bidie erabili ¿ta ori esan? Euskaldune dan euskaldunek, abadie dan abadiak, euskaldun ustela dala edo Gontzalez-zalie dala entzun gura ezpadau, nai ta ezkie dau euskera onien egiten dirian paperak, beste aldetik uste tšarrekuak izan ezien, alegiñez zabaldu ta eutsi ta iraun-eragitie.

—Euskera onian zuk diñozun lez, Mogelek eta Fr. Bartolok eta Olaetšeak *imprimiduriko* liburuek lazko euskera onien egiñezkero, neu be enaz ni Gontzalez, enaz erdaldunen semia, ez gitšiago be...

—¿Fr. Bartolok eta Olaetšeak euskera ona; ta Euskalzalek euskera tšarra!! ¿Nok esan dau gauzori? Euskalzale-gaitik maisuek esango eleukezan moduko gauzaak esaten iardu izan duan artien, geuk legez irakurri izan baeu...

—¿Zer da ba nik esan dodana?

—¿Zeinbat bider irekurri dok Euskalzale?

—Don Turubio, gaztiago baziña, esango neuskizu ze ezteutsula orren ardurarik.

—Zaarrago banintzok be, esan dok eta kitu. Ardurie nai mardurie, nik entzutie daukadanez, bein duarik bialduriko gei bat irakurri eidok, eta bertan ez guztia. ¿Orretara nai dok albistari bat ezautu?

—¿Nai dozu ba egiše jakin? Irakurten asi nintzen, baiñe ainbezte k-k ikusi nebanien, «zimaurre egiteko *majue*», esan neutsan bateri.

—Alakoše bat esanezkero, uste dozue gauza andišek esan dozuezala. Lengo egun baten, oriše berori esan eustan adiskide bati, irakurri neutsan *Euskalzalek* Vascofillori esanikue. Gitiši bat gora-bera auše da. ¿K K K zimaurre egiteko ona dala? Umekerišak dira orrek. Q Q Q diñuanari esan leišo oiñarren kukurrukua edo astaki baten barre-santzua dala; *co-co-co* diñuanari barriz, ganora bagako kirten buru andišak diriala *ko-ko* ta *kokoluak*.

Iri, gizagaišo orri, Vascofillo izateko ondiño *requiem æternam* asko eresi edo kanta bier izengo dok ¿eta zer esango deuat? «Elizgizona izan, da Elizarako euskera garbiše bier, *Euskalzale* baiño beste albistaririk egon ez, da irakurri nei eztabenak, Oiñetše, pozik dagoz atšekiren bat daukenien.»

Onetan tšalo bi io ebazan aguratšū batek, eta alkarren ondoren urten eben Elizgizonak andik.

Amairugarrenerarte agur.

AMAIRU-GARRENA

AMA-ALABAAK INDIANO BATEN-BILA

I

Aspaldion ibili naz, adiskidea, nora ioan enekiala, zeutzat zer edo zer alako barri pozgarriren bat zuzenduteko usteaz. Donianez erri askotara ioan nintzan. Aurreku utsetan eztakit zeinbat ikusi nebazan; baiña Donianez goizetik azi ta gabera dantzan gure erritarrak jarduten dabena ¿nok eztaki?

San Pedro ta San Pedro tšiki igarotera Mundiakara ioateko nengoan; baiña *korridak* edo zezenkak egozala norbaiti entzun neutsanean, ¡ut! esanda Lekeitiora ioan nintzan. Gauza polit asko ikusita banator andik, zeuri bertako barri emoteko ustean, da, Gernikako Gelune edo Estaziñora eldu nintzanean, iru lagun ikusi nebazan didarrez, baiña asarre barik, alkarri berbetan: bata zan gizon lodi, kolots edo okozpekoa malats malasduna, etšeko moduan iantzia; beste biak Ama-alabak zirudien, zaarra maiz maiz da gaztea apain apain iantzita egonarren.

Ni urreratu nintzakienean, atsoaren sandšea edo tšandea zan.

«¿Kosanton, entzuterik be eztakozu? Neure nebia dšatorku, ogetaz urtiak kanpuetan eginginda.

—¿Zein? ¿Tšotšo bizkor?

—Dakotan bakarra, zeure izenekua: Kosantonio.

—Ogetaz urtietan kanpoan ibili bada, ezta esku utsien etorriko.

—Ondotšu eidator. A beti izan dšatzu gordia. Mendu batekuak gara bidšok.

—¿Da zeuek lotsatu bere etzarie egingo *tertzeran* joaten?

—Kosanton, ez neuk esatiarren, baia bein etsetik urtenezkero, neuk be ondo ibiltiari emoten deutsat.

—¿Da *tertzeran*?

—¿Zu be bazagoz ba! Udarezkero *primerarik* duan be eztot nik gura. ¿Or narru-usainaz larri larri egoteko? Bai neu. Orrenbat baiño barru zeragua daukat neuk.

—Orretara-ezkero, isilik nago.

—Da ganera, or Somorrostro-aldian da orretan *tertzeran* ezin ibili eileike jain eidago zabarrerri andidša! ¿baia emen? Euskaldunik garbidšenak, nekezale *ondraduak* eta dšabiltzuz. Nik andiki mustur-zorrotzakaz baiño naidšago dot neure antzeko gogo-zabal edozegaz pozik egotekuakaz ibili.

—Egidše, Mariñasi.

—Ta ganera lapurren bildur izan-ezketiño be,

lapurrik etšatortzu gu guazan lekura; lapurrak beti ibilten dira *segunda*-ti gorakuetan.

—¿Lapurra diñozu? Ain zuzen bere...

—¿Da alan ezpalitz be zer? ¿Geure kontura *trenak* egitera datoza agura belendro kasteñanuari dirua emon? Euron erridšan ogi baltza dšan da ondo izatia zer dan eztakidšen koipe, baltz...

—Ene Mariñasi, ¿miñari zertzuk eraso dau tsazuz?

—Ganera *primeran* ibilteko erderaz ondo dšakin biar da, bestela auzoko tšakurrari legez azpitik begiratuten dabe. ¿Bakizu, Kosanton, nor dan Katalin Goitizko? Atzo Bilborako nenguala esan neutsanian, badiñost ze bein *primeran* etozala eurak zoridšonian, da...

—*Señooooores viajeros al tren.*

—Ene bada ta ni. Agur, Kosanton, bidšar edo etzi luzien dala etorriko gara.»

Auše esanagaz. Kosantonek lagun eginda, sartu ebezan euren su-burdian Mariñasik eta alabeak kutša andi bat eta iru edo lau esku-zakuto, ta tšistuak eta tšiliñak ots egiñ ebenean, su-burdia ezkuta-arte Ama-alabaak zapi banaz, Kosantoni agurka egon zirean.

II

Arik lastertšura Mariñasik zimera edo besotzara tšiki batetik atara ebazan lebatz zati batzuk, lukainka tšiki bi, beste ainbeste arrautza

egosi, doniane-madari tšiki tšiki batzuk eta... (Naparroako maasti-iaubeak, arritu zaitez...) ura, ura goiz-erdian. Berba banakaren batzuk edo berba antzeko urrumadak urten eutsen Mariñasiri surretik, ian-edanean ziarduan-artean. Alabeak ezaban ezetarako gogorik erakutsi.

«Kesus, Krispiña, Kesus. Ez dšan ez lan esaten dšake ilakuari. ¿Zer gura don, ba? Mari dšerdikuagaz ezkondu adi, gaztia dala-ta.

—Nik eztiñot ezer.

—Bakust. Orrek nauko ba irakiten. ¿Zer don ba, ez dšateko ta muturik egoteko?

—¿Beti egoten alda gogua?

—¿Auzokuak zer esango daben? ¿Zer esango dabe? Euren barruan euk langoše senar bat baleukie nai. Eztauko edozeiñek tšoko ori. ¿Osabiagaz beste asko eztira ezkonduen? Zeruan gerta deila Mari Andres kai-ondoko. Osabiagaz ezkondu zan a be, ta i baiño gaztiagorik; eta iñor izan bada, ondo andra ederra ta *errespetadía* izan zan.

—Nik eztiñodala ezer.

—¿Zegaiti ago ba, iltera daroien oiñua lez?

—Goizian be esan dot nik. *Sombrero* andi dšak buruan, da gero *tertzeran* ibiltia eztala etšuria.

—¿Ori da guztiori?

—Auše da guztiau. ¿Zer ba? ¿Gitši alda?

—Ène alabatšu ederra, begiratuta be kon-tuak dagoz. Soiña ta oiña *primerakuak*; maidša

be, inok ikusi ezarren, ona nai eta gero *primeran* ibili, markesen alabak lez?

—Markesen alabak lez ez dšantzi orretarako.

—Ezetz diño. ¡A koitadua! Ez ipiñi amuari karnatarik. ¿Ze atrapateko? ¿Karramarrue?

—Kurtzia egingo dot: enator geidšago *tertzeran*.

—Ez neu be, nok emon eukiezkero; baja guztia andi ta guztia *a tuti ple* gura dabena, zakel ondo betia biar dau. ¿Osterantziaaan? ¡Tululu! Osterantzian eztago Ama etzian, ene alabatšu ederra.»

Onetan sartu iakezan Zugaztietako Gelunean erdaldun batzuk. Nik, geure erriko berbe-tearen ordezt besterik ez entzutearren, torretšoriak mutiltsuak arria artuten asitakoan egiten dabena egin neban: iges.

AMALAU-GARRENA

AMA-ALABAAK ETA INDIANOA

Lengo eguneko Ama-alabakaz eldu nintzan neu bere Bilbora. Indianoa ezaututeko geroago gogo geiago neukan. Ostaturik ostatu ibili ginean: atsoa isildu barik, alabea goizari luze eritšola, ni eguna luzatu al izateko gurariaz. Gitšienez sei bidar esan eutsan Amak alabeari: «Krispiña, gero arpegi argidša ipiñi ta musturtuta barik berba asko egin. Erdera sarridšago, *kolejidšuan* egon azana dšakin deidšan.»

Eztakit nor zan esan eutsena, egun atan Santandertik ontzi tšikitšu bat etorriko zala. Ordu bete inguru gitšienez igaro genduan Bilboko Zingirako Nasan. Zingira esaten dautse ta eutsen Bilbo-inguruko baserritarrak gaur *Sendeja* deritšon inguruari. *Nasa* bizkaitar askon berbetan erderazko *muelle* da.

Bagagoz ba egon, da egon, da egon ontziari begira. Alango baten aurre zorrozdu onzi baltz tšiki bat tšiztu-ots andiakaz agertu zan.

Orduan Amak alabeari «an dator Kosantonio, esan eutsan, ondo gizon gorri ederra; an aurre aurrian.

- ¿Zeiñ? ¿An datorren agura zaarra? ¿Bestela-

kua! ¿Aberatsa dala nok diño? ¿Ta aurrian etorri?

—¿E? ¿Aguria? ¿Ule urdiñak daukazalako? Geure Amama Kontze be gazte gazterik urdin-du zan. ¿Zer dakar beronek? Ia Krispiña, atara *pañelua* ta arrera ona egidson Kosanton gu-riari.

—¿Neuk nor dan eztakidala?

—Krispiña gero, ez gero inor Nortera begira ipiñi. Goiazan beragana.»

Egia esan bear bada, Mariñasik beste eritši bat eukiarren, agurea guzurrik esan barik esan leio Kosantoni. Ezpan-ganeko bizarra guztia da urdiña, (1) betuleak bere geienak bai. Ontzia nasa-kontrara eldu zanean, Mariñasi asi jakon erdi-negarrez erdi-barreka deadarrez esaten: «Kosanton, ene neba ederra zara? Ezin esan leike zeure arpegidšari begiratuezkero, ainbeste urtetan kanpuetan ibilidša zarienik. Ondo gizon gordiñ ederra zatoz. Amen Krispiña be. Artuko zenduan, Kosanton, gure *kartia*, Krispiñak egiñikua zan-da.

—Bai. Eskola andidšak emon deutzazuz umiari.

—¿Umia? ¿Neu baiño andidšago egiñiko neskatilia? Eskolak eztaukaz, *kolejidšua*k baiño. ¿Zer ba? Prantzesa ta bordaua ta ikasiña dago. Ia, Krispiña, eidson ia Prantzes. Tira lotsatu ba-

(1) Ule ta bizar *surriari* urdiña esaten iake.

rik. ¿Isilik dago berau? ¿Nogaiña emonikuak gara? Auše dago gero. Emon *kolejidšo* andidšak, erakutsi ortik emetikó dšakituridša guztidšak ¿eta gero zer? Guraso koiñaduai gustu bat emoteko bata be eztira išaten.»

Onetan Kosanton beren gauzen biła ontzira barrura ioan zanean, Amak alabeari esan eutsan: Krispiña, apurtu apurtu egingo aut, neure esanik eifen ezpon. Prantzes eifeko esan daidanian, Prantzes ein gero.

—Baia lau edo bost berba baiño eztakidaz.

—Bada ogei bidar esanezkero, larogei edo eun irudi išango dabe. I ezadi išildu ta ederto dakiñalakuan egongo da osabia. ¡Ene alabatšu ederra! Biši išaten ikasiña be kontuak dagoz.»

Ostatu-izki etše-zulo baten bazkalduta, ioan zirean irurak Atšurin zear oiñez Durangoko burdin-bidera.

Indianoa, bertara eldueran, aurreratu iaken tšartelak artuteko.

Bakarrik gelditu zireanean, alabeak isiltšurik esan eutsan Amari: «Ama ¿onantzian *tertzeran* da arantzian be *tertzeran*?»

—¿Nok diño ori?

—Aguriak eztau besterik artuko, berorrek ezpadiñotso. Bazkalduteko *tremenos kuartiló*-ko ostatura eruatzen dabena ¿zer nai dau egiña?

—Krispiña, isilik nago, baia ez gogoz. Aguria ta maguria, ezago tšarra goiz guztidšan aguraka ta maguraka... Baaa!

—Berorrek ezpadiñotso...

—Kesus, miña bidar Kesus ¿buru guztidša zelan ipiñi biar deuste?

—Kosanton, lagun askotšu be badago ta ondo izango da *primerakua* artzia.

—¿*Primeran* ariñago dšuatn alda?

—Ori ez, baia bakizu ba. Niri neuri neugaitik ezteust ardurarik, baia alabia dakot or primeran ibilēra einda daguana. Guk eztogu besterik oiñuten. ¿Zer ba?

—¡Ene demorridšua! Ezaun da nor il zan. Gure Ama Okelatšu Arratzuko bizi balitz, eztot esan be ein gura.»

Zelan edo alan sartu zirean su-burdian.

Mariñasik siñiztu bere ezin eban beren burua an ikustea. Gora ta beera ta albo guztietara begira ebilen, da edozeri critšon ederra.

Onetan indianoak ezmezean (1) egon barik arpegi arpegira esan eutsan: «¿Mariñasi, eztiñozu ba beti zabilzala *primeran*?»

—Baia au *kotše* barridša dšatzu. ¿Ezta, Krispiña? Errondako kolejidšuan mondšakaz euki dot urte bi edo iru onetan, iñun dirian gauzak ikasten; da bai sartu ta bai atara nebanian be, bakizu ba, bein *poła*-usaiña emoten asiezkero, aidiñenkuak (2) duazan lekuan ezin dšuan ba,

(1) *Ezmeza*, erderazko *indecisión*, *indécision*.

(2) *Aidñenkuak*, aia iaten dabelako anza, esaten iake itšaserri batzuetan itšasgizonen seme-alabai.

zoridšonian ba. ¿Ezta Krispiña? Ene alabia ¿miñ ori non dozu?

(Osabearen aurrean ZUKETAN berba egiten eutsan Amak alabeari, IKETAN barik).

Zuri esan biar dšatzu umiai esaten dšakena: katuak dšan deutsula miña. Kosanton, an zokonduan dagozan agura tšotadunak prantzesak dirudidše ta zuaze bestela baiñakuan euren ondora bidšok, eta Krispiñak esango deutsu euskeraz arek prantzesez diñuena.

—Ama ¡bai, bestelakua! neu lotsatu egiten naz-da...

—¿Zer deritšazu, Kosanton, onek diñuanari? Neuk zure beste baneki, Krispiña, enintzake išiĩduko Elentšubera eldu-artian.

—Erroke gure auzokua, nigaz eskolara ibili-dša, ¿bizi da oĩndiño?

—Bai, Kosanton, zure tšikitako lagunetatik bata be ezta iĩ.

—¿Ondo bizi da Erroke?

—Ezkonduta guztidšak. Da bakit zeuk be laster ezkondu biar izango dozuna, osterantzian ezteutsue baketan itšiko.

—¿Agura-biĩa nor dabil?

—¿Aguria nor da? Nai leukie ogeta amabost urtetik berrogeirako gizon guztidšak zeuk lakoše osasun ona ta kokot-mamin gorri ederra ta gorputz zuzen lerdena euki.»

Krispiñak onek entzueran sutan eukan arpegidša, ta neba-arrebak autu au geiago ez luza-

tufearren, estu estu esan eutsan Amari; «¿Ama, badaki an dagozan prantzesak zer esan dabent? *Très joli*. Erri au guztizko poliña dala.

—¿Eztot nik esan, Kosanton? ¿Zelan, Krispiña, zelan? ¿*Tedšoli*? Burua biar da eurok ikas-teko.

Onetan orretan eldu zirean Gernikara. Orduko gora ta bera, eskuak atzean ebazala, ebiñen arako Kosanton, Mariñasin ezauna, lengo Tširristadan nor zan esanikoa. Onek gure bideztiok ikuseran, «Amen dator Okelatšu Arratzuko-neko Mariñasi be», esan eban.

¿Nor? Jaungoikuaren alabak gara, ez Okelatšu edo mokelatšurenak.

—¿Onantzian *primeran* e?

—¿Zer? Enozu sarri sarri ikusi. Beñ edo beñ ikusiko nenduzun *tertzeran* ibilñen, *konpromiñuak* be antše egoten dira-ta.

—¿Gaur zuaze Elantšobera?

—Bai gu.

—Au išango dozu nebía. Eneban ezautuko. Ondo zaarra dator ba.

—¡E! Eztaukat ezer esateko. ¡Agura gilborandi onek dakarren gogaldidša!»

Gero Kosanton biak alkarregaz luzaro berbetan egonda gero, Elantšobera mando-burdi tšiki baten ioan zirean Kosanton indianoa, Okelatšumeko Mariñasi ta Mariñasi-neko Krispiña.

Ni barriz zeuri barridšak emotera Bilbora.

AMABOSKARRENA

BERMEOKO KANDIRA ERRAMONA TA LAGUNAK

Adiskidea: entzutea daukat (eta guzurra esango neuke eztodala siniz esango baneu) gizakume guztiok zareala iaio terri zaleak, ain ze alkarren arteko utsak eta orbanak eta oraiñak baiño askozaz errazago parkatu ta ilunduten dozuezala, alegiñez, zeuen errietako oraiñ, orban da utsak. Eta nik uste neban mendu edo griña au aragi ta azurrezkoak bakarrik zeukela; baiña olan eztala adierazoteko, neure burua atara ta erakutsi daiket lekuko edo testigutzat.

Lengo egun baten ilun-abarrean, eguzkia ainbeste bide eginda nekatuta bustialdi bat artuteko legez it̄sasoan, Mat̄sakupean, must edo dzanga egitera ioala, Ogoñoko mendi-tontorra obeto ikustearren igon nebanean, biotzak edo biotz-ordekoak pozez taup egin eustan. Neuk bere, adiskidea, neure iaio tokia nekusan neure begien aurrean; da begiak edo betordeak ezetz esanarren, barruak (nigan guztia da barrua baiña) baietz ziraustan; ant̄se iaio nintzala: An egozan neure aurrean nire seiaska edo kumea—Izaroko ugarte—ta nire Aitabit̄si ta Amabit̄si, Bermeo ta Mundaka.

Eurak ezaututeko ustean Ogoiñoko tontorretik Izarora aizea baiño lenago eldu nintzan. Adiskidea ¿badakizu zelan egoten dan Bermeoko arraindun atsoen urdaila, goizeko paiñarra artu-orduko? ¿Ikusi dozu iñoiz gizontsu ta andrakume arro buru-eritšien buru-barrua? Alan-tše egoan Izaroko ugartea, nik ikusi nebanean: aizez beterik. Baiña egia esateko Izaroko aizea etzan buru-eritšien aizea lango epela, ezta atso barua ausi bakoen barruko aizea legezko ustelatsitua bere; ez. Aize utsaz bizi leikeana, beioa Izarora ta ezta iñoiz ilgo: neure kontura.

Ni enaz aizez bizi izateko iaio, barriz edo albistaz baiño; ta onegaitik asi nintzan aurreko erri bietara begira, zeinetara ioan enekiala. Alargun baten arpegia legez, iluntasun-artean ikusi neban Bermeoko tala-ondoan etše andi bat, barria ta ederra. Sartu nintzan barrura nor bizi etezan iakin nairik. Eriotzarik bere ezta bizi etše atan. Izaro etsetu dala iñok esango baleust, aše dala esango neuke: aizea baiño ezta bizi an.

Banengoan etše-aurrera ioan da bekokian eukiko daben berbazko ezaugarria irakurteko; baiña «erderazkoa izango da ta oba da bakea», neure buruari esanda etše-ondoan egoan atso-piño-artean naiago izan neban sartu.

«Abe Marie ¿Demoniñue dala? ¿Andrak! Kandira Erramona: ¿entzun dozu diñuena? gura eztabena eztala ilgo. ¿Abe Marie! Zorgiñak

bere asko ta kontuz ibiltšekuek dakaz orrek.

—¿Nor da baia zorgindun ori?

—¿Eztozu entzun? ¿Benetan diñozu gauziori? Erdaldun bat otorri (1) eida ta bizidša *asegurua* eiteko paper batzuk eidakaz. Dirua dakonak bizidša *asegurata* deko: eun urterako gura badau, eun urterako; miła urterako nai badau, miła urterako.

—Orduan, olan dala, geu bere dirua gorde-ten asi biarrak gara.

—¿Gure dirue dakazu platerera? Aste beteko bizidša emongo doskue.

—¿Kosepa Mamin? ¿da zuk siñiztu eitsen dozuz olako gauzak?

—Kandira Erramona ¿bakizu zu nor zarien? Atorra bi ta lau gona. Neuk ukusi dot erdalduna, neuk ukusi dot neuri begidšakaz, da baru barurik egon nai (2) orduan. Abadien etsien bere sartu da; ta *parte* tšarrekue balitz, elitzake dšuango abadiakaiña.

¡Alegidša!

—¡Andrak! Neure gizonaganaiña dšuan nintzan baten, (Saandaren zan au) bagagoz geu patšadan ¿nortzuk giñian geu? Mari Tarrat, Kosepa Pepilotšu, Saturdina *pan—de—potenekua* ta aonako batzuk, geure senarren gauzak *konponduten*; da ¡Andraaaaak! begidšen aurre au-

(1) Etorri.

(2) Naz, naiz.

rrian dakot, badšatorku *tre-menos-kuartilō*-ko emakuma sazkel koipe *saparrastrajo* bat, eta badiñosku ze geure senarrak *kapitan* esatia (1) nai bagenduan, dirua berari emoteko. ¿Nori dirua? esan otsan Mari Tarratek: ekarri neuri diru asko, andra sazkel; ta neuk eingo zaitut zeu Saandereko Gobernadore, gura badona.

Tšikiña, esan notsan nik Mari Tarrateri, ondo esaidšo zu onelakuari, dirurik emongo ezpado tsazu bere; bestela *maldeziño* edo birauren bat bota ta bakidše olakuak ontzidšari bira eragiten bere.

Andraaaak: nik eztiñot besterik ezpada ze Saandereko andra sazkelen bat izango dala.

—¿Nongo Saandere ta nongo sazkela? Nik abadieneti urteten ikusi dodanak zure gizonari eztotso ezer zor, ez dšasian ibilten, ez soñnekue-tan, ez mosuetako bišarretan, ezta osterantzian bere.

—Kosepa Mamiñ, zeuk badiño zu bata ta bestia, baia geu *engañatiarren* dšuatzen dira olakuak abadien etsietara. ¿Zorgiñik eztaukanak bizidša iñori luzatu? ¿Medikuak ainbeste dšakituridšagaz egiten eztabenian?

—Kandira Erramona: zorgiñak atšina il zirian.

Onetan aurreko teilatuan katu bi ikusi neba-

(1) *Isatia* edo *izatea*.

zan erakusmeneko ariñeketa edo lasterketak egiten: teĩlatu-ertz ertzeraĩño eldu ta gailurrera ostera bere igoten eben. Lau edo boskarren osteran, ordurarteko abiadaak baiño andiagoa artu ebelako, ala eztakit zegaitik, katu biak bata besteen atzetik iausi zirean Kosepa Mamiñen altzora bata, lepora bestia.

—¿Abe Marie! ¿Demoniñua da ala?—esan eban Kosepak. Eta Kandira Erramonak berari:

—Kosepa ¿eztiñozu ba atšĩña il zireala? Aor bi, galantak gero. Andraaak: ezeidšozue arrikadarik emon: osterantzian bizidša *aseguraten* dabenen batek bidšar Alkatiaren aurrera eruangozaituez, lepuan arrikadia emon dotsazuela-ta.

Bermeon ikusi nebazan beste gauzaak ondo iatortanen baten agertuko dodaz.

AMASEI-GARRENA

ASMO BARRIKO GERNIKARRAK

Tala-ondoko atsoak banatu zireanean, kai-aldera nentorren (Bermeon zan guzti au) zer edo zer iakin-nairik. Ioan aldra batera ta ezer ez: molokot (1) egiteko bildurraz, San Pedroz etzala zezenkarik egin; baiña osterantzean, Bermeon lako zezenkaririk nun? Fabriño ta Biliña ta onen onenak. Ioan beste aldra batera ta gauza andirik ez, barririk beintzat: Cánovas il ebe-la. Etzan orregaitiño guztia utsa izan. Batek Cánovas nor zan esaten ziarduan-artean, besteak Gernikako ta Bermeoko izen batzuk aitatu ebazan. Neuk entzuniko gizan batera esker-eskuma ipiñiko dodaz autu biak.

Cánovas Keneral andi bat esan da, Zumalakarregi berak il eieban (batzuk ezetz esanarren) pusil-kirtenaz buru buruan dšota...

Baiña ezta esan (2) ber-

Gernikarrak Bermio-tarren kontra eிடagoz. Beti bizi dšakuz arek geu ukusi (3) esinda. Geuk itšasua daukagula, Iaungoikuak emonda, ta or dabilz Diputaziñoian,

(1) *Molokot, erderuzko quicóra.*

(2) *Bermeotarrak izan-en ordezt esaten dabé.*

(3) *Ikusi.*

bako gizona; Esparterok eta berak Bergaran bakiak eindša gero, geure *fueruak* gordeko ebazala ta gorde ez...

Cánovas-ek berak egiten eiziñuzan Madrilgo *periodikorik* geidšenak.

¿Eztozu iñoiz ikusi *sabio Salomon* dala-ta eskoletan gizon andi bat dšesarrita, gorua eskuan daubela? Alantše egoten eizan Madrilén...

sartuta, itšasua biar dabela-ta. Beste zer-esanik eztaukenian ¿zer diñuela-ta zagoz? Bermioko Prailiak euren kontra dagozala. Ta Ayuntamientoan bertan tšakurrinak esan eidabez... *Korridak* daukezala ta azalak artu eziñik dagoz. ¡Andraaaaak! ¿Bermion ezin, da Gernikan aal esango dabeeeee? ¿Eztabe *kiebre* eingoooo? Ez-totsat iñori gauza tšarrik gura, baia oña dabe Gernikatarrak aurten zortzi galdu, aurten sei ta datorren urtian beste sei baiño.

Eneban geiago entzuteko manarik eta arterik (1) izan. Artega ta leiaz (2) aida bat in eldu nintzan Gernikara.

Gabeko bederatziak iausteko egozan Dendarikalera eldu nintzanean. Iru edo lau atso egozan manatan, zabal zabal, ezeren ardura barik, denda baten aurrean iarrita. Euren ondoan gizon bat ebiñen, eskuak atzean ebazala, buru-utsik, lau oinkada aurrera ta lau atzera geldi geldi egiten ebazanartean, egun atako barriak bigirako (3) lagunai emoten. Erdiz erdizean egoala eldu nintzan eurakana, ta uste dot gitši

(1) *Mana*, erderaz *cachaza*. *Arte*, erderaz *sosiego*.

(2) *Artega*, erderaz *inquácto*. *Leia*, erderaz *prisa*.

(3) *Bigira*, erderaz *tertulia*.

gora-bera neuk legez, irakurleak bere, bigarren erditik lenengoa atarako dabela.

«¿Nor da —ziñoan agureak— nor da *ayuntamiento* bat praileari kontu-errazoa eskatuteko? Tšarto egin badau ¿eztauko antše beren nagosia? ¡A! Bizkaitar-euskeraz *predikatera* etorri bearrean *Sanchez*-en bat etorri balitz erderaz egitera, iñoiz etorri dan legez, eta esan baleu Bizkaia guztizko *probintzia* ona dala, edonundik etorririko arlote guztiak (au ezaban berak esango, au neuk diñot) emen aurkietan dabela ez bakarrik ogibidea, baita aginpidea bere ¿uste dozue Gernikako *ayuntamientoak parte* artuko ebela? *Parte* artu gura baleu, aor dagoz *Junta*-etšean iru erdaldun: bata OLMO, bestea PALACIO (onek biok dira otseñak edo *kriadoak*) bestea LEON (au da ugazaba). ¿Euskaldunak lotsa gara, ala ezkara? Egunean egunean, esaterako, gagoz kantetan gure arboleagaitik. «Euskaldunen artean guztiz maitatua.» Ez, eztago euskaldunen artean, erdaldunen artean, baiño; eta erdaldun onek dira Olmo, Palacio ta Leon.

¿Ezaldago euskaldunik, Batzar edo Junta-etšea euren ardurapean eukitekorik? ¿Badago? Ekarri. ¿Eztago? Orduan itši geure iauregi orretako ateak, giltzepean zarratu geure arbola maittea. Oba dau bakarrik bizi, arerio-arteon baiño-ta.

Gernikatik Bermeoko Praileari *karta* lotsagalduko bat egin dautsela zabal da. Entzun do

daneko esan dot: eztira gutarrak izango. Ta esan da egin: *Saes* deritšo, *Saes* (ondo entzun gero), Ebro-tik arako *Saes* da *karta* orren azpiko lenengo izena. Gerokoak eztakit nortzuk direan, baiña geure arteko koitaduren bat berba onakaz edo igortziakaz eurakanatu aldabe.

Onezkero Anatšu gurea luze deritšala egongo da, ta goazen etsera ta lotara. «Biararte.»

Beren atzetik ioan nintzan, zelan eukan izena iakin nairik; eta etšeän sartu giñeaneko, emaztea (agin bako atso polit bat) asi zan esaten: amen dator *Tšepe* gurea ¿au da etorteko ordua? Urrengoan bere gu, *Tšepe* ta *Tšelepesea* izango gara gu.»

Adiskidea, itandu iozu Vascofillori nor dala ta nor dala *Tšepe* Gernikakoa.



AMAZAZPI-GARRENA

LEKEITIORA-BIDEAN

«Aia-aia-aia, au-au-au.» Amaika deadar edo gedar onen antzeko entzun ebezan iru mando zaarrek. Gernikatik Lekeitiora *kotše* ondo bete bat ozta ozta eroen-artean. Mandoen erruki izan ezpanintz, leenago urreratuko nintzan mandazain edo zaltzain biotz-gogorragana. Aurreko aldean eskerreko zokondoan iosita legetše e-goan au, beronen ondoan gizon gorri osasuntsu bat, onen eskuman mutil tšikitšu bat, arrautzatik urteteko dagoan tšorikuma bat legez estu; eta eskumako zokondoan emakuma taiu oneko bat, mutilaren Ama zirudiana.

Kotše-barruan bere ezetozan nasaiago. Guztien artean barritsuena emakuma tšikitšu bat zan, erderaz ekion berak geienean; da guzurrik esan barik amalau bidar entzun neutsan esaten «divinamente.» «Escalafón, la Normal, Logroño, ascenso...» ta beste onen erako berba batzuk *maistratšuren* bat zala uste izan eragin eusten.

Badakizu, adiskidea, ni zelangoa nazan: euskerea irakatsi balebe, nik *maisú-maistrari* tša-

pela eskuan dodala (tšapelik eta eskurik euki-
ezkero) Elizgizonai legez irautsi edo berba egin-
go neuskioe; baiña euskerea irakatsi-bearrean
aaztu eragiten dabena, ken ken.

Atzenengo *divinamente*-k bultz eginda, zal-
tzaiñagana barrero ioan nintzanean, onek beron-
en alboko gizonari berba onek esan eutsazan.

—«Emen eztago *nolarik* ez *molarik*, alantše
da-ta.

—Gizona, nik eztizut esan alaše eztala izan-
go, nola izan lezaken baizik. ¿Eztute esaten
Gernikak, aundi aundia izan ezarren, aldamene-
tan erri tšiki asko daukazkila?

—¿Da zer? Zortzi erreal *entradie*: gero *serbe-
sie* dala, *meriendie* dala, au dala ta ori dala...
Aia-aia-aia, au-au-au... guztiok ezgara indianoak
bere, ta egun bat baiño ezpalitz, baia egun bi
jegun andi bi! *Boltsa* beroa daukanak aste
osoan bere tira egin leike.

—¿Eta zeinbat galdu otedute?

—Batzuk diñoe sei milē *peseta* dircala gal-
duek; beste batzuk barriz amaika milē.

—Azkotšo da batek galtzeko.

—Batek ez guztie. *Diputado á kortes*-ek gal-
du eidau geien, da gero erriko denderuek eta
alanik. *Vamos Espartero, que toabia no rema-
nese la cuesta.*

—Gezurra dala esan lezake Gernikan ori ger-
tatzea. *Diputau* Jaun batek...

—¿Orrek ikaratu? Ni *ministra* banintz, di-

rua aoak eskatu-aiña eukiko neuke ta domekan domekan edo astean birritan ikusiko neukez *korridak: brutalidadie* ta erdaldunena ta guztie izango da; baia... *Serrano, que tengo prisa: ala-ala-ala.*

—¿*Priesa* daukazula? Ezta asko agiri—esan eutsan zaltzaiñari eskuma-aldeko emakumeak.

—¿Zer ba? ¿Lo nagoala uste dozu?

—Eztakit ba neuk zer-esan: edo manduok eztauke indarririk, edo...

—¿Ezetz?

—Neure bidšotzeko *trena* ¿nun zagoz?

—¿*Trena* zetarako?

—¿Zetarako diñozu? Besterik ezpalitz be, mando koiñaruok lodiñu daiñan.

—¿Mandoak diñozu, mandoak? Atsoa, oba zenduke matrañla-ertzok beteago euki ta mandoak baiño zeure burua lodituteko arduria...

—Aaamen berau, zu-lako bat onako lekuan aiñe otzetan ibilñia damugarridña da. *Larrosa mistika* esan biar dñatzu zuri.

—Mandoagaitik zer esan bier dozu ba?

—¿Manduagaz neure burua bat eiñen dok, as-to tñiel orrek?

—¿*Trena!* ¡¡A ze!! Arri-ikatzen keia tñarra da gero.

—Eure manduen atzeko aiñia obia.

—¿Ta zer uste dozu? ¿*Trena* eingo deusuela Lekeitiora?

—¿Amaika erri tñarragotara eruan dabe!

—¿Nun dago dirue?

—Dirue, eskue, oiñue, gorue, mosue, bolue: ue, ue, ue. Aida mandue. Eure etšera dšuangozak diru bñla. Badaukazue, biarko dozue. Ez tok esan ba zezenak eta olako gauzak zeuen Gernikatšura ekarri ña edozemat diru galdu dozuela. ¿Bakišue zelan esaten dšaken zuelakuari? «Andiz urkatu ta gosez makurtu.»

—¿Lekidšo? ¡Umore tšarreko zagoz! Aia, aia, aia; au, au, au.

—¿Korridatik iges eginikuak dira manduok? Mando zaarrari zartiagaz berba egin biar dšako. ¿Au au au esanda? Ezta gaberdidšan be ezkara elduko.

—Aia, aia, aia, *que las viejas hablan y tienen hambre.*

—¿Hambre neuk? Eure Añari esan ori, koko, asto, mandako orrek.

—Andrea, errezoia du berorrek; baiño ezpedi asarratu. *Kotšernak* eztio egitan esan gosekontu ori.

—¿Esatia dauko beste bein! Ikusiko genduke zemat arra daukazan berorren arpegi totoluak.

—Aia, aia, aia, Espartero; *que la señora Marquesa se vá á enfadar.*

—Tira, adiskidea, zu ere isilikan. Andrea, ni emen banaiz, eztio berriz ezer esango. *Kotšero* ze ordutan elduko gera Lekeitiora?

—Ordu lauren barru.

—¿Biertik asi ta noizartean iraungo dute jaiak?

—Iru bat egun.

—¿Zezenik ezta or izango?

—Baite or be, beñi-pein egun biten egongo direala diñoe.

—Or ere galduko dute.

—¿Galdu ez ostera?

—¿Ta zertarako *korridak* eman?

—Baia or gauza bat dago. Eztakit zeinbat direan *empresari*đo. Irebaziko baleukie, eurentzat irabaziek. Galtzaiek euki ezkerro barriz, erriek arpegi emoten deu.

—¿Zer?

—Errien lepora zorrak.

—¿Nola?

—Galtzen dabenean erriari eskatuten deutse onenbeste.

—¿Ta erriak eztiote ukatzen?

—¡Ukatu bai!

—Ori orrela izanik ¿erriari on asko egingo diote zezenkada oriek?

—¡Mesede bai! Olako gauzaak edonor alper-tu ta bastotuten dabe, erantzun eban atsoak.

—Baiño erriak dirua orrela emateko, erriko geienak esan izango zuten *plasa* egiteko.

—¡Ba! (1)

—Ta erriko guziak nai izango dute dirua ematea.

—¡Ba!

(1) Ezetz esan gura izaten dau onako esakereak.

—Ta galtzen dutenak irabaziko balute, erriarentzat emango lukete irabazi ori.

—¡Ba!

—Ta *plaza* ori egin danetik, erritarrak ondu ta dantza tšarretarako gogoia juañ eta ardo-zale gutšiago egongo dira errian.

—¡Ba!

—Ta ori bezelako erdaldunen zezenkeriak (astakeriak ezpadira ere) errira ekartzerakoan, andaluz kojpe orrekin erri ontakoak euren erria ta oiturak eta legeak eta izketa maiteago izango dituzte.

—¡Ba! Ointše gogorrago. (1)

—Aia, aia, aia; au, au, au Ešpartero.*

(1) Esakera onek ezetza, ezetz biribil biribila adierazoten dau.

AMAZORTZI-GARRENA

MARKIÑA-N.— MARKIÑA-KO PELOTA-TOKIAN

I

Arratsaldeko laurak Oiz deritson mendi-buru buruan io eusten.

—Enekian nora ioan jain nekusazan erri asko ta ikusgarriak! Aurrez aur Ondarroa ta Lekeitio neukazan, euren kai ustiakaz, tšalupak noiz etorriko begira; esker-aldean Elantšobe. Guzurra diñot, Elantšobe nekusala esan badot: begi onak bear dira legorretik a ikusteko. Ogoño nekusan, da legekua bada, an egongo zan beren etšetegia.

Mundaka aratšuago, ezkontzarako dagoan emaztegeia legez apain, zuri ta garbi; ta beren ondoan Kandira Erramona ta Pilatoskumeak bizi direan erria: Bermeo. Beste aldetik Motriku, Tšurrukari beti arpegira begira; Deba, negua datorrelako edo Madril Madrildu dalako, larri ta isil; Zumaia, *sementoa* urre biurtu nairik; Zarauz, dantzatik soiñeko apain tšimurtuakaz urteniko Kondesatšu bat legez, atserena ta ar-

teunea (1) nai leukezala; Getaria, itšasgizonen-
tzako argi-mutĭla eskuetan dabela; ta aratšuago
piso primero ederdun uria; erdaldun-biotza ez-
paleuko, tšapela erantzita, lepoa makurtuta
ikusteko uria: antsiñako Easo, gure aurretikoen
Donoztia, gaurko ta biarko (ta ezalda betiko)
San Sebastian.

Eta itšas-ertzetik barruko aldera begiratueran
¡uf!... amaika erri banekusazan; baiña nik bat
bakarrik aitatuko dot, neuk aratu bear nebana:
Markiña. Otu jatan Ogoñopera ioatea, Elantšo-
be lengo tokian bertan bizi etezan ikustera;
naiago izan neban, osterá, euria dan baterako
asmo ori itši, amaika atso larrapast eginda erri-
ertz batetik besterañño iausten ikustearren. Bu-
ruratu jatan Lekeitioratetšu bat egitea, zezen-
tokia lotsarren lurpean ezkuta edo ostendu
etedan iakin-naiaz. Buruak emon eustan Zuma-
rragara, Legazpiren taiĭuntza (2) ikustera, ioa-
tea; baiña EUSKALZALEK beren orri-artean beñ
edo beñ agertuko dabenezkero... Donostiara-
tutea bere gogotan artu neban. Tširrist gizagai-
soa! nor az i arako? Madrilgoren baten bitartez
ioanezkero ta ganera eskuetan, urren danen-
tzat, *Crus de Beneficencia* edo *Caballero de*
Carlos Tercero edo onen antzeko pitši, erreal
da erdian sei karu edo goratšu direanakaz ioa-

(1) Erderaz *descanso y rato de sosiego*.

(2) Erderaz *monumento*.

nezkeru, *Comision de monumentos de Guipúzcoa* deritson gizategi edo saloian beintzat, ez ondo artu eze, bear bada, eure irudia bertako ormarren batetik dingilizka ipiñiko laieukeek. ¡¡CANOVAS-en irudia ipiñi dabenean!! ¡Arek bai euskaldunak! Ik beñik beñ, Tširrist gizagaiso orrek, eztautsak iñori kalterik egin, eztok Euskalerrria biotz biotzetik gorrotau, eztok emengo Lege zaarra ostikopetu, eztok euskaldunakaitik sapokeririk esan, eztok euskerea ilteko alegiñik erakutsi.

Gogamen onetšekaz zirin zirin da uste uste barik eldu nintzan Markiñako aldaurietara.

II

Markiñan da beren antzeko erdi-uri erdi-errietan iñor ezta bizi arrapataka ta leiaz edo ariñeketan. Bat batera makalduriko gaiso bategana doazan elizgizon da osagiñeaz ostean, beste guztiak, geienak beintzat, nai direala bertako semeak, nai direala bertaturiko Sanchez-ak, orduariak edo erloiak baratzegitzat daukezala bizi dira: astiro. (Markiñarra dan Markiñarrak bada ki gure baratza ta erderazko *lento* bardiñak direana).

Ni eldu nintzanean, lanik bako *Procuradore* bat edo beste baiño ezebiñen Karmen-ondoan. Gerotšuaگو ikusi nebazan, arrika ušaturiko to-

rrotšoriak (1) legez aldran, garraizika ta ariñeketan, ogeta ainbeste mutil tšiki alde batetik, berrogetazak bestetik, bakotša beren etšera lauretako bila ioazala. Ezpanik euki baneu, pozarren guztiai mosu emongo neutsen jain zirean gordiñik iateko mutil koskor, matraila-gorri, bekoki-zabal, begi argi argidunak! Oizen nora ezean legez, Markiñan nogaz ioan enekiala nengoan. Alako baten «Kanuto, Kanuto, ator ariñ, bišok onei irebaziko jeutsaago-ta», entzun neban. Egia esateko, beti uste izan dot, Kanuto izentzat daukenak neska-mutiltšuen itsu-lapikoa lakoše buru andi ta utsekoak izan bear dabela; ta alako mutil babazaleren bat etezalakoan begiratu neban; da gizona ¿nok esango eustan? beste guztiak itši ta Kanutok beren arpegi ta gorputz politaz, etšeko tšakurra ogi-zati bategaz legez, atzetik eroan nenduan, bizitza biko etše baten atarira. Kisketots (2) eder bi ateari emon da «Ama, sagarra ta ogiše», deadar egiñ eban Kanutok.

—¿Nor da?

—Sagarra ta ogišeeeee.

—¿*Obispo* egiñ aleteabe?

—Kosemari-ña neure zain dagoz pelota-tokišeecen.

—Bai neu be eure zain najagok ementše.

—Sagarra ta ogišeeeee.

(1) Beste izenez *elictšoriak*, *artutšoriak*, *kurloiak*...

(2) Erderaz *aldabonazo*.

Kanuto, seme bakarra zanez, beste iru edo lau neba-arreba-artekoa izan balitz, Amak atarian itšiko eban «ortik egiñago, zapata zaar» esanaz. Lasterko durundi egiñ eben nire belarrietan etšeko andrearen oiñ-otsak.

—Autso, mutil. Gero iluntsera-ezkero otz dago ta goiztšu etorriko az.

—Ama ¿eztakizu Premiña nor dan? *Jesus a-b-s* ikasten gaur asi da beran (1) semie.

—Obe egingo lajeukek *Kurtzie Santiaren* ikasi ta lai batzuk artu-ta solora juen, Ama gaiñako mutilko orrek. Tšotšo ¿nora ue? Ator ona, suurretatik beerako orrek kendu daiadazan. Tirok, Kanutotšu, Aman esana eik beiñ edo beiñ. Tirok, auše emongo deuat-eta.»

Eta bigarren sagarra Amak sakeletik atara eutsanean, urreratu iakon Kanuto zintz egitera.

III

Kanuto, Amak zintz eragin-da iakea autsagaitik astindu ta tšapela ondo ipiñi ta mosu eder bat emon eutsanean, atze atzeka ioala, Amari, barre gozoa egiñaz «bišar be bi ¿e?» esan eutsan.

—Bišar be Jainkuek argi eingo jok eta ikusiko juagu.»

(1) *Beran* edo *beraren* edo *berre* esateko ekanduten da *beran* Markiña-aldeko batzun artean.

Mutiġa orduan pozen pozaz artazi bat eginda, sagar bata agiñ-artean, bestea eskerrean da ogizatia eskuman ebazala, sardiñaren bat ostuta ioaten dan katua baizen bizkor, arrapataka zelai-aldera joan zan. Amak, aoa zabalik berari begira, negarra begian da ezpanetan barrea ebazala, semeak entzungo baileutsan «mutil, sakelak ez jaukak zulorik eta sartuik sagar bat ori sakelien», esan eban. Begiratu eban gero auzoko pendiz edo *balkoe* ta leioetara, iñor beren semeari begira eteegoan; da ezeban besterik ikusi andrazko zaar betaurreko ta guzti iosten ziarduan bat baiño; ta beragaz asi zan aurtuan.

«Amen Mari Andres be, nai daben beste joste eifen.»

—Patšike ¿nun abiġ, ene alabie? Domeka-goi-zetik ezaut ikusi.

—Etsaldien beti dago zer-egiñe ta baakizu ba.

—Neu pe oriše esate-eutset gure neskai. ¿Ze barri, Patšike?

—Premiña andin semie *Jesus a-b-s* ikasten gaur asi dala diño Kanuto guriek.

—¿Bestelako kaiku!

—¿Ori esan ba! Lumiaz paperien egin bier dabezan *a-b-s* onek, oba leuke soluan laišaz ein.

—¿Bai oriše!

—¿Baiña zer? Jai-egunetan juuten jatzu jaso al dabena jasotera.»

Atso *ja-je-jo*-dunai barriketan itši neutsen; bada erri atako andrazkoak, beste askotakoak legez, lanerako gizatoak, kalerako andra iasekoak eta Elizarako andra ta gizon izanarren, atsoak edonun dira atso; ta nik neuk ez euritan busti, ez edurtzan otzitu, ez eguzki-galdatan berotu, ez sutan erre, ez iluntzean loguratu, ez eguerdi-aurrean gosetuarren, naiago izaten dot udabarria udagoiena ta negua baiño; goizaldea arratsa baiño, ta atsoen barriketa piper-ozpinduna baiño askozaz naiago izaten dodaz, neure atsegiñerako, neska-mutil koskortšuen pelotabostarrikaak, tšikotean ibilte, tširikila ta osterantzeko iolas ikusgarriak. Eta arako kale-musturrera elduta, Kanuto eskumara artuaz eskuta zanean, Premiña andi ta seme kaiku ikasla bariaren narrua atsoen ezpan-arteon itšita, Kanuton atzetik pelota-tokira ioan nintzan.

IV

Markiñako pelota-toki, aiñ pelotari asko ta aiñ errimeak Euskalerritari emon dautsazana, eleukee ezautuko lengo zaarrak, bera ikustera lurpetik iagiko balitzatez. Izaten dira bada, aizeak edo durduraak ekarririko aziakaz sagasti-zaarretako adarretan sortuten direan migura edo aukiak, begirako onak, surretarako atsa darioenak: alakošea da erdalerritik ekarririko lan-

dareak Markiñako zelai-ondoan sorterazo daben pelota-toki barria, zaarraren besoetan, antšaña-ko pelotari indartsuen besoari *tšistera* asmo barrikoakaz irri egiten dautsena. Gaur egunean Urberuagara eriotzeak Diputau-errietatik ekar-ten dabezan azurrezko gizonak, Markiñako pe- lota-tokia ikuseran esan leie: «Valladolid-en da Zamoran bere bardiñ bardiña dago.»

Markiñarrak eztaioela kanpotar orrei ez iñori esan, iñoiz pozarren esaten izan dabena: «Ona-šegiño jaurti eban Labak pelotie. Aamen dago Aiñustiako *estudiantiek* eskerraz egiñiko marka, iñok ondu ezin izan dabena.» Onakorik esaten dabenari, edozein Kanutok erakutsiko leuskeoe, berak, *errebes* eda okerka nai besagane, *tšistera* bategaz egiñikoa.

Ni bertara eldu-orduko an egoan gure muti-ña. Kose Mari-ta zaiñ eukazala esanarren, bera zan besteai begira egon bear izan ebana. Ta es- tu egoan da euren etorrereari luze eritšon, pe- lotaka asteko baiño sagar bi eskuetan ebazala ikusi eien naiago ebala. Geldika geldika ta bi- raka biraka ian eutsan lenengo sagarrari biga- rren erdia; ta arako lagunik agiri etzala ikusi ebanean, ondakiña gora goraka bota, eskerreko ogi-zati-kontran eskumea ipiñi ta tšisteralariak *aidean* artuten daben pelotea legez, sagar-mus- kiña artu ta bide barrian zear iaurti eban Ka- nutok.

Lagunak etorri baiño leenago, alde askotatik

ots egin eutsen Kanutori: guztiak nai eben pelota-laguntzat. Arpegian eban ezagun Markiñako mutil gaztetšuen arteko lorea zana.

Batak: «Kanuto ¿bi eiñera (1) ezabil?»

—Enajabilk.

—Kanuto (beste batek) ¿noz emongo deustek leenguen irebazirikue?»

—Musturreko bat bai, nai bok. ¿Zegaitik esan deutsek maisueri *plana* zaarra zikinduta neukalako urratu ta jaurti nebala?»

Bein edo bein agertu eben euren burua Kose Marik-eta. Lau zirean itunduta egozan mutiñok: Tšantšangorri ta Kanuto alde batetik, bestetik Kose Mari ta Beketše. Eskuz izango zan pelotakea.

Ezeben aurretiaz aitatu zer ipiñiko eben ioko-saritzat. Kanutok Kose Mariri sagarra erakutsita: «Kose Mari, Ama guriek onakoše bi emon jeustazak; bišar be bai. Beste sagar-muskiñe bide barrire jaurti juat.

—Baiña niri barriz, erantzun eutsan Kose Marik, madari urtsu andiše. Aame 1.»

Kanuto gorritu zan a ikusitakoan, da asiriko autua zelan luzatu ezekialako. «¿Zer jokatuko juagu? ¿Erriel-erdi daukagunien emotie?» esan eban.

—Ik eztok iñoiz eukiñen, da ez. Nai bok eu-

(1) Beste batzuk *bat egin da kanpo* esaten dabe: erderaz *à l'air*.

re sagarra neure madari-erdišaren kontra, bai.
—Tira ba.»

Besteak bere zerbait ipiñi eben da asi zirean. Tšantšangorri ta Kose Mari zirean aurreko pelotariak, atzekoak Kanuto ta Beketše. Kanutok kendu eban iakea, tšapela orma-kontrara iaurti ta beren lekuratu zanean, «etara (1) Kose Mari esan eban.

Lenengo eskualdia (2) amaitu-orduko, mutil tšiki askok inguratu ebezan. ¡Oriše ezeben bada eurak nai! Kanutok gizonkeriak egitearren, da nok begiratu eukalako, lenengo eskualdia irabazi ebanean, belarrira esan eutsan Tšantšangorri. «Jaiki (3) oneko pelotie da ta besazier (4) etara. Gero noizien bein, besagane (5) artzeko leez, juungo az pelotiegana, ta eskuen zulue egin da itšišok, eta neuk joko juat, eta jo ta jo ta jo: etšera *tantue* ta etšera jokue.»

Kose Marik eta Beketšek be alkarri isileko mandatuak emon eutsezan, da eneutsen ezer entzun; baiña, gero ikusi nebenez, Tšantšangorri guztia iokatuteko asmoa artu bear izan eben.

(1) *Atara, atera* esan oi dabe askok.

(2) Eskualdia-gaitik gaur karta-iokoan *jugada* esaten dabe askok, pelota iokoan *tantoa*.

(3) *Jaiki* ta erderazko *bote* bat dira.

(4) *Besazea* ataratea ta erderazko *sacar cortando* edo *rasa* bardintzat euki leikez.

(5) *Besagane* edo *besagain*-en ordeaz gaur erderazko *boleo* sarriago esaten da.

Kanuto ta Kose Mari zirean onenak. Kanuto atzetik aurrera ta Kose Mari aurretik atzera ebilzan pelota-bila. Tšantšangorri zan (gazteena bere bera zan da) gitšien ekiana. Kanutok ezpanak iaten ebazan Tšantšangorrik galduten eban bakotšean. Lenengotan burua gora ebela asi zireanak atzenerako burua makurtu bear izan eben; baiña galtzaileak atšaki edo akiakulaak eskueran (1) euki daroaz, da Kanuto be asi zan esaten begira egozan lagunai: Tšantšangorrintzako pelota gogorregia zala, jaiki andikoa ta oker egiña; banan banan etzala bera beste baten bildur; baiña atšakiak, gauzaak edertuarren, galduriko iokoa eztabe irabazi eragiten, da Kanutori bere eldu iakon galdu-bearra.

Atzenengo eskualdia asteko, Kose Marik, Kanutori amurratu edo etikatu eragitearren, anka-pe (2) atara nai izan eban. Kanutok barriz baten batzuri kiñu eginda «egon bein, basterrera juen bier dot-eta.»

Luzarotšu itšaron da agiri etzanean, Kose Marik ots egin eutsan «Kanuto, tira arin.» Kanutok ormara begira ta aua ozta zabaldua «ointše najatok» erantzun eutsan. Kose Marik, Kanuto nor zan iakinda, iaten egoala ezautu ebanean, arin aringa ioan iakon Kanutori ta «zer eife-ok (3) or» esan eutsan. Kanutori or

(1) *Erderaz al alcance de la mano.*

(2) *Edo istarpe.*

(3) *¿Zer egiten dok or?*

duan suurretatik bere barreak urten eutsan.

—«¿Sagarra nun dok?»

—Jan.

—¿Zegaiñik jan dok?»

—Gose nok eta ¿zer egingo juat ba, gose izan-ezkero?»

—¿Da eni zoor deustaana?»

—¿Irebazi aldok?»

—Etorri ba jokatzera.

—Orduan daukagunien emotie.»

Asi zirean lagun guztiak tšaloka, barrezka ta *Biba* Kanuto-ka. Kose Marik, barru irakiñak ganez egin eutsanean, oratu eutsan Kanutori gerri gerritik, eta azpiraketan edo beera botaten edo egozka ekiñ eutsen.

Burrukan ziarduela, urreratu iaken bizkor gizon ondo-iantzi bat eta zer zan itandu ta iakin ebanean, «Geu be ezkintzuazan atzerenak; baiña mintegi onetako landaretatik be eztabe Markiñar tšarrak urtengo», esan eban.

V

Urrengo egunean zortzirak-inguruan mufil tšiki bi ioazan *kale okerrean* zear, bustartuta legez alkarrri besoak leporatuta. Begiratu neutsen ondo; ta Kanuto ta Kose Mari, eskolara ioazala, ikusi nebazanean, barruak naiez bat emon eustan alako mutiltšu politik erdaldun baten eskolara, euskera ederra aaztu ta Euskalerría zein dan ez ikastera ioan bear izateak.

EMERETZI-GARRENA

LEKEITION ARIMEN EGUNEAN

I

Arimen eguna zan: Elizarako eguna. Goiz erdirarte, esan oi danez, io Ondarroa ta io Motriku nenbilen, baiña Lekeitio-tik urten bagarik. Gauza eder asko ikusi nebazan: Elizea, Gaisotegia, Kaia, Zumardi edo *alameda*, Izuntza-ko zubia, Zubieta-ko iauregia, Ondartzakoa ta beste etše eder asko. Iru edo lau bidar aratu neban erri guztia, aspaldion ikusi nai neban gauza bat ikustearren. Onetarako sartu nintzan arrizko etše-moduko baten, da emakuma-erreskada andia egoan aldagarriak garbitu edo laztu edo ikuzten; sartu nintzan beste etše eder baten, nik nai nebana aše zalakoan; da Biltoki edo *Teatro* ta guztiko ostatuan ikusi neban neure burua. Ioan nintzan gero Gernikara-bidera ta nik nai nebanaren ordez, arrizko tšolo andi andi bat neukan begien aurrean: zezentokia.

Arimea, gogo bakar bat baiño izan ezarren, gorputzaz bizi bear daben artean askotu edo geiturik egoten da; ta augaitik gizonak cukiten

dauz iateko gogoa, edateko gogoa, lanerako gogoa ta beste gogo asko. Nik, adiskidea, zeuk ondo dakizunez, gogo bat baiño eztaukat: albista-gogoa edo barriak iakitekoa. Gogo au galduko baneu, orduantse ilgo nintzake. Zezentokia Euskalerrian ikuseran, iatuna banintz, iateko gogoa galduko neuke; lotia banintz, lotarakoa.

Dana dala, gogaldi tšarreko nenbiñen, da urrean gogaituta erri atatik urtengo neban, barri bat iakin ezpaneu. Ona emen zein. Udaletse edo *Ayuntamientoan* uda onetantse batu zirean Alkatea ta lagunak, Done edo San Antoliñ-egunean zelango iaiak egin bear zirean erabagiteko. Beste batzun artean Berrizko dantzariak eroan bear zireala erabagi eben. Iarri-aldiaren azken-aldean, *korrida* edo zezenketa-ordez Bilboko *Orfeon Euskeria* deritšona eroatea, ona izango zala esan eban batek. Beste batek erantzun eutsan ezetz: guztiakazkoa euki nai izanez-kero, obetq izango zala zezenak eroatea. Bigarren onen eritšia izan zan nagosi: ta zezenketaak, gizonak zezendu ta euskaldunak erdalzaletuten dabezan ikuskizun lotsagarri au, aurten bere, len esan dodan tšolo andi atan, beste urtetan legez agertu dabe. Erdalduna zan zezenen alde urten ebana ta onetšek poztu nenduan. Erdaldunik egon ezpalitz Udaletsean (da nire ustez cleuke batek egon bear), etzan onakorik gerta edo iazoko.

Au iakiñaz zelanbait gogaldi edo *umorea* ar-

gituarren lengo gauzea iakin nai neban. «Lurpean ezpadago, eztakit nun egon leikean» esan neban neure barrurako.

Eguerdi eguerdia zan iturri-ondora ioan nintzanean. Emakuma sendokote bat egoan bertan pendarra urez betearte begira. Ikaratuko etzala koan itandu neutsan: Alabatšu ¿nun dago emen *eleziñoietan* egiñiko burdinbidea?»

Begiratu eban emakumeak alde guztietara ta iñor ikusi ezebanean, pendarra ganezka itši-ta, zorkia sorbaldan beera dingilizka ebalá, arin aringa ta tšilio baten ioan zan. Ni beren atzetik.

—¿Zer dezu, Kontze?

—¡Ene penia! ¡Ene penia! ¡Galdua naš!

—¿Zer dezu, Kontze?

—Bermioko arima piel batek urten deust.

—¿Arima piela irten? Izan lezake ¿baiña zertarako?

—*Eleziñoietako* burdinbiria nun dagon dšakin nai izan dau.

—Zaude isilikan: Arima pielak, ain zuzen ere gaur da beren eguna ta naiago dute *Abe Maria* berakatik errezatzea, ezen ez *trenak* eta gauza oien barri jakitea.

—Ziririk eneuke ein biar, egidša ezpada. Pendarra orduantše beteten neukan, da zorkidša ondo ipinten naguala, oriše esan deuste. Begiratu neuk eta iñor bez: Bermioko arima piela izan da.

—Bermeokoa ¿zertan igarri diozu?

— *Alabatšu* esan dau.

— Nik ezin siniztu det Purgatoriotik gauz oiek jakitera inor etorri lezakeala.

¿Ezaldakite Purgatorioko animak, lurrean gaudenak dakiguna: eleziñoe-aurreko *trenak* eta *baforak* eta pelota-tokiak, aizeak eramaten dituela? Kontze, zuk ikusi ezin izan dezuna ¿badakizu nor izango dan?

Bilbon sortu omenda aurten *Euskalzale* deritzaion paper bat eta ark, nik nola eztakitela ekarri omendu (beste mundutik aren baten) Tširrist izena duen iratšu edo beste mutiła edo ¿nik dakit zer *demontre*? Ta ark galdetuko zizun ori.»

— ¿Tširrist, diñozu, Tširrist? Eztot Tširristaria makala eiñ, berba eiñ deustanian.»

II

Goizeko amarrak baiño lentšuago Elizara-bidea artu neban. Guzurrik esan barik berreun atso-neskatila baioazan eurak iasoala kandela otzaretan eroezala. Elizpean zarataka eutsen mutil tšikiak. ¡Nire poza! Badakizu, adiskidea, nire mendu onen barri: iatuna banintz bere, gabon-gabeko aparia atso-agurakaz baiño garizumako apari-izki edo apalusiak ume-artean gozaroago iango neukez.

Ordu-lauren inguru igaro neban eurakaz Elizara-orduko, ta Otšandioko sutegietan egun

osoan entzuten direan mailuka-otsak ezaldira nik entzun nebazan *tšo*-ak baiño geiago izango. *Tšo, tšo, tšo*: ¡alakorik! Erri guztiko mutil-koskor guztiak aldauke izentzat *tšo*.

Tšiliñak isildueran isildu ta egabanatu zirean nire laguntšua, eta euren atzetik neu bere Elizaratu nintzan. Sartu nintzaneko, Elizea argi ta ketan ikuseran, Purgatorioa (egiazko izenez Garbitegia) etorri iatan gomutara: Ezin dabena-gaitik al dana egitea, gizonak egin daikeanik gauzarik onena derist.

Emakuma geienak egozan bee-ganean iezarrita edo belauniko, euren aurrean argi-piñoak ebezala.

Eliza guztiari emon neutsan barrutik bira osoa: unean unean nekusazan mutil bat edo beste, kandelai negarra kendu-nairik. Mutil tšiki-piñoan sartu nintzan arako baten: guztiak egozan euren begiak argi-mutiletan ebezala; išilik egozanak, aoa zabalik; besteak berbetan.

— «Tšo, esan eutsan batek albokoari ¿bagoiaz ara?

— ¿Nora?

— *Kulpiñu*-aurrera. (1) Antše dagoz argidšak anbueste. (2)

— ¡Ba! ;*Sankristaua* etorri ĩa ederrak emoteko!

(1) Ikastegia da *kulpiño* edo *pulpiña*.

(2) Ainbeste, ainbat, asko.

—¿Gaiztua da *Probentziania*?

--¿Nun dago ba?

—An, an, San Antoliñen antše. (1) Sei argi bata baiño bestia ederrago ta zuridšago dšaukazak. Etorri araše.»

Tšapela agiñ-artean da gorputza beatzen ganean ebela ta neu atzetik nenduela, ioan zirean tšo biak *Probentzianea*-gana: eguerdian Kontzeri neure barri emon eutsana zan bera.

Zer-io andirik eukiten eztaben *organisteroak*, adar bat edo *erregistro* bat atara ta beste bat sartu, ibilten direan antzera, San Antoliñen aurreko atsoak bere Errosarioaren amabost arenak ekioen-artean, batean eskerra ta bestean esku-mea erabilzan, aurreko sei argiai negarra kendu nairik.

Gozozko *tarta* baten apaingarriztat ipinten direan aingeru gozozkoak eztira politoago ipiñita egoten nire lagun biak albo banatan *probentzianari* iarri iakazan baiño.

—«Tšo ¿zer nai dek? esan eutsan batari.

—Dšagoten.

—Nere argiak zaitzeko ni ere aski naiz.

—Orduan egoten.

—¿Utikan! ¿Eta ik zer nai dek? (Au besteari).

—Lagunduten.

—¿Lagundu? Juun ari etšera ta Amari lagun ezok gaztaiñak erretzeko danboliña eragiten.»

(1) San Antoliñen altara-inguruan.

Onetan eskumako iagoleak beren aldeko bigarren argiari muskila lakoše negar andi bat kendu eutsan, da kolkoan gorde eban. Au ikusi ebanean, iaubeak esan eutsan. «¿Ezaldek aditu emendikan alde egiteko?»

Eskerrekoak beren aldetik ikututšu bat egin eutsen argiai: bidea emon, besterik ez, erion geiago euki eien.

Zerutarrak gure gauzaak ikusita iñoiz barrerik egiten badabe, gau atan, San Antoliñen aurreko mutiltšuak argizai-batzen ikuseran, ezeuken barre egiteko era tšarra.

Nik beiñik beiñ eneuke esango zeinbakarren arena edo amarrekoa zan. ¡¡Ain nengoan gogoz!! *pertikeroa* (gizon sendo bat, ederto apaindua, atzorro edo *guante* zuri ta guzti, makila andi bat eskuetan dabela Elizea zainduten ebiñena) agertu zanean. Orduantše miña atarata, aoa adurrez bete beterik ebala, argi bati gerri gerritik oratutera ioala ¡¡zart!! makilada bat emon eutsan eskuturrean pertikeroak.

—¡Ai ene, ai ene, ai ene! Elišan ezta iñor dšoten.

—¿Da ostu bai? Tira etšera bidšok.

—¿Zeuria alda Elišea? Au ezta ostutia.

—Tira etšera.»

Beste ots bana artu ebenean, tšapelari belaun-buruan autsa kenduta, biak iagi zirean.

Eskuturrekoa artu ebanak *pertikeroari* arpegira begiratuta «dšoik Ama» esan eutsan.

Neuk neure artean: «Pertikeroa: batetik izen gatša ta erderazkoa daukazu, bestetik mutil tšikiak begitan artuta zaukaze: laster dozu lepoan ezizena.»

Bai ta igarri bere.

III

Ezizen au zein dan iakin gura dabenak eztauko besterik neugaz batera mutiltšu bien atzean kalera urtetea baiño.

—Tšo, *Esku-suri* (ona emen ezizena), *Esku-suri* etorri ezpalitz ¡guk egingo genduan mandšuidša. (1)

—¿Zemat?

—Liberdi bai urrian.

—Baiña neuk be orrenbeste.

—Zelako arridšak daukazak?

—Igezkuak lakošiak: abaiñ-arri biribil biribil biribil biribil biribilak.»

Biribildu-orduko atara ebazan sakeletik lau arri laban eder, Goliat iñ ebenak baiño ez asko tšikiagoak.

—¿Nora dšuango gara? ¿Igesko *konpiñeridšara*?

—¡Ba! ¡Igarteko! Baserriñarrenera goiazan.

(1) Izurdaak itšasoan azaleratuten dabe arrain-piñoak dira *mandšuidšak* edo *manjuiak*.

—Baiña lenengo ondo ipiñi gero argizei-trokuak, arridšak barruan diriala. ¿Zemat diru emongo etedau?

—Errial da erdi bai.

—Baiña, baiña, baiña... ¿Zuri zuridša ezta argizeidša ba? Tšo, gero ez baltziñu gero, ondo garbiñu eskuak arridšari inkaten azi-orduko.

—¿Da zer eingogu diruaz?

—Gorde Basotšuan.

—¡Ba! ¡Euk ostuteko!

—Zeuen Amari eukiñen emon gabonetararte, gaberdiko Mezatan dšateko gaztaiña gorringuak erosi gero.

—¿Nok itši geuri?

—Aste Santuan *karameluak*, eta gaberdiko Mezatan gaztaiñak *libre* ezta išaten ba?

—*Esku-surik* emongo leuskiguz gaztaiñak, ederrak gero atan be.

—Tšo ¿nor sartuko da eurok saltzeko?

—Ni begira egongo nok iñor baletor be, ta estul eingot badator.

—Nai nai, esaten bok bai.

—Nai nai.

—Baiña nik enai.

—Ein deigun orduan *kara y krus*.

—Dirua ikusi nebanian il banintzok, zeruan gorengo egongo nintzuan, beste guztiak geruago sartuko zirian-da.

—¿Zeruan eu! Maišuari aunetara ukabilaz atzetik einda.

—Ez dšo biar berak be. Purgatoridšora dšuan-ekzero barriz, neu azpirengo.

—Bota.»

Zokondo batera ioan zan bata zer edo zer artutera baleioan, da gero esku biak ondo biribildu ta «uts ala bete» esan eutsan besteari.

—«¿Uts ala bete» esaten da? Nik auše.

—Uts»; da eskerreko eskua zabaldu ta utsik erakutsi eutsan.

—¿Bestia erakutsi ba?

—Bota dšuat beera, etšaukaat ezer.

—Gero...

—¿Zer gero?

—Gero...

—Otz eztana bero.

—¿Dšo barik gero?

—Tira atzera orduan.

—Ez, oba izango da alkarregaz barruratutia; bestela ik... i...

—Tira ba.

—¿Zer erosiko dšuaguk ba?

—Amuak eta kurrikana; (1) geure osabiak emongo dau biriki edo urdaí-zati edo beste *karnataren* (2) bat; gero itšas-tšoriak kai-ondora datožanian, eskolara ezgara dšuangó; gero itšas-tšoriak artuko doguz nai beste; bakotša

(1) BIRRARI edo soka-mueta bat da au.

(2) *Amuzkia* dau onek izenik egokiena. Donostia-aldean *beita* deritšo.

errial-erdigan saldu; gero potin bat erosi, gero itšasora...

—Ta gero gerokuak ze?

—Gero gerokuak.»

Eldu zirean onetan baserritarren gozotegi edo *konpiteriara*; atara ebezan lau arri argizaizkoak; dendariak zatitu ebazan, pišuan edo astu-ariñean ikusi-orduko; ta arriak euren buru soila erakutsi ebenean, agur amuak, agur kurrikana, agur biriki ta amuzkiak, agur itšas-tšoriak, agur potiña... ta agur mutilak.

Biak, dendaria atzetik kana bategaz ebela, zeñnek ariñago iges egin eben gozotegitik; eta nik barre egiñ al izan baneu, kaleko tšakur guztiak zaunkaka ipiñiko nebazan neure barre-algarakaz.

OGEI-GARRENA

DENDA BATEN

Aspalditšuan neukan zuri esateko iai-erdi-egun baten ikusi nebana. Ta bateko Bermeorateak, besteko Markiñara ioan-bearrak, besteko Lekeitioko burdin-bidea edo *boto*-bidea ikusi-naiak atzeratuta euki dauste orduko Tširristadea. Gaur bere baneukan nik zer-esan: izar-euria ikustera urteniko Elantšobetar batzuren ganean zer edo zertšu neukan; da orioa ta ura nastæran, orioa ganeratuten dan antzera, neuri bere dendako Tširristadea ganeratu iat eta or doa.

Esango neuke zein erri zan; baiña bildur naz: igarriko litzake nortzuk direan sal-erosleak, eta zeure leporako izango litzakez egurrak; eta orren baiño maiteago zaudaz, adiskidea.

Amaikak (goizekoak) noiz iausteko egozan erri atako orduari edo erloian; eguraldia nai baiño ohea zan, udagoieneko lora ilikoari udabarria zalakoan biztu eragitekoa; Elizako tšiliñak dilin-dalan dei ta dei ziarduen; atso bat edo beste, aulkia besopean geienak ebela, zirrin za-

rran Mezatara ioazan; ni, beti legez, ezmezean (1) nengoan, nora ioan enekiala: ala gozotegi batera eguzki-arraitan anakak mizketan egozan euliak zeinbat zirean ikustera, ala neure aurreko zapatagintza bateko mutil alper bi norzuk zirean iakitera, ala eskolara maisu erdaldu-nari estul eragitera: enekian nora ioan... Onetan emakuma mamintsu bat, buruan oiala ebalá, oial-denda batera sartu zan; da nor zan iakitearren, beren atzetik dendaratu nintzan neu bere.

Ni eldu-orduko zer edo zer esan bear izan eben; baiña eztoz uzte gauza andia izango zani. Urrengo autua irakurri daien guztiak, gitši bat gora-bera igarriko dabe zer zan aurretik esan ebana.

—¿Zegan dira oial onek?

—Eskerrekoak lau erreal kanako, merkeago lau zuri bere ez.

—¿Iru ta erdi nok emon bazeuko!

—Zuk eztozu ikusi au zelangoa dan. ¡Au da gauzea!

—Begira dakit nik igarten.

Ikutu eiozu mesedez. Uretara iaurtiteko bere balio dauz orrek lau errealak.

—¿Loditšua ezta izango?

—Udarako bai, baiña beste iru urtekarorakorako ezin ohea da.

(1) *Erderat en indecisión, indeciso.*

—Emongo dozu orregaitiño iru erreal da tšori (1) andi bigan.

—Ezin daiket. Zeu zarealako eskatu dautsut makur bat kanako. Beste bat izan baziña...

—Beste bat izan banintz iru erreal ¿ezta?

—¡Esatea bere!

—Eskumako oial zurizka onek ¿zegan dira?

—¡Ai onek! Begi ona daukazu, Andresa.

—Mezatarako nago ta gabilzan bizkor.

—Erriko denda guztiak aratuko bazenduz bere, etzenduke oial sendoagorik, ederragorik, iraunkorragorik eta merkeagorik aurkituko.

—¿Lengoagaitik bere eztozu bardiñ esan?

—Beren giñoan ederretarikoa da a bere; baiña onek...

—¿Zegan dira eurok?

—Lenengo zeuk ikutu ta esan gero zer deritšazun.

—Eztira tšarrak.

—¿Tšarrak?

—Eskuetan daukadan au ¿zeinbategan izango da kanea, geien bere? ¿Sei errealegan?

—Andresa ¿zeure senean zagoz?

—¿Bost eta erdigian alda?

—Zure antzeko eroslakaz eztogu tšoko andirik egingo.

—Zeuk esaizu orduan.

(1) *Tšakurra* bere esaten da. *Tšoria* lentšugotik esaten asi giñean.

—Ogerleko bat, kana asko artutera. Bat edo bi artutera barriz ogeta bi errealez bera ezta ezer bere.

—Ona ta guztia izango da; baiña gu lakoen-tzako goratšua da oial ori.

—Esaizu zeinbat emongo dozun.

—Nik amar erreal kanakoa iai-egunetarako, astegunerako sei edo zazpikoa: andik gorakorik eztot erosiko, neure senarra Alkate izanarte.

—Amar da zazpi, amazpi.

—Ori gero senarrak eztakiala: zortzi ta bost izango dira arentzat.

—Oraintše atarako dautsut beste oial bat, begiak beren atzetik eroango dautsuzana.

—Badakizu gero amaikak iausteko dagozana.

—Iaierdia baiño ezta gaur, da *ofertiora* elduarren, etšatzuz santuak asarratuko.

—Ariñ ibili beraz.

—Au barik ezin egon ziñaikez, Andresa; zeure gorputzerako egiña dirudi onek.

—¿Zenglea (1) ezeteda gero?

—Narrurik badago au baiño etenkorragorik.

¿Zegan da berau?

—Gero, ez ibili gero baserritarrak legez sei eskatu ta iru eskinten.

—Zeu bere etzaitz ibili iru balio ta sei eskatuten.

(1) Mergala, mengela, mengala...

—Nik meen meena edo atzenengoa eskatuko dot. Amazazpi erreal kanako.

—Aitearen, semearen...

--Aitearen da semearen, prakak eta iakearen.

—Banoa mezatara.

—Zagoz puzka baten. ¿Eztozu bada esan aste-egunetarako ta iai-egunetarako nai zendukeala?

—Amarrekoa iaiegunetarako.

—Oial onek egun guztietarako balio dau: nai aterri dagonerako, nai euria danerako, zein negurako, zein udarako; bai astegunetarako, bai iai erdietarako ta bai iai osoetarako.

—Amaikak oraĩntše dira. Agur Ana Mari.

—¿Ezer erosi barik zoaz, ene Andrea?

—Ekazu bada lenengo ikusi doguna iru erreal da tšori andi bigan.

—¿Lau errealetatik bere ezer kendu?

—Urren datorren eskekoari emoteko izango da tšori tšikia.

—Tira bada, tira bada. ¿Zeinbat kana?

—Iru ta erdi.

—Bakotša emeretzzi tšori tšiki izanezkero, orra nun direan...

—¿Tšorika kontuak? Ezta biarrarte bere. Kana bakotša makur bat egin daigun; da iru kana ta erdiak iru makur da erdi edo amalau erreal balio izango dabe. ¿Ezta onantše?

—Eta diru orreri iru tšori tšiki ta erdi kendu-

ezkero, orra nun direan amalau erreal baiño iru tšori ta erdi gitšiago.

—¿Tšori tšiki-erdia bere kenturako artu?

—Iru eunen: bardin da.

—¿Geiago ezer? ¿Alerik? ¿Aririk?

—Badaukadaz. Orain Mezatara noa ta gero neskatilea bialduko dot diruaz, da iru kana ta erdiak orduko gertata euki.

—Bai andrea. Zoaz ondo. Zoaz laungoikoagaz.

Oi dan legez, Andresak dendatik urtenda-koan, dendaria asi zan berari magalak iaten, esanaz:

«¿Gero onetarikotšuai bere *bai Andrea ta ez Andrea* esan bear! ¿Au da bizi-modua!

Urren dan eskekoari emoteko nai eidau tšori tšikia. Berak artuko leuke ak, nok emon baleuko. Begiratu berari; edozeinek esango leuke denda-erdia erosi dabela. Mezatara astegunean bere ta eguerdi-aurrean, goizaldean ez: ori izango da aingeruak bakarrik ikusi eztaien.»

Adiskidea: emakumea zan onetan iarduana ta ezin inor miraritu leike au entzuteaz.

OGETABAT-GARRENA

ELANTŠOBETARRAK ZERURA BEGIRA

Suizara ta Italiara erri politik ikusteko gogotan ioaten direanak eztakie nun dagoan geure Elantšobe; bestela elitzakez ainbeste ikusgura alde aretan ibiliko.

Orañ esatera noana eztakit nik baiño aurre-rago iñok esan daben: entzun dabenak, gomuta bei; entzun eztabenak, beki. Izan leike Elantšoben bere, itšaserria dalako, ardaoak eta béste edariak erriari urtearen buruan dirua naikoa emotea. Onan izanarren, Elantšobe ormatzarrez edo murriz inguratuko balitz eta unean unean ate andiak ipiñiko balebez eta atezaiñak erria ikustera doazanai, asko ez, erreal bat emon eragingo baleuskeoc, baturiko diruaz Ogoiño-mendia loraz udabarrian da madariz udagoienezan iantzi al izango leukee.

Eztakit zegaitik dan Elantšoberi zorgiñ-erria esatea. ¿Zorgiñak egiñ ebelako, ala euretariko asko bizi zirealako, ala begi ona eutselako? Ez-

takit. Eurak egiña bada, gogaldi edo umore oneko egozan taiatu (1) ebenean. Au irakurri dabenak bein baiño sarriago ikusi izango dabe untzorria, orma ta zugatz edo arbola zaarren lepora geldi geldi ta narraz narraz igoten. Beste onenbeste iazo dala esan leike Ogoiñopeko erri ikusgarriaz. Ango etšeak eztirudie beste errietakoak legez arria arri-ganean ipiñita egiñak, itšasotik oso osorik urten da gora ta gora narraz igonikoak dirudie. Iñoiz beerengo etšeari gogoratuko balitzakio oben egin da lurreratutea, ganerengo etšeak kili-kolo gitšienez egingo leukee. Baiña ez bildur izan: zimendu ona dauko gure erri onek: kai edo portua. Beronentzat egiñak dirudie Ondarroagaitik eresten doguzan berba onek:

*Eztet nik ikusiko
sure kai ederra.*

Gauaro ederra egoan ni kai atan egon nintzan gabean. Eztakit zein guzurtik mundu guztiari siniztu eragin eutsan gau atan izarrak, gaztaiña erreak ataraten dabezan tšinpartak legez, ibili bear ebela. Nire ustez guzurak zeinbat andiagoak ainbat sinizgarriagoak izaten dira: izarrana beinik bein askok siniztu eben (neuk bere bai) ta nik eztakit besterik.

(1) Erderazko *trazar*.

Geiago ta obeto ikusteko kai-aldetik bide barrira (egin kontu Babelgo torre-gan ganera) igoten asi nintzan ordu onean. Atso piġo bat ioan neure aurretik; euretatik berbaldunena Kosepa Kirru etezan nago.

«¿Zeeer? ¿Paperak diñuela ta siniztuuuu? ¡Ī onen amairutik amalaurako gabian izarrak kurika (1) ibiliko diriala! ¿Demorridšuak! ¿Ain zuzen be gaaaaaur?

—¿Bakizu Ana Bati? Ana Batiren seme zarrenak, Mundakako Kose Diru-ren alabiagaz eskondurikuak, bere bizi guztidšan *Kapitsan...*

—¿Da orrek baietz diñuala ta baietz esango dostazue niri? ¿Demorridšuak! ¿Orrek baietz diño? Nik ezetz diñot: orra kiñu.

—Ori bakarrik ezta baja. Bilbon bertan, ordu bai ordu, guztiak egongo dira aua zabalik zerura begira.

—¿Odai ilunak ikusteen? Or ezta besterik agiri.

Bai izarrak: neuk be zeuena egingo neuke. ¿Ana Batiren semiak esan dabela ta kurika ibilii? Datorrela bera bertora, *globuan* sartuta, komediantien katu-kumak legez.

—Kosepak beriagaz urtengo dau.

—¿Ez ba ze! Begiratu ara, Donostia-aldera, odai-artian dagozan izarrak: bat, bi, iru... baiña gorago bere sei, zazpi... kurika egiñeko gogorik

(1) *Kikura-bikuraka* esaten dabe beste hatzuk.

gaztaiña gorringua domeka-arratsalderako nok
pagau (1) zeringo dogu?

—¿Ganerantzeko barik?

—Gaztaiñak eurak dauke ganerantzekua.»

Au esaeran, pariztaren bat egin eban Kosepa Kirruk ganerantzeko ori obeto adierazoteko ta entzula guztiak barre egin eben: nik eztakit zegaitik. EUSKALZALE-ren irakurlai itandu leioe: «zer dala ta zer dala gaztaiña gorringoen ganerantzekoa.»

(1) Euskeraz ordaindu.

OGETABI-GARRENA

MUNDAKA-KO KIPULATŠURENEAN

I

Goizeko amar da erdiak zirean; eguraldia, ilak biztutekoa; nire gogaldia, beti lakoše ona. Atso banaka batzuk eta neskatu papu-andiren bat egozan kale nagosian alkarregaz *tšir-tšor*. Zer etezan iakitearren urreratu nintzakioen, da berba onetšek entzun nebazan, lau aotik batera urtenikoak: *Kipulatšonera... Lebrefueldik... Probenziania... Gaur*. Da guztiak gelditu zirean etše tšikitšu batera begira. Ioan nintzan etše ataraše, argitasun geiago atara nairik. Ondo izango da, ezer geiago aitatu orduko, Mundakan zala esatea.

Eskaratz-aldea otza ta utsa egoan: katu bat apotz apotz eginda lo, su alperretan lapiko tšiki bi isil isilik, eguzki-iñarretan autsa ta altzi tšiki bat edo beste goora ta beera iolasean. Andik aurreko alderantz asi nintzaneko, barbaroa neuganaiño; banengoan adi ta «neronek esan nion» entzun nebanean, «aor iagok *Probenzia-*

nia» esanda, gizategi edo salara ioan nintzan. Iru emakuma egozan; bata irurogei urte-ingurukoa, buruan zapi baltza, sur-ertzean betaurrekoak iausi-agiñik eta esku-artean kaltzerdi nabar zaartšu batzuk eukazan berak. Nire ustez auše izango zan Kipulatšu: kipula eldu-ariñen gizako arpegia baeukan beintzat. Bigarren andrazkoak, iai-eguneko iantzi-ekzero gatzetšuago irudi izatea izan leike, baiña eukazan soiñeko marroiš, maiz da pistindunakaz ogeta amar-amaika .. inguru oriše eukazan auza. Au, berbea entzuten bere aoa zabalik egoan, papau bat egiñik; ni, badakizu adiskidea, ikusgurea naz da goiko ezpanpera ioan nintzakion da neuk uste nebana: agiñak erakustearren (agin ederduna zan-da), egoan aoa zabalik. Oiñak barriz, eskaratz edo sukaidean ikusi neban katuak baiño bere eskutuago eukazan: ni araše bere ioan, da eneban damu izan: ikusiko zenduan iñoiz Elizondoan azpigarri edo *alfombra* zaar andiren bat mutil tšiki batzun eskuetan autsa dariola, zartada erruki bakoak artu ta artu, argizaiz bete beterik. Bada alakoše azpigarren baten zatiaz egiñikoak zireala uste neban agiñ ederdun emakumearen oiñetakoak: zer edo zegaitik eskuta edo ostenduten ebazan berak.

Irugarren emakumea «neronek» esan ebana (nire ustez kaleko atsoak aitaturiko Probentzianea), ogeta sei urte-inguruko neskatila eder bat zan. Iruron ganean ezer geiāgo iakin nai dabe-

nak, irakurri beiz urrengo berbetan eurenak; eta idiari adarretik legez gizonari nai emakumeari berbatik oratu bear baiako, badauke irakurlak onei nundik oratu...

II

KIPULATŠUK. Gure *defuntuak*—Sotero zan bere izena ¿eztozu entzuterik eukiko? Tira ba, ondo gizon *nombradua*—gure *defuntuak* esaten otsun ze Maniñuak guztiz diriala *deslealak*, *desleal* utsak. Neu gizona banintz, da *mariñua* izan ganera «tšotšo ¿nongua zara? ¿Maniñua? Tira ortik barruna, nik eztot iko-pasarik biar-da» esango neuskidšue.

PROBENTZIANEAK. Neronek ere ori esan nion. Alfredo ta bertantše zeuden eta kapitan gizarajoa Maniñuak il zuela *kontatu* zutenean, Alfredok ere iko pasa oriše apaitu zuen.

KIPULATŠUK. Bai, neuri entzunda. Buru onekua dšatzu Alfredo guria. Zeu orraitinño Lebre-fuelgo puntara dšuateko, *arriskadia* zara.

PROBENTZ. Nere aita det kapitana ta iru aldiz izan naiz ¿ta nola diran gauzak? Bi aldiz Alfredo bertan egondu da; eta bictan eman zitzadan miñla goraintzi berontzat, *bisita* bat egi-teko gaiñera.

OIÑETAKO ZAARDUNAK. ¿Zer? ¿Alfredo neure nebia? Ezetedau onetšek siniztu beronentzat dala? ¡Bestelako papaua!! «*Maiordomutšuren* bat naikua dozu, tšikiña.»

Ezpeie irakurleak uste izan berba onek iñok entzutekoak izan zireala. Neskatīla onek (*zapata-zaar* izan daiīla), zapata-zaarrek eziban besterik egiten aoa zabaldu, agiñak erakusteko, ta oiñak gorde baiño. Ta nik ezin siñiztu neban a isil isilik egotea ta belarri batetik, eskerrekotik, barri tšarrak legez, burura sartu nintzakion; da andišek, zapata-zaarren garun-artetik, entzuten nebazan beren gogamenak eta besteen berbaak.

Entzun daiguzan batzuk eta besteak.

—ZAPATA-ZAARREK etorri-barriari: Ingeles bere badakizu zuk onezkero.

—PROBENTZ. *Tradusitzen* bai, aditu ere zerbait egiten det; ¿baiño itz egin? oraindik pitin bat besterik ez. Bein egin bear izan nuen *Polizman* batekin, eta Alfredok farra egiten zuen.

—ZAPATA-ZAARREK (garun-artean): Bakit ondo lotsa bako *pandero-tzarra* dana berau. (Agin-artean). Ondo *edukariko personia* edonun izaten da agiri. (Garun-artean). ¿Nun *eduka* eteda berau? Gaztai baltzak egiten dirian mendiren baten. *Sombrero* ta guztikua da berau.

—Ni Bergarako *kolejioan* egondu naiz.

—ZAPATA-ZAARREK (garun-artean): *Kridšada* edo batek badaki. (Agin-artean). ¿Zemat zarie zeuek? ¿Aita-alabak baiño ez?

—Gu gera bost serbitzeko: bi mutil, bata oraintše pilotu egingo da, bestea *Institutuan*

dabil Donostian. Iru neskatīla gaiñera: ni naiz nagusiena: emezortzi urte.

—ZAPATA-ZAARREK (garun-artean). Ganerakuak amaseiko gorridšak balira, *sombrero* obia ekarriko zenduke, tšikiña. ¡¡Amazortzi urte!! Neure amazortzidšak lakuak. (Agin-artean). ¿Zelan dabe izena?

—Gazteena Laureana.

—Mutīlak, mutīlak ¿zelan dabe?

—*Institutuan* dabilena Fernando; *pīlotuak* Sofronio du izena.

—¡Ondo izen polita dako! ¿Ezteritšo, Ama?

—Zelan esan dau baia ¿Sorponiño?

—Ez Andrea, Sofronio.

—Probentzianua izango da uzen (1) ori. ¿Zeuk zelan dozu uzena?

—Nik Leonora serbitzeko. Aitak lenbizi erabili zuen *baporak* zuen Leonora izentzat, eta neri ere Leonora ezarri zidan.

—Izen panparroiak dakozuez, Lionora. Gero geurian bazkalduko dozu. Santa ¿nok ekarriko dosku okelia edo zer edo zer geigarritzat bazkariñarako?

—Kridšadiari deituko deusat eta kifua.

Au esanda Zapata-zaar eskerreko pendiz edo balkoira ioan zan, da auzoko atso bati mesedez lobatšua mandatu bat egiteko bialdu eiola eskatu eutsan. Iaurtu edo atzera lengoakana ioan

(1) *Uzena* ta *izena* bat dira.

zanean, beren Ama egoan etšadiko (1) barri emoten.

«*Fambelidša* ederra izan dot: iru edo lau aingeru zeruan dakotaz. *Defuntua* ointše ogetaz urtiak diriala iño zan; da seme-alabatšu bi itši ostazan: Alfredo ta Santa.

—Ama: oker dago. Ogetaz urtiak eztira ordutik ona.

—Ene alabatšu ederra ¿zeuk esango dostazu?

—Nik beintzat ogeta lau urte izan barik dakotaz da eztakit besterik.»

Au esaeran Zapata-zaarrek siñu bat egin eutsan Amari, bestearen isilik; bestela Amak urte urte agertuko ebazan beren seme-alabaak eukezan guztiak.

—Badet beste *bisita* bat ere. Nere Aitak esan dit ekusteko Don Pedro Manuel, berarekin batera itšasoan ebilia.

—¿Zein baporetan?

—*Elisa* esan zuela uste det.

—¡A bai! *Artobero*. Anatšu Artaberoren semia.

—Oriše. ¿Alaba bat eztu orrek, pianoa ederki jotzen dakiena, aberatsa ta neskatša oso polita?

—¡Bai zera! esan eban Zapata-zaarrek. Osunak ondatu ebazan orrek. Pianua gaur edonok daki. Poliñasunian barriz ezteko bestiak eztauken gauzarik.

(2) *Etšadi*, erderaz *familia*.

— Ori ikusi gabe ez egoteko esan zidan Aitak.

—¿Ori? ¡A ze! *Puerto Rico*-tik etorririko *indiano de hino negro* bategaz dabil dño ta su.

Irakurlea: eneban geiago ezer entzun nai izan. Amaitu orduko gauzatšu bi edo iru esango dautsudaz: 1.^a Santa Zapata-zaar, auzokoagaz berba eginda iaurtueran (1), burukoa (2) obeto ipiñi ta zapata barriakaz agertu zala; 2.^a Sofronio-ren izena entzun ebanetik gora abegi ohea egin eutsala *Probensianeari*; 3.^a Leonorak Alfredo-ren izena aitatuten ebanean, ezebala Zapata-zaarre *Maiordomotšurik* ekarri gomutara; 4.^a Kipulatšuk erderaz ezekialako ziarduela euskeraz besteak; osterantzean Mundaka-Bermeoetako neskatiak, euren buruari zer edo zer deritšuenak, euskera ederrari gitši eritši ta erderaz zelan edo alan egiten dabela; 5.^a emakumen miiñetik *libera nos Domine*.

(1) Erderaz *al volver*.

(2) Erderaz *locado*; euskera tsarrean *loca*.

OGETAIRU-GARRENA

PEIÑO BILBORAKO USTEAN.—PEIÑO TA EMAZ-
TEA BILBON

I

Gomuta izango dozu, adiskidea, «zein poliki itz egiten zuen Mundakan Kipulatšurenean ikusi nuen Leonorak.» Andrazkoen aoan edozein berbeta eida gozoagoa. Gipuzkoakoa paperean Bizkaikoa langoše erdi-bardiña dana edozeiñek daki; baiña Leonora askori entzun-ekzero, ezta baiño gozoagoa irudi izaten dau.

Onešegaitik Gipuzkoarako gogoa artu neban leengo egun baten. Eibarren da Plasenzian da Bergaran da Mondragon-en da orretan Bizkaiko erara edasten (1) dabe; ta aurreratšuago ioan nai izan neban. Bergaratik gora ta gora izerditan da tšistuka ioaten dan suburdi-atzean, zein da katakumeak aril bategaz legez, iolasean edo olgetan ioan nintzan Deskarga-mendi-gan gaineraiño.

Andik begiratu neban esker-aldera ta arrautza-perretšikoen antzera or da emen zabaldua

(1) *Edatsi* ta berba *egin* bat dira.

ikusi nebazan basetšeak ugari: gane-gorri, bu-lar-zuri, atari zabal zabal zabalaldun etšeak.

Zori tšarra ibilten dan baiño bizkorrago eldu nintzan Urnieta-aldeko basetše polit batera. ;Badakizu zelan egoten direan gure edo zuen teilapeetan enara-kumeak lumaz ondo iantzita abiatik urten nairik? Alantše egozan basetše aretan andra ta gizon atari edo aderdi edo etar-teetan gora begira, euria iausten ikusten.

Aretarikoše etše batetik (eneuke esango ze-lan daben izena) gizontšu bat, tšartes bat edo bi (enago ziur) burutik beera euritakotzat eba-zala, tipi-tapa bizkor ioan bide zior baten zear Eliza-aldera. Iarraitu neutsan gizonari pozarren; bada buruak edo buru-ordekoak (bururik eztau-kat eta) esan eustan alako eguraldiaz etšetik urteteko, ardura andiko arazoren bat eroango e-bala gizonak.

Eldu giñean basetše-antz bagako bizitoki ma-kurtšu batera. Gizonak (agurea bere esan leio, ar-pegia ta burua erakutsi ebazanean, batean tšimu-rrak eta bestean ule urdiñak ikusi neutsazan-da) gizonak ots egin ebaneko, berrogeta amar urte inguruko emakuma batek atea edegita, «;Zer dakarzu, Peiño? esan eutsan Igelak ere itoko li-rake gaur ;ta zuk bizirik iritši dezu gure etšea?

—;Bizirik iritši detan? ;Ala Jaiña! Ni bezin pizkorrak badira ilak, ardit bat ere ez lekiket ajolarik izango eriotzagatikan.

—Iñor al dezu etšean ilten.

—Tšerri bat eguberrietarako, besterik ez.

—Ori galdetu dizut, gure Apaiza ortarako nai otedezun jakiteagatik.

—¿Etšean aldago bera?

—Peiĭo gizarajoa, lagun zarra: atoz barrena, soiñeko oriek legortu ta barrena pizka bat bustitzeko.

—Jauna ¿berori ere emen alzan?

—¿Non izango naiz ordear?

—Berori ekusi bear dedala ta etorri naiz.

—Lenbizi egin bear dezuna da soiñekoak aldatu. ¿Gero nererik ongi edukiko aldezu?

—Jauna, berorren sotana zar batean ni ta nere emaztea ta nere alaba ederki sartuko giñake. ¿Ezalda egia?

—Zuk beti aldarte edo umore ona. Atoz nerekin.

II

Arik gerotšuago sutondoan egozan biak, Abadea ta Peiĭo, aurrez aur: Abadea, *sigarro* bat egiten; Peiĭo eskuetan paper zuri bat ebalá. Peiĭo zan lenengo berbetan asi zana.

—Gure Iñasik antza ematen dio; baiñan, gizona, nik siniztu ezin semeak dei egin didala. ¡Ala Jainá! ¡Au poza Bilbaora juuteko! Zartzaro ederra *pasa* bear degu, Jauna. Iñasik dio *letrea* ere ederra duala. Nik, Jauna, Elizako liburuak ederki eo beiñepein nolabait neretzat irakurtzen ditut; baiñan eskuz egiñikorik... ezta deusik ere.

Gaiñera *komerziante* oiek deabruak baiño ere letra nasiagoa dute.

—¿Deabruak baaldaki eskribitzen?

—Ark ezpadaki ¿nork jakingo du ba? Nik ezer ez tet iñoiz aditu, baiñan nik uste det liburueta-ko ta beste *astrusia* guzi oiek deabruak berak atereak ezpadira, eztala urrutik ebiñiko. Badaki Jauna, ni iñoiz enaiz izan, baiñan nik ere semeari entzun-ta dakit: ¿badaki non dagoen ibaia? Zubi eder baten azpian omendago; ba ibaitik juun esker-aldera, ta gizon aundi bat omen dago arri-gaiñean Lopez edo Gomez, Harro-ko semea dala-ta. Goi au joko omenluka: tšistera pelotarien modukoa omen du esku batean, bestean *errezeta* edo eztakit nik zer. Juun aurrera ta kale bat omen dago gure Eliza guzia beetik asi ta gora baiño ere zabalagoa. Gero *estanku* bat, gero *peluqueria*, izpilu utsez egiña, aundia bera; ta gero aurrerašeago nere semea. ¡Gizarajoa! Oso maite izan det beti. Ta juuteko omen dio. Berorrek, Apaiz Jauna, egingo balu mesede irakurtzea, ezin siniztu det-eta...

—¿Eta norekin zoaz, Peiño?

—¿Norekin juutea nai du? Emaztearekin. Tren ori *pagatu* bear ezpalitz, Iñasi ere eramango giñuke gurekin. ¿Berori izan alda iñoizko *denboran* Bilbaon?

—Iru edo lau aldiz.

—¿Ta egia alda gurdiak idirik ez beirik gabe dabilzala, eta gaiñera surik ere gabe, tšilin bat

jo dilin dalan ta «arre potšo» an dijoa ta lau esan-orduko aienatu kea bezela? ¿Egia alda?

—Nik ere ikusi ditut gurdi oiek.

—Semeak karta ontantše dio ori ta beste gauza asko. ¡Arraica! Guk ekusi bear ditugu ekustekoak. Baita aidean ere baomen dabilta gurdiak. *Serenotan* berriz ¡Jesus, Maria ta Jose! Zumalakarregik eduki izan baldin balitu ainbeste gizon bere mendean, beltzak Aitearen egiteko *denbora* doi doia izango zuten, besterik ez. *Zaldiak eta baporak eta trenak eta...*

—¿Burus ikasi aldezu *karta*?

—¿Irakurri aldu berorrek guzia?

—Bai ta ederki zegok.

—¿Gure semeak? Ez semea detalako, baiñan; ¡ala Jaiña! naikoa lan beste bat baserrikoa izanta, artzai ere ebilia-ta juun Bilbora ta Diputauak ere ongi esaten berari ¡Antonio Mari gizarajoa!

—Diputauak Diputau izan bear duten aurregunetan edozein izaten dute adiskide.

—Jauna: ori ere gezurra ezta izango, baiñan pekatuak ere aitortzen dizkiot berorri ta aitortu bear diot au ere: Diputauak batek baiño geiagok diru asko emango lukela gure Antonio Mari izateagatik. ¿Ezautzen du Kontšesi Soraluze-ko neskatša, Bilbaon mirabe urte askotan egondakoa? Ark esan dit neri ta ez bein bakarrik.

—Poztutzekoa da.

—¿Nai aldu ezer Bilbaorako?

—Gorantziak semeari ta ona izateko; Dipu-

tauak baiño Elizako santuak obe dirala adiskidetzako; dirua baiño gordegarriagoak dirala oitura onak; ondasuna baiño askozaz obeagoa dala ontasuna.

—Jauna, berorrek beti zerutik jetšiak bezelakoše itzak.

—Peiĭo: esan egia. Zuk karta ori ekarri dezu, nik Bilbaorako zaudela jakiteagatik, ala zertarako?

—Ori ere bai, ori ere bai, Jauna.

—Bai ta igarri ere. Orain elkarrekin apalduko degu; lo ere gurean egingo dezu ta biar edo nai dezuncan joango zera etšera.

—Jauna, semeari esateko ere naiago det berorrek emaniko ostatua, nere beiak tšal baten orde z bi egitea baiño ere.

* * *

Eztakit ziur baiña gau atan Peiĭok ederto, beti legez, lo egingo eban: arimea garbi, gorputza osasunaz, biotza kezka barik eta urdaila erdi-beterik daukazanak, beste askok oe bigunean baiño lastotzan bere obeto lo egiten dau.

Egun da erdi geroago Zumarraga-ko gelune edo *estaziñoian* nenbiĭen, Bilbora eguerdian eldu oi dan suburdia noiz urtengo eban begira. Burdirik burdi nenbiĭen Peiĭo ta Kosepantoni noiz ikusiko: iru burdi egozan *tertzerakoak* eta bat ez baten enekusazan ene senar-emazteak. To-

rretšori edo kurloiak teilatutik kalera ta kaletik teilatura, norbait agertu ta eskutatzen danean, ibiltzen direan antzera, neu bere burdietetatik geluneko teilatura ta teilatutik burdietetara nenbilen, da Peiño ta Kosepantoni etzirean agiri. Tšiliñak iru bidar ots egiñ eban, asi zan su-burdiñ tšiztuka ta alboetatik adur-urtika, itši eben sarrerako atea, burdi-kataiak nagi dan baten besoak legez luzatu ta *gran gran* asita gero, burdi errenkadea geldi geldi abia zan ibiltzen.

¿Neuk enekiala Bilboratu etzirean senar-emazteak?

Oiñez ibilteko eztabe gure baserritarrak iñor bear; baiña Abadeari *trenean* ioateko egozala esanezkero, etzirean bestelako bidez asiko. ¿Itšasertzeko burdin-bidera io eteeben? Onek eta beste gogamen batzuk nora ioan enekiala ipiñi nenduen. Atzenez otu iatan, Deskarga-ganera oiñez ioan etzirean, merketšoago Bilbora eldutearren.

Uste onetšek zirikatu ta aida baten burdin-bidean zear ibili eragiten eustan. Goi-aldera eldu-orduko aurrea artu neutsan burdi-errenkadeari. Banan banan neu geldirik nengoala burdiak aratuten asi nintzan. Laugarrena etezan nago, *segundakoa* bera, neure senar-emazteak zabal zabal egozana. Ezeuken poza salgei.

— «¡Baita ariñ egiten duela!

— Zeinbat ariñago ebiliago, ariñago *gastatu*-ko ditugu diruak.

—¡Ala Jaiña! Guk ere zerbait ekusi bear genuen. Ilteko ere ezkerera gaizki egongo etšera-koan.

—¡Ilteko? *Primera*-ko elizkariak egin bear balira, eztakit nondik aterako giñuken dirua. ¡Maizterrak baizik izan ez ta nagusiak bezela bizi?

—Andrea: obe da *primeran* bizi ta *tertseran* il, *tertseran* bizi ta *tertseran* iltea baizik.»

Alako baten agertu zan burdin-bideko morroi bat eta «*Billetes, señores*» esanda urreratu iaken senar-emazteai, eskuetan zulogeteko tresnatšu bat ebala. Peilok tšapela erantzi eutsan, da Kosepantonik zapi zuri baten ertzean batu batu eginda eukazan tšantel (erderazko *billete*) biak emon eutsazan. Tresnadunak orduan barruko sakel batetik liburu bat atara ta paper tšiki bitan zerbait eskutiztuta «*tres pesetas de suplemento,*» esan eutsen.

—¿E?

—*Tres pesetas.*

—¿Iru *peseta* emateko? Neronek artuko nituke sei ere.

—Kosepantoni: obe izango da oraintše iru ematea, gero sei eskatu ez ditzan.

—*Tres pesetas de suplemento.*

—*No entender.*

—Kosepantoni: eman ditzagun ¿ezaldion tšapela ekusten? Treneko nausia izango den au.

—Peilo: nik eztiot emango ardit bat ere.

—Orduan agur nere tšapel barriaren diruak. Or irurak.

—*Está bien.*

—Peiĭo: lenbizikoa ta atzena auše izango da.

—¿Badakin zergatik izango dan? Otzara ortan bi oiĭo oriek dauden tokian aurra daramagula uste izango du.

—¿Aurra? bai iru anakakoa, erriz erri erakustekoa.

—Gaiñera gerrak bukatzeko diru asko bear dala esan zidan apaizak, eta artarako bear izango dute.

—Artarako bear badute, eska dezatela aberatsai. Oiñez goizaldean irten bagiña, orai ia Bilbaon geunden, eta gerrarik etzan izango.

—Ekusiko det ea beste gurdietakoai eskatzen diezten iru *peseta* oriek.

—Eztezakala ori egin, beste iru eman-bearrak izango gera-ta.

—Beste iñoizko *denboran* etortzeko asmorik bagendu, pakea egiñ arte...

—¿Etorri beste bein! ¿Tšoratua al-ago, Peiĭo?

—*Konparaziorako* esan det.

—¿Badakit zer egin bear dekan *konparaziorako*? Aldean ditukan *peseta* oriek neri eman gordetzeko: neri eztizkit iñork ere kenduko ezta *gobernadorea* badator ere.

—*Konparazio* guziak eztirade berdiñak.

Eztot uste, adiskidea, gei baten erraz sartu al leikezala arekandik entzun nebazan berba guztiak.

Bakar bakarrik Bilbora eldueran iazorikoa agertuko dot. Ordu batak inguruan eldu giñean Atšuri-ko gelunera. Atso-aguraak begi argi argiakaz leio batetik begiratu eben, semea itšaroten eukelakoan. Isiĭlik iatzi zirean biak, euren gauzatšua besoetan ebezala. Kanean oiña ipiñi ebenekoše asi iakezan mutil sazkel batzuk deadarrez: *Fonda de la Nabarra, Laurak bat, Hotel Antonia. Abuelo, posada de aldeanos, mesa sin platos, de balde...*

Senar-emazteak iñori ezer erantzun barik euren bidean aurrera ioazan, da arako gaisotegi-ingurura eldu zireanean, gizon batek (au bere tšotaduna zan) lepoan ikutu ta esan eutsan Peiĭori zer eroian. Peiĭok erakutsi eutsazan pozarren otzarako oiĭlo eder biak. Gizonak orduan, otzarea eskuan artuaz *conmigo* esanda, zurezko etše tutu batera eroan ebazan.

—Adiskidea. ¿Zuk ere *soplamento* bear al dezuz? ¿Ala erosi nai? Nik eztitut oriek salduko ezergatik.

—*Diez duros y además los pollos.*

—Kosepantoni: amar *duro* eman nai ditu bi oiĭloakatik.

—¡Oi!

—*Diez duros, si señora.*

—¿Ezalden aditu? Nik eztizkigula salduko

esan det ¿baiñan emango dizkiogu amar *duro* gatikan? Atzera-aurrerako *gastuak* bi oiñorekin egingo ditugu.

—Eta Antonio Marik ezer esaten bada...

—¿Zergatikan ezta etorri bidera?

—*Diez duros pronto.*

—Geiago ere emango dizkigu, eskatu gabe amar eskeinten dituenean.

—Guzia nai duenak guzia galtzen omendu ta artu ditzaiogun amarrak. *Diez duro bueno.*

—*Pues deme V.*

—Emateko dio.

—¿Emateko?

—*Multa de diez duros y decomiso del género.*

—Zuretzat duroak, neretzat oiñoak.

—*O si no á la cárcel.*

—¿Kartzelara, Peiño?

—*Diez duros ó cárcel.»*

Asi zan orduan Kosepantoni garraizika, lapurrak urkamendira eroan bear zireala; oiñoak eztireala iñori ostuak, etsetik semearentzat eka-riak baiño.

Agertu zan onetan guztien onerako Antonio Mari. Zer iazo zan iakieran, emon eutsan atezaiñari oiñoakaitik eskatu ebana, ta Aita-Amasemeak euren oiño ta gauzakaz *tranvia urbano* deritson mando-burdi baten sartu zirean etserako.

«Ala Jaiña, esan eutsak Peiñok semeari, etserako ta erriko barri batzuk emonda gero: oiño go-

zoagorik eztu jango gaur Bilbaon gobernadoreak ere. Gure erriko apaiz Jaunak ¡zeinbat farra egingo du, au jakindakoan! Lengo egunean asteazkenean bere etxean, bere maian afaldu nuen, lo ere bertan. ¡A gizona! Apezpiku izateko ere eztu ark ezer bear.

—Izatea besterik ez.

—¡Izatea? ¡Ala Jaiña! Euskaldunik ezomen dute Euskalerrira ekarri nai apezpiku izateko; ta gu beti erdaldunen azpian. Badator bat *kouprimatsera* ta asten da *sermoia* egiten, ta guk tšakurren zaunka obekišeago aditzen degu aren *predikua* baizik.

—¡Bazkaltzeko gogorik?

—Maltzagan jan degu ederki.

—Orduan nere lagun bat dago Portugaleten, eta berok etorri dirala esango diot.

—¡Portugalete itšasondoan ezaldago? ¡Ezalda oriše, zubi bat aidean lurrari ukitu gabe duena?

—Portugalete oriše da.

—¡Ta bazkaldu-orduko itz egingo diokala?

—Etorri nerekin.»

Telefono-toki batera ioan zirean irurak. Antonio Mari asi zan berbetan lagunagaz, Aitari emon eutsan *plaka* bat belarrira. Portugaletekoaren berbea entzueran, zurturik gelditu zan gizagaisoa.

Gero semeari itandu eutsan.

—«¡Ezoteda gero zuen Portugalete aldame-neko gela?

—¿Or eskutuan egon dala uste aldu?

—¿Nola izan lezake ori bestela?

—Ezalditu ikusi bidcan *Telegrafo*-aga andi batzuek lurrean sartuta ta aga batetik bestera *gitarra*-antzeko *alambre* batzuek? Emen ere berdin. An itza eskuz egiña etortzen da. Emen itza aoz esana entzuten degu.

—¡Au deabrukeria! ¿Ta au ikusi gabe egon? Kosepantoni: urtean tšal bat salduta ere, urtero etorri bear degu Bilbaora.

BIGARREN PILOA



LENENGOA

ATSO BATZUK ETA VASCOFILLOTZAKOA

Adiskidea: ezetan asi-orduako egun onak emon bear dautsudaz. Gaur urte bete iaio zinean (Urtarrilaren 2-egunean); urte askotan bizi izan zaitela, onerako (neuk uste dudanez) iaioa bazara. Bertso edo koblarik eztaikit egiten, bestela egingo neutsuzan gaur. *Vascofillok* legez atzak edo atzamarrak baneukaz, izkai edo *silabak* banan banan zeinbatu ta zelan edo alan neuk bere... baiña natorren arira.

Atzo arratsaldean, erri-ondoetan eguraldi onaren pozera ebilzanak ikustearren, neuk dakidan erri polit batera ioan nintzan. Eztot esango zein erri zan: esango baneu bere, etzenduke zuk argitaratu nai izango-ta. Dana dala, errira sartu baiño lentuago sei edo zazpi emakuma mai baten inguruan ikusi nebazan, eskuetan *kartak*, begietan argitasuna, ezpanetan barrea ta biotzean poza ebezala.

Ogeta amaikan ziarduen. *Bota... bota... bo-*

ta... asko dot. —Bota... bota laukotšu bat... batek erre, ogeta amabi. —Bota... ;banekian! paso (?) —Nik eztot bear ezer. —Bota niri, bota... bota tšanka bat... ogeta amaika. Amabost euki dodaz, lauko bat artu: orra nun direan emeretsi; gero biko bat: orra nun direan ogeta bat; gero errege urrea: orra nun direan ogeta amaika. Atzo galdu nebazanak eta geiago oingoše nago irabazten.

Adiskidea: eskualdi geienak edo guztiak zirean onetšen antzekoak; eta alperrekoa izango litzake beste eskualdirik agertutea. Boskarrena ala eztakit seigarrena zan, ni ikusten nengoan eskualdia, urruneko aldean bide-ukondoan elizgizon bat astiro astiro geuganantz etorrela ikusi nebanean.

—An dator. . . . (eztot esango izena).

—Zer edo zer esan barik ezta ori aurrera ioango.

—Gizon iasekoa da: elizgizon andia. ;Ai orren garizumako sermoiak!

—;Badakizue, gazteak, zer entzun dodan? Oriše dala *Vascofillo*.

—;Arako EUSKALZALERI kontra egiten deustsana?

—Bera. Atzo irakurririko geiak latinkada bat dakar, eta geure abade au da guztizko latinduna; ganera euskalzale errimea da, ta besetik destaiñaduna ta beti nor edo nor zirikatuten egotekoa. Egingo neuke eskuetan dakarren papera EUSKALZALE dala.

—Orraztu kartok, Katalin.

—Mari Kosepa Sakristauko egoten da sarri bere etxean; da geienezan egoten eida gure abade ori paperak euskeraz baltzituden.

—Katalin, egizu isiltšuago ta kartok obeto orraztu.

—¡Aonek bai polito!! Arratsalde on.

—Alan ekarri daiala. Badator berori bere, abade iauna.

—Banator. Zeuek bere bazagoze ta badiar-duzue. ¿Nor dago irabazten?

—Neu, iauna, gauza gitsi da baiña. Atzo baiño eguraldi ohea dauko gaur ibilteko.

—¿Beti euria egitea nai dozue? Lurrok naikoa edan dabe. Arnasa artu daiela orain. Agur: ea guztiok irabazten urteten dozuen.

—Baiña bat edo batek galdu bear, nok-irabazi egoteko nok-galdu egon bear dau-ta.

—Agur bada.

—Beioa ondo. . . Arratsalde on daroiala. . . »

Iarraitu neutsan *Vascofillo*-tzakoari ta egia esan eban kartadun atsoak: EUSKALZALE zan berak eskuetan eukan papera. Zortzigarren orrialdea irakurten etorren: «VASCOFILLOK EUSKALZALERI.» Luzaro egon zan atan. Gero *Gabon-gaba* irakurten asi zan. Arik lastertšura «*por cuanto vos*» esanda, *Amodiosko su-gar bi-ziak bere eriotza bizturik...* ¡Eriotza! ¡Eriotza! ¡Bere eriotza bizturik!... *Ya entiendo*: bere biotza bizturik: biotza, biotza ta ez eriotza. Esaten

deutsat nik areri; baiña ak barre beti: urrengoan bere lodituko az i.»

Adiskidea: izan leike *biotza* ta *eriotza* orren aldakuntsea dala ta eztala, Vascofillo-kadaren bat nire barri onek baiño leenago zugana eldutea. Onelangorik gertako balitz eta igarkizunaren epaia bialduko ezpaleu, esaiozu Vascofillori *artasiak* dala atzenengo igarkizuna. ¿Badakizu au zegaitik diñodan? Bein edo birritan igarri eban, da gauza andi bat egin baileban, beste gatz bako bat bialdu eban atšakitizat zer edo zer esanda. Tšistularr-i erantzun eutsan baten, Santiago-ko bidea Conpostela-rako bidetzat artu eban. Oraintše iñoizko ondoen esan leike *por cuanto vos*. Guztiak dakien bidea ta iñor bere eztabiñena Santiago-ko bidea da; baiña ez lurrekoa, zerukoa baiño. Izar-aldra bati esaten iako erderaz *via lactea* edo *camino de Santiago*. Tšistularrek ezeutsan ezer erantzun Vascofillori, baiña nire ustez bide auše izango da beren igarkizunekoa.

Ta ¡alegia! *servatis servandis* esanda, aora edo lumara iatorkan guztia esan dautso Tšistularr-i. Atsoak kezkan dabilzanean, atzenengo berba egiten dabenak eukiten eidau Vascofillok esango leukean *erresoja*. ¿Ezeteda beste onenbeste iazo Vascofillo ta Tšistularren artean?

Atzenez esan eikeozu zure adiskide orreri:—
1.º dirua emotea baiño artutea errazago izaten bada, makiñadak artu baiño emon gogo obeaz

egiten direala;—2.ⁿ dirua artuten dabena emoteko bere gertu edo *prest* egon bear izaten dabena antzera, makiladaak emoten dabezana bere artuteko gertu egon bear dabela;—3.ⁿ eztabela beraz arpegi tšimurra ipiñi ta aika ta alaraoka asi bear, bat edo batek bera zirikatuten dabenean;—4.ⁿ errazago dala iñorenari atšakiak ipintea, noberak gauza onak egitea baiño. Ager-tu daizala berak egiñiko irakurkizun batzuk; eta Tšistularrek gogorik ezpadauko, neuk esango dautsada Vascofillotšuri zeinbat direan lau ta bi.

Urte on bat igaro daizula zeuk eta zeure irakurla guztiak.

BIGARRENA

ANDRA MARIA DE AGUIRRE

I

¡¡Au da negua!! Ez niri neure ardura andia daustalako, baiña esan daidan barrero bere ¡¡au da negua!!

Negu gogorra izango dan ala eztan aurretiaz iakiteko erleak eidora igarlerik onenak. Izan leike. Erlauntzetako barri eztakit. Negua biguna dan ala eztan iakin nai dabenak igargarri asko daukaz: 1.^a itšas-errietako ardantegietan baturiko gizonak berba asko egin da ardao gitši edaten badabe, negu gogorra; 2.^a ezti apur bat agirian ipinten danean, ordu bete barru eulirik agertu ezpada, negu gogorra, latza; 3.^a egurastoki (1) baten andiki irudiko umeen artean *barquillero*-rik agiri-ezik, negu gogorra, latza, bildurgarria: mantarrak atara daukazanak.

Plentzia-gane ganean nengoala otu edo bururatu iatazan leen esan dodazan igargarriok.

(1) Erderaz *lugar de paso*.

¿Zetatik, esango zenduke, adiskidea? Ona emen zetatik.

Andra Maria de Aguirre (erderaz esan daidan, barriraztu daben *señorak* io enaien) deritson baseliza polit bat dago Plentzia-ganean, lau edo bost alberrik batzartokitzat daukena: Plentzia bera, Gorliz, Lemoniz, Barrika ta besteren bat dira bertan noizean bein batu oi direanak. Eliza polit au oraintsu barriraztu dabe; ta edegi bear zaneko, ortiko ta emetiko albistariok (obeto iatorke onei *periodico*-izena) iragarri dautse itsuai bere Andra Maria de Aguirre-n au ta ori ta bestea egozala.

Iñori ezer esan barik tšakada baten edo ariñago eldu nintzan bertara. Orduko bete beterik egoan Elizatšua: atso lodi bat baiño geiago egozan izerditan da puzka, agura zimel batzuk aurreko aldera begira ta aoa zabalik, *indiano* banaka batzuk, *Noticieroa* Ebanjeliotzat daukenak eztarria garbiketan estulka egozan. Nik neure artean «¿Zer ikusi bear etedogu?». Indiano batek (*señoritaren* batek ikustearren alzan) atarariko orduari edo erloioa putz eginda aurrerratuaz, elizkizuna aurrerratu al izan baneu, berbaldi barik gelditu bear eben egun atan.

Onetan gengozala asi zirean atsoak arpegia tšimurtuten, indianoak alkarri bultzaka edo sakaka, ta erderazko berbatšu batzuk nire belarriak minduten: erraldoia lango gizon lepo-zabal, kokot-gorri, buru-andi, kaltza-zurizka, tšar-

tes urdindun arrantzale-irudiko bat zan, aldea estutuaz, kanpora urten ebana. «Auše ondarrutarra dala egingo neuke» esanaz, beren atzetik ioan nintzan ni bere. Beste sei edo zazpi gizon lenengoaren antzekoak kaleratu zirean gero-tšuago ta eurakaz batera atsotšu bat inguru atakošea.

«Ama», esan eutsan aretariko batek: Aditzen deutsazu išer (1).»

—Ezta tautik bere, arean (2).

—¿Euskalerridše ala maketerridše, ala zer da berau?

—Au Euskalerria, ene semea.

—Ezta asko agiri.»

Ta etzan asko agiri. Euren ondora agertu zan, lepoan morko andi gorri biribil bat ebala, amazapi urte-inguruko mutil bat. Begiratu neutsan morkoari, zer eteeukan igarri nairik. Ona emen zer irakurri neban:

LA PAZ DE CUBA
SOY DE
BERNARDINO COLINA

Orduantše, *barquillero* auše ikusian, otu edo bururatu iatazan neguagaitik asieran agertu dodazan gogamenak.

Erdalerrri antza (egia esan eban ondarrutarrak)

(1) Ondarroan *ezter*-en ordez *išer* esaten dabe.

(2) *En realidad*.

Eliz-barrura sartuta artu eikeon inguru areri.

Plentzia ta Gorliz-ko atsoak: poztu zaitezue, aurrerantzean agiñik etšatzue iausiko, loka loka eukiarren, gaztaiña gorringoa ian nai badozue bere; zuen Andra Maria Aguirreko Eliza zaarra, Bizkaiko zaarrenetarikoa, barriraztuteko, orma zaar-artean antšinatik kikilduta bizi zan euskerat atotua kanpora atara ta beren tokian bizi izateko erdereka ekarri dozue. Urtean urtean egin bear zendukee egun orretantše aurten egin dozue; baiña orretarako iaurti eikezue itšasora baserritarren abarkak: *Bernardino Colina*-k Santander-aldeetik zurezko zapata *almadreña* deritšenak ekarriko dautsue. Gure aurretikoak euren obitik iagi al balira, lotsatuta egongo litzakez zuen aurrean, erdereka ikasteko aiñ era onik euki ezebelako damuarren.

Plentzia ta Gorliz-ko atsoak: Done edo Santa Ageda-aurregunean iñor euskeraz erestera bai oatzue, *no entender* esanaz, *barquillo*-tšu bana ian eikezue neure izenean.

II

Bergaran (Bergara dan erria izanik) dago Eliza bat, *Santa Mariñakoa*, gaurrate irakastegitik beintzat erderazko berbaldirik egiñ eztana. Iñoiz Obispo edo apezpiku iaunen batek erderaz berba egin nai izan dabenetan, bertako ari-

mazain bene benetako euskalzaleak (1) polito polito irakastegitik barik altaratik bertatik edatsi (2) eragin deitso.

Euskalerriko Eliza guztietan balegoz onen ereduko (3) eliz-gizonak, euskera ederra elitza-ke erri askotan gaur legez kikildurik erdi ilda bizi izango.

Esaten asi-etzkeru garratzak esango neukez... da naikoa da gaurko.

-
- (1) Beren izena pozarren agertuko genduke, bageki.
 - (2) Erderaz *hablar*.
 - (3) *Eredu, edu, erderaz modelo, norma*.

IRUGARRENA

ERIoTZEA TA TŠIRRIST

Bizkaiko itšaserrien artean geienak daukadaz zelanbait aratuta. Bat neukan aspaldion begiz iota, lur-bira guztiko urien artean izenik tšikienekoa, bertan bizi direanentzat bizi eztan erria: *Ea*.

Ea ezta bizi Earrentzat, *ie* baiño. Ezkaizan baiña izenagaitik kezkan asi.

¿Badakizu zelan egoten dan tšakur bat, okerreriaren bat egindakoan, zartea ondorik dabilkonean? Alantše dago *Ea*-ko uritšu au, makur makur edo kukulumušu, mendi biren barrenean, itšasoan muturra dabela.

Amaika ta erdiak etezirean nago bertara eldu nintzanean. Mutil-neskatila-kondo batzuk, alkarri eskuak emonda, bira biraka ebilzan, berba onek eresten:

Esaik bat: gure Jauna bera da bat, berak salbako gaiozak.

Esaik bi: Erromako altarak bi, gure Jauna bera da bat, berak salbako gaiozak.

Esaik iru: iru Trinidadiak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera da bat, berak salbako gaiozak.

Esaik lau: lau Ebanjelistiak lau, iru Trinidadiak iru, Erromako...

Esaik bost: Jesukristoren bost lagak (?) bost, lau Ebanjelistiak lau, iru Trinidadiak iru...

Esaik sei: sei argilerioak (1), Jesukristoren bost lagak bost, lau Ebanjelistiak...

Esaik zazpi: zazpi sakramentuak, sei argilerioak, Jesukristoren...

Esaik zortzi: zortzirik dira zeruan, zazpi sakramentuak...

Esaik bederatzi: bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira...

Esaik amar: amar mandamentuak (?), bederatzi...

Esaik amaika: amaika mila aingeruak, amar mandamentuak...

Esaik amabi: amabi apostoluak, amaika mila aingeruak...

Esaten da atso-aguraak, bein goialde batera eldutakoan, umetu egiten direala. Gure irakurleak atso-aguratu ta bigarrenenez umetu daitezaneke eresia bera argiratu nai neuke; ta zuk, EUSKALZALE, baderitšazu, argitaratu ziñaike edo urrengo geian edo bestean. Gauzarik asko baiño naiago neuke, okotza ta surra ia alkar ioten daukezan atso-aguraak, alkarri eskuak emonda, bira ta bira eresten ikusi.



Esaik	bat	gure	Jauna	be-ra	da
—	bi	Erro	- mako	al - ta	- rak
—	iru	iru	Trini	- da - di	- ak
—	lau	lau	E - ban	- je - lis	- te - ak
—	bost	Je -	sukristoren	bost	lagak
—	sei	sei	ar - pi -	le - ri - u	
—	zazpi	zazpi	sa - kra -	men - tu	
—	zortzi	zortzirik	dira	ze - ru	
—	bederatzi	bederatzi	ordenamentu		
—	amar	amar	manda -	mentu -	
—	amaika	amaika	mila	aín - geru	
—	amabi	amabi	apos -	to - lu	

(1) ¿Sei izarrak etedira?



bat be - rak sal-ba-ko ga-jo - zak
 bi
 iru
 lau
 bost
 sei
 ak
 an
 ak
 ak
 ak
 ak.

Umeak *esai*k *amabi* esaeran, Eriotzea ikusi neban neska-mutiltšuai begira.

—¿Zer dok? ¿Aragi-gosea?

—Kaisio, Tširrist. ¿Emetik e?

—Bai, iñoiz gaurrate etšoat Ea ikusi ta...

—Zer-ikusi andirik etšaukak; baiña nai badok, laster erakutsiko dauadaz emeko zurkulo-okoiluok.

—¿Ze aizek ekarri au ona?

—¿Aizea diñok? ¿Zeren bila nabilela esango cuke?

—Erroska-bila ezaz etorri izango; bada ezta oraĩndiño eldu «erroska ederrak emeeeen» esateko aldia. ¿Agura-bila etorri az?

—¿Agurea diñok? Ezin iñor il ioat aurtan: ez atsorik, ez agurarik. Ardao-zaleegiren bat, berez ilten danen bat izan ezik, aurtan iñoizko gitšien.

—Atso-agurarik il ezin dauanean, umerik eztok il al izango bada.

—Enabil bizi biā.

—¿Zeren biā abil bada? ¿Eure biā? ¿Burua galdu aldok?

—Negua ezin aurkitu ioat iñun. ¿Ik ikusi dok?

—¿Asto madaria! ¿Eztakik ez neguak oztu edo oztitu, ez udeak berotu, ez suak erre, ez ezek ezer ezin egin daustala? ¿Zetarako ioat nik negua non dagoan iakitea?

—Neu be enaiok neguak otzitzen, baiña negu barik eztakit zelan bizi izango nintzatekean. Gorbea, Oiz, Aizkorri, Pagasarri, Soñube, Izarraiz, Ernio, Aloña, Urbasa ta beste mendi askotan izan nok; itandu iauteset lagun batzuri non etedagoan negua; ta eztakiela, eztabela ikusi. Goietan ikusi eztodanean, beietara etortea buruak emon iaustak ¿eta badakik zer ikusi dodan? Atsoak maitšu baten briskan iñuntserarte ekinēan, udako iai-egunetan legez; aguraak, surrak garbi dindirri barik dabezala; tšoriak, abia-giñen asi nairik; sakristauak, *Requiem*-eko Mezarik eztaukelako, deskeiā; ta, zer egin eztakiela, mendirik mendi erbitan. ¿Barre egiten dok, barre?

—¿Egingo etsoat bada? Gauza polita izaten da, azurra ta azala baiño eztauken zaldi zaar goseak erdi-ñak, andikien zaldi mardo ondo asiak legez, besaka ta buruari gora ta bera eragiten ikustea. Gauza polita izaten da enara edo

elaiak, katua teĩlatu-zokondoan makur maku-
rrik erdi-ostuta ikusi ta gero, ikusi ezpaileben,
beren ondoan *ki-ki ki-ki* barre egiñaz olgetan
edo iolasean ikustea. Gauza polita izaten da,
errotari batek zokondoren baten asto-piĩoa itši
ta mutikoren bat asto-ganean dabiĩela, astoak,
atzeko anakak iasotakoan, mutiĩa musturrez au-
rrera iaurtita, barre-arrantzaka ikustea. ¿Baiña
eriotzea negarrez ikustea baiño izaki edo gauza
politagorik?

—Gero... gero...

—Otz eztana bero.

—Amak erakutsiko dauzak orain uri onetako
zurkulu-zokondo-baster-okoĩluok.

—Ezeik erakutsi nai ezpadok. Orregaitiño
bere esango daustak nortzuk izan zirean ik Gor-
bean, Aizkorrin da beste mendi orretan aurki-
turiko lagunak.

—Gosea, egarria ta naibagea.

—¿Eure seme-alabaak eztozak orrek?

—Neba-arrebaak gara: neu zaarrena. Paraisu-
ko sagarra genduan Ama.

—¿Da zer ziñoen?

—Etzirean berba-gura. Erdi-ĩlik egozan iru-
rak, zer egiñ ezekiela ta neguan nun ebiĩen ia-
kin-gurarik.

—¿Zelan bizi al leikez eurak?

—¿Arek? Eu ta neu legetsez: i zer-iakin da
zer-esan eztaukaanean, ezaz bizi izango: ni bere
ez, nor il eztaukadanean; gosea ta egarria ta

naibagea bere inor gosetu ta egarritu ta naibagetuaz bizi dira. I neuk iliko gertaeretan bizi az; gosea ta egarría urdailetan, biotzetan naibagea, ni edonun: neu naz munduko Errege.

—¡Asko esan!

—Ezta gitši, baiña guztia da egia.

—¿Egia izan? ¿Zelan da bada, eu munduko Errege izan, da negua menderatu ezinik ibiltea?

—Kirten ori ¿zelan izan leike bada, eu izan barri edo albista guztien Errege ta negua nun dabilen ez iakitea?

—¿Nok esan dau eztakidala? Esango dauat, mesede bat egiten badaustak.

—Egin daikedana, neure buruaren kalte andi barik egin daikedana izanezkero, aoa neurri izango dok.

—Euskera ederra ez euk iltea: auše nai dot.

—Neu baiño aurrerago iaioa dala esaten dabelako bere, neu ilarte il barik itsiko neuke nik, neure eskuan balego.

—¿Noren eskuan iagok bada, eurean izan ezik?

—Zeuen eskuetan. Euskeraz egiten dan uri ta baserri guztietara oa eu, Tširrist; iakik zeintzuetan dagozan euskeraz irakasten eztan eskolak.

—Guztiak dira...

—Isilik, zaarragoa bertetan dagoanean ezta berbarik egin bear-da. Iakik ganera zeintzuetan dagozan euskeraz eztakien *medikuak*; eta erde-

raz euren berbaldiak egiten dabezan elizgizonak.

—¿Da? ¿Naikoa da nik iakitea?

—Gero eskoletara astoak eroakezuez, erderaz arrantza egiten ikasi daien; *medikuai* osagarritzat *dieta* edo dirurik eza emongo dautsezue.

—¿Ta elizgizonai?

—¿Elizgizonai? *Monja ala Fraile* esanda, umeak lora zuri zuri zuri bat putz egiñaz burus-tuten daben antzera, erderaz berba bat aotik urten daioeneko, uts utsik gelditu daiteala Elizea.

Ta gero Sagastak, curakandik artu dabezan mesedeen orde, Albarrazin edo Barbastro edo beste onen antzeko baso-*katedralen* batera daroazala *kanonigo* izatera.

—¿Agur bada?

—¿Zelako agur? Esaik orain euk nun dagoan negua?

.....

Euskalzale, itandu edo galdetu zeure irakurleai nun dagoan negua; bestela eriotzeak il bear einau.

LAUGARRENA

SANTA AGEDAREN KANTARIAK

¡¡Negua!! Ezin esan leike igaitik, askogaitik esan daroaguna: «Bein ioango Elizara ta bertan iperdiz altarara.» Nekez agertu akigu, baiña nor azan iñok esan barik edonok igarri dau: laster gero.

Esan leike len galduriko egunak egun gitšitan bete nai dauazala.

Í onen laugarren eguerdia gau-aldera makurturik egoan, niri gogamen onek otu edo bururatu (bururik baneuko) iatazala, Bilbon nenbiñen batera ta bestera zer egin enekiala. Deustu-alderantz niñoiala itšas-tšori lepo-zuri zuri batzuk ebilzan aidean, zein da aizeak gora ta bera lurrera iausten itši nai eztautsela erabilten dabezan edur-matasen gizan. ¿Zetan etedabilz orrek? esanda, eurakana igon neban. Banenbiñen... banenbiñen... ez tšit bat entzun ez ezer eneutsen sumau. ¿Zelan ibilten dira, andiki eta andikitzakoen umeak bateatuta gero, dirua parra parra kaleetan sakristauak zabaldu ta ereiten dabenean, zelan ibilten dira umeak beera begira, paper-zatia

bere eskua, zidarra dalakoan, zabalduen dau-
tsela?

Alantše ebilzan itšas-tšoriak ibaira begira:
beste zer-egin barik. Gogaitu nebanean, albo-
kera begiratuta «agur, itšas-tšoriak: zuen arteko
andiena ta ikusgarriena baiño naiago dot geure
sasi-arteko tšepetša izan.» Orduantše bere
ezeusten tšit bat egin.

Salvea deritšon bide-ukondo baten lurreratu
nintzaneko, tšimista-burdi edo *tranvia eléctrico*
bat etorren Bilborantz.

Begiratu neban barrura ta bost edo sei gizon
gorri pipeari pauta pauta kea ataraten ikusi ne-
bazan; euren ondoan alargun-antzeko emakume
baltzez iantziriko bat, iru edo lau ume aulki-ga-
nean belauniko egozala, *kristalak* eskuaz kan-
poko aldea ikusteko igozten.

Ingelesakaitik (ingelesak zirean pipa-artzai-
lak) ezeustan ardurarik, bada nai aretariko gi-
zon bat zazpi bidar ikusi, nai zazpi bein ikusi,
bardin-samar da nire ustez.

Iarraitu neutsen emakuma ta iru umetšuai.
Biltoki edo *Teatro*-aurrean mando-burtzain ba-
tegaz iru edo lau berba eginda, sartu zirean
laurak burdi baten barruan: eurakaz neu bere.

Eztaukatsut zeri esan ordu beteko bidean zer
egin genduan; orregaitiño iakiteko gogo andia
badozu, esango deutsut: ibili.

Etšebarri deritšon baserritšu polit batera eldu
giñean. Alako tokietan erloio edo orduaririk

euki ezarren, bertakoak egunaz eguzkiaren geriza edo itzalean, gauaz izarretan igarten eidabe ordua. Izarrak odai-artean beti estalduta egonarren, da eguzkia itšaso-barruan mustuger edo murgilean igeri balebil bere, nik ze ordu dan gizakumeen arpegian igarten dot. «Ama, ogia nai dot», esan eutsan emakumeari ume bat. Nik neure artean «bostak-inguru aldira.»

Mando-burdia gelditu zanean amalau edo amabost mutilkote ikusi nebazan santzoka ta irrintzaka ta tšalak legez akitika edo *brinkoka* ebilzala. Eurak ikuseran nire lagun emakumeak Etšebarriko ume tšikitšu bati itandu eutsan:

¿Nortzuk dira orrek?

—Santa Agedaren kantariak.

¿Nire poza aren atzean ibilteko!

Etšebarri zelako erria dan iakiteko eztabe, EUSKALZALE, zure irakurleak arazo andirik artu bear. *Eskolatik* urtenda iolasean dabilzan umeren bati *planea* eskatu daiola. ¿Zeiñ umek eztau egiten, Amari emoniko gorantzien artean, edo lanak zelako onak dakazan iratsita gero, zeinek eztau beren modura antzeratuten itšasontzi bat, maisuaren irudia, edo erri bat? Umeak paperean egiñiko erriaren antzera egiñikoa dirudi Begoña-ondoko Etšebarri deritšon erri oskoltšu onek.

Alargunaren atzetik Eliz-ondoko etše batera sartu nintzan. Eneban egiñiko alegiñakaitik iakin zelan eban alargun ak izena. Umeak «Ama»

esaten eutsen: etšeko atso batek «ene alaba-tšua», otseiñak «Andrea», etšeko ugazaba zirudianak «zu.»

Alarguna, oi direan agurrak eginda, eguraldia-gaitik gogor-samarra zala esandakoan, asi zan tšarto esaten uri andien ondoko baserritarraitik. Uriko gizonen okerreri guztiak daukezala ta baserritarren onbiderik edo *birtuterik* barriz gitši. Zoro-antzera iluntzean akitika ta arrantzaka dabilzan gazteak biar edo etzi gurasotu daitezanean, zelan asi leikeezan euren seme-alabaak...

Emakumea zan, ordu bi edo irutan isilik egonikoa. Naikoa da au ez aaztutea, irakurleak igarri daien zeinbat berba urten eben gau atan alargun aren aotik.

Etšeko iauna asi iakon esaten gazte arek etzireala aingeruak, lurrean aingerurik eztala bizi-ta; baiña zoro-antza eukiarren, edozein bai-zen benak edo *serioak* zireala. Santa Ageda-aurre-eguna zalako ebilzala alanik.

Adiskidea: euskera tšarragoan berba egiten eben arek; baiña nik egin gura neuke entzuten dodanagaz, baserritarrek lurretik ataratako azakipula ta osterantzeko ortuaria edo eltzekaria-kaz egiten dabena: loia kendu ta bialdu.

Ugazabak otseiña bialdu eban mutilakana: onek orduan bat aurrean ebela (amar zirean guztitara), etše atakoše atarira ioan zirean, da aurrekoak asi ta besteak bigarrenez esaten ebe-

zan, soñu ta guzti, bertso edo neurtitz onek.
Entzuniko eran esango dautsudaz; neuk asma-
uak direala iñok esan eztaian.

Etšekotšua**k** badakizue
noz dekogun Santa Ageda:
Lege zaarreko *usadioan*
kantuan gatoz atera.
Martirioak esplikatze**ko**
lizentziarik eteca.

Errespuestarik eztegu eta
kanta, mutilak, aurrera,
Sentimenturik izaterikan
emen eztegu *espera*.

Zeruetara begiak *altza*
grazia eskatutze**ko**.
Santa Agedak zer *pasau* zuan
danei *esplikatze**ko***.
Prinsipioak onak zituen
lenda bizitza asteko
Martirioko *pena tristeak*
zegoan ikusitze**ko**.
Gobernadore Palermokoak
Aginpidea bazuan
Santa Ageda ain zan ederra
bere andratzat nai zuan:
Gizon andia izanagatik
ori *logratu* etzuan.
Lendabiziko *nobedadeak*
argatik izan zituan.
Soldaduai agindu zion
*plazan azotatutze**ko***;
fedea mudau nai ezpazuan
bularrak ebakitze**ko**.
Sententsi ona emen zioten
biotza aiegratze**ko**,
oiek guztiak eginta gero
kalabozuan sartze**ko**.

Onetan isildu zirean mutilok eta etšeko iau-
nak esan eutsan alargunari: zu, zuk esan dozu

onekaitik bata ta bestea, baia onek kantauriko bertsoak Elizan kanta leikez.»

Amaituko ebenen antza artu ebanean, mandatutšu bat bialdu eutsen kantariai ta onek edu onetan iarraitu eben:

Negargarrizko *tristureakin*
bularrak oso kendurik,
kalabozora eraman zuten
sila batean arturik.
Ezin zeunkean iñola bizi
izan ezpaleu grazirik:
zeiñek ikusi etedu bada
milagro andiagorik.
Andik urrengo egun-sentian
joan ziran *bisitatzera*,
bizirikan topatutzerik
etzuen bada *espera*.
Santa Ageda sendaturikan
ekarri zuten aurrera:
milagro aura ikusiagatik
beti zaukaten kolera.
Gobernadore traidore orrek
sententzia du ematen
plazan iltera eramateko
ezpaleu bazan *mudatsen*.
Santa Agedak erantzun zuen
enaiz bat ere bildurtzen
zuen idolo dotriña *falso*
etzait neroni *gustatsen*.
Eriotzara eraman zuten
eurak nai eben moduan;
penea franko pasatugatik
Ageda *firme* zegoan.
Eriotzako ordu-sentian
Jesusi oska zegoan,
orain *gloria gozatsen* dago
Aingeruakin zeruan.

Ea ba orain etšekotšuak
kantatu dogu bizitza,
borondaterik baldin badago,
limosna-bila gabiltza.

Santa Agedaren bizitzea kantariai entzueran, emakuma eldu-barriak esan eban:

Eneban siñiztuko, neuk entzun ezpaneu, *perdulariotzat* neukazan-mutilkote orrek ain gauza ederrak esaten ebezala.

—;Zer uste dozu bada, ene Andrea? Beste bati esan daiozun bere esan bear dautsut zelako ekandu edo oitura ederra dan Santa Agedaren aurre-eguneko oitura zaar au.

Īuntsean, *aremaidakoak* ots egiten dabenetik arimena io-arte, Eliz-tšiliñak *dinbi danba* ots egiten dabe. Tšilin-danbadak io dabezanak ardao ugari ta bost makur edo peseta izaten dabez erriaren kontura. Tšilin-otsak amaituta gero asten dira eskea batzen, oraintše dakutsun eran. Lenengo abadearen etsean ots egiten dabe, gero Alkatearenean, gero urren danetan. Al dabena al dabena emoten dau: arrautza-lukainkak, dirua... Dirua naien izaten dabe. Auskarik edo burrukarik izan eztaitean, Alkateak batzuri baiño eztautse baimenik emoten; baiña aldra onetan bat eginda ioaten dira bitzuk edo irutzuk, baimen-biña ioanikoak. Gaberdi-inguruan banatuten dira lotara.

Aratuste-aurreko Domekan (*Kanpo-martšo*-ko Domekea esaten iako) goizeko zazpi-zortziretan Santa Agedaren altaran, edo beiñik beiñ Santa Agedaren irudia agirian dala, Meža bat euren izenean aginduten dabe mutil kantariok; eta diru-enparauaz arratsaldean askari edo laureta-

ko eder bat egiten dabe, baturiko arrautza-lukainka guztiak, bat saldu barik, iaten dabez, bildotsa edo artšoa ta *tostada* ta guzti; ta kitu urrengo urterarte. Baiña jara! asi dira oster bere.

Keriza tšiki betea
Aurten da sure urtea:
 Orain emendi kantauko dogu
 Etšeko Iaunen koplea,
 Etše onetako ugazaba iaunak
 Urregorritzko bizarra,
 Urregorritzko bizarra eta
 Azur da mamin ezpada.
 Etšerik eta Elizaraiño
 Erreal bikoiz kaltzada,
 Erreal bikoiz kaltzada eta
Peseta berriz plazara.
 Aien gaiñetik etšeko iauna
 Ibilten da Mezatara.

Legekoak badira ta zu emen zagozana bada-
 kie, zeuretzat izango da urrengoa.

Arantza-baltzak orria tšiki
puntarantz dauko lorea.
 Etšeko andra *noblearentzat*
 orain eldu da *suerte*a.
 Bera *notadu* bear da lenengo
 alargun bedeinkatea:
 begiratuta bere etšean
 dirudi erregiñea.
 Berriz bidean dabilenean
ziertu soberanea:
 Santa Agedak gorde daiola
 gaur daukan *ermosurca*.

Ori bai, esan eban etšeko iaunak. Onek biz-
 kaitar edo gipuzkoar da erdera, guztia nastau-
 rik, egiten dabe; baiña biotz onagaz.

Ortše goian errota
Urna ongi ciota.

Etše onetako etšeko Andrea
 Santa Agedaren *debota*.
 Santa Agedaren *debotatšurik*
 bein bere ezta galtzien
 bir miła Aingeruk laguntzen dio
 bera dan leku guztien.

Badoaz, esan eban etšeko andreak, aotik adurra edo lerdea eriola. Eztauke bada gizagai-sook eguraldi galant galanta. Aor ba Etšebarri-tik bere zer edo zer badaroazu esakizuntzat.

Emakuma alargunak gitšienez zortzi bidar esan eban gau atan «eneban uste.»

Kantariak alde egindakoa, umeak loak artu ebazan, oera-bidea artu eben besteak bere ta ni kantarien atzetik amabi ta erdiak-ingururarte ibili nintzan. Euria zan da ezeukan mutil-al-dreak gogo andi andirik. Eneutsen entzuniko gauza guztien artean auše baiño beste esateko-rik entzun:

Zaldi eder bat ekarri diot
 Kanpoti etšeko iaunari:
 orrenbesteko erregalu bat
 ezteutsat egin iñori.
 Aren gaiñean jartzen danean
 bere ezpatea artuta
 denpora asko *pasatu* bagarik
 dago Madrilen sartuta.

Adiskidea ¿zer etedauko zer-ikusi Santa Agedak Madrilen zaldun ezpataduna sartuteagaz?

Vascofillok erantzun bei, badaki.

BOSKARRENA

TOLOSA-INGURUAN

¡Au dek au! ¡Gipuzkoara ere noizbait joan bear dedala, ta biderik gutsi baizik jakiñ ez! EUSKALZALE: zuri zor dizudan adiskidetasunak narama. Itsu itsuan noa: muturrik austeko bildurrik eztet: baiñan gero nere ibilerak gipuzkoarren gogokoak ezpaldin badira, zurea izango da errua, ez nere.

Onlako gauza bat esanta, irudipena ibili oi dan bezin pizkor, *sapla* Anbotora, *sapla* Aizkorrira, *sapla* Aloñara, *sapla* Izarraitz-a, ta *ssssapla* Usturre deritzaion mendi-erpiñera iritshi edo eldu nintzan joan dan astelen-ñuntsean. Euri-laiño-artean zeuden Amasa (gaitzizenez *Villabona*), Irura, Andoain (au enuen ekusten, eztakit gaba zetorrelako, ala mendiren bat aurrean duelako otezan), Ermani-ko zerbait agerizan, baita Easo edo Madriltarren *la bella San Sebastian* ere ageri ez baiñan erdi lotan zegoela esango nuen.

Izan lezake, zuk, adiskidea, neri esatea. ¿Zelan izan leike iñoiz egon bako leku orrek ain zuzen, ain ziurtasun andiagaz ik ezaututea?

—¿Nola izan lezakean nik ezautzea zein ziran

ango errien izenak? Atoz nerekin... baiño ez etorri: astun-samarra zauden-etzkeru, nik esango dizut zer egin nuen gau artan.

Santa Luzia izena duen etše-mordoška edo baiłara bat (emen baiłara esaten zaio zuen auzotegiari) dago Usturre-bizkarrean; eguna gautu zanean joan nintzan bertara. Atez ate ari nintzan non sartu enekiala. Egunez izan lezake bizitoki aiek berdiñak ez izatea, gabez beintzat berdiñak ziruditen. Enuen beste gauzik nabaitzen arran-otsa, arkumeen beeak, eta idien orruak edo murrusak baizik.

Nonbait sartu bear nuen, ta, iñori deusik esan gabe, aizea bezela tširrikitu batetik barrendu nintzan. Etše artan argitan nik jakitan beste *gastatzen* oteduten nago: arditik ere ez. Baiñan zuk ondo dakizu ni nolakoa naizen: neretzat itzala ta argia berdiñak dirade, gaua ta eguna laranja baten bi erdiak bezelakošeak. Begirik gabe ekusten degunak eztegu bear krisaiłurik, ez tšimiztargirik, ez bestelako argitasunik.

Sukaldean otabarrak oso itzali-gabeak zeuden tšoko batean, sutondoan zakur bat burukotea bezelaše biribildua. (Burukotea esaten zaio emen zuen zorkiari). Gora igo nintzan gero ta lenbiziko gela batean ekusi nuen oeraturik lotan irurogei urtetik gorako agure tšimel sudur-luze bat. Zerbait jakiteko asmoz putz egin nion eskerreko saietzean, eta berealaše asi zan ametsetan, esanez:

«A, potšo ¿eztekala jango? ¿Ta nola gizenduko aiz?»

—PeiĻo Josepe ¿zurrut bat artuko aldegu?

—Motil: ni enak PeiĻo Jošepe, Iñišio Mari baizik.

—Irekin ziarduat. Eđan zak ardo tšurrut au. Tšortšik ere lanik asko edari ederragorikan daukan.

—¡Bapo! Baita ederra dala. ¿*Botoa* nai aldeak? ¿Zeiñen aldekoa aiz? ¿Belarri-motšarena?

—Botorik eztet nik nai baiñan nai baldin banu ¿zeiñi emango inioke ik?

—¿Ori ere esan? Maisterrak geranak beso-motšak bezela gaude. ¿Ezaldek iñoiz ekusi erriz erri, non erromeria ta an anka, beso-motš bat emaztearekin, emazteak biltzen dituen ardit guziak senar beso-motšari sakelean sartzen diozkala?

Guri ere belarri-motš oien aldeko norbaitek sakelean sartzen digu botoa.

—¿Ta nork ateratzen dizute?

—Etše-jabeak, nausiak. Boto-biĻa etorri baaiz, ardoagatik eskerrak; baiñan nere nausiarengana jo bearko dek.

—Badakik nor dan Ebroren beste alde artatik etorri zaigun Diputaugaia?

—¿Neri ze ajola zait orlako gauzkatik? Legortea danean, euririk ezin ekarri dutela; ezurteetan, gure mandio ta ganbarak utsak daude-nean, ezta iñor etortzen betetzera; ardiak iltzen bazaizkigu, *or konpon* esaten digute.

—¿Ezaldeak entzun Tobar edo Tobor orren izenik? ¿Zibilizatu-gabeak gerala esan duen mutur-beltz, belarri-motš oien izenik?

—¿Guardia *sibilak*? Geiegi ere badira bai. Alperkerian or dabilta batetik bestera, zer egin eztakitela. Lapurrak arrapatzeko sortuak omen dira. Gure artean otsoak eta aizeriak dirade lapur bakarrak; eta aizeri ta otsoak arrapatzeko naiago det nik nere *Pinto*, ik esan dekan *Tobor* edo ori ta berorren erri-aldeko guziak baiño ere.»

Agurrik ere egin gabe, ez esnatzearren, baiñan ain gizon osoak oraindik daudelako pozez, Tolosa-rako bidea artu nuen.

SEIGARRENA

AITONA TA AMANDRE

Damuturik nago, adiskidea, Tolosara ain egun tšarretan etorria. ¿Eta nora joango nintzan, emen ekusi ditudan gauz gorrotagarri oiek ez ekusteko? Egund auetan edozein baserri kaskarretan ekusi izango dira ardantegiak beteta, sorroak utsik, senideak asarrez, erritarrak, beti elkarren lagun izan bear lukenak, zakurra ta katua bezela elkarri gaitz egiteko amurraturik.

Enuen nik egund auetan ez inora joateko ez ezertšo ere ekusteko gogorik.

Atzenengo larunbatean (zuek eta Gipuzkoar goitarrak *sapatua* esaten diozute emengo larunbatari) Donostia ekusi bear nuela ta goazemak (1) esanta *Estasio* edo Gelunera, inortšo lagunik izango enuelako arduratan joan nintzan.

Luzarošeago Tolosan egund banintza, enuen arrapatu al izango su-gurdia, Gelunean beintzat. Zerbait esan zuen an batera ta bestera zebilēn gizon batek: nik enion ezer aditu, euskeraz etzalako; baiño aurre-aldean aditu bear izan zioten,

(1) *Goazen* esan nai du.

ze berealaše asi zan su-gurdia tšiztuka ta puzka ta korrika.

Gurdi baten zijoazten iru apaiz. Beste baten, emendikan berreun *legua* bidean jaiotako senar-emazte iduriko batzuek.

Beste batean gure edo zuen Erri ontako Aiton bat eta antziña gazte izandako emakume mutur-zorrotz bat.

Kardantšiluak kardantšilua erakartzen duen bezela, ni ere Aitonak erakarrita gurdi artantše sartu nintzan. Puzkatšo bat lenago egin banu orduan egin naena, nere barrena pozago ta Tširristada au beteago izango ziran. Zuek esan oi dezuten bezela, erdiz erdizean zeuden biak beren jolas edo itzaldian, ni berarenganatu nintzanean.

Ona nik entzundako itzak:

«Esan nion nik orduantše ere: lenbizi eman-zazu dirua ta gero neronek egingo det eskeiñi dizudana.»

Nik nere artean. ¿Nori esan dizkio itz oiek? ¿Zer da eskeiñi duena? ¿Zeren aldez?

«¿Nork *pagatuko* dizkit Donostitik irten-ekeroztik egin ditudan *kastuak*? Iru egun auetan iñoren lepotik izango dala-ta, ardo tšuria goizean opil-puzka batekin; bazkaritan aragia, barrenak artu ezindako beste; *kafea* ere ez nolainai-koa, *puroak* berriz bat itzali ta bestea piztu, bat lurrera ta beste bat ezpaiñera. Au *gerra* baldin bada, *pakerik* eztezatela ekarri.

Ta atzenean ¿badakizu zer esan didaten? Di-putau-gaiak eztuela dirurik emango ta jan due-nak *pagatu* dezala jana »

Len baiño geišeago aditzen nuen.

Emakumeak Aitonari esan zion gero:

«¿Eta zergatik eztezu dirua lenagotik eskatu?

—¿Eztizut esan, ordea? Nik eskatu nuen, bai-ño ark eman nai ez; ta kito.»

—¿Eta zuk *botoa* eman dezu?

—¿*Botoa* eman? Aita Santuak esango bale-
kit Donostitik berriz Tolosara etorri ta emate-
ko, emango nuke; bestela...

— ¡Ja, jai! Zaude pozikan, laister izango de-
zu-ta.»

Au esanaz, Aitonak pipa atera ta zuk daki-
zuzan gauzak egin zituen, kea ateraten asi-or-
duko.

Gerošeago emakumeak farra egiten zuelarik,
galdetu zion Aitonari, esanaz:

«Aizazu ¿zertarako ematen dute gaur egune-
ko *Diputau* oiek ainbeste diru?

—Amandre: nik ere maiz galdetu izan det
au, ta iñortšok ere eztit erantzun nere gogora.

—Batzuek diote *ezen* Madrilko ministroen
etšean noiznai sartzeagatik dirua emen zabal-
tzen dutela.

—Neronek nuen alaba ministro izandako ba-
ten etšean; baiño ark etzuen dirurik eman mi-
nistro-etšean sartzeagatik, artu bai sei *duro*
iñean eta gaiñera gaiñerakoak.

—Beste batzuek diote ezen Madrilera ibiltzea asko *gustatzen* zaiela ta argatik ematen duela dirua.

—Ori ere esan? Ori uste duenak eztu *bolbora* asmatu. Neroni ere Madrilēn izandu nintzan oraintše lau urte San Isidroetan alaba ekustera; baiño bost *duro* besterik enituen *poltsatik* atera, sartu berriz amabi, alabak emanak.

—Beste batzuek berriz (eta neronek ere bai) uste dute ezen garia ezala soroetan alferrikan ereiña izaten, geiago biltzeko baizik; eta Diputau oriek ere dirua ereiten dutenean, dirua geiago biltzea uste izango dutela.

—Orišen dezu, Amandre, *botazio* oietako *Ebanjelioa*. Nik eztet nere egunetan asko ikasi, liburuetan beñipiñ; ekusi asko egin det; eta asko ekusiak zerbait erakasten du. Gaur Diputau izan nai duten geien geienak dute beren etšean zer galdu edo zer irabazi: ikatza dala, burnia dala, meak edo *miñak* dirala, *frabikak* edo beste zerbait. Ikatza ugari baldin badu, an dabilta Madrilko baster ilun artan nola ikatzari gora igo-eraziko: eta berdin gertatzen da burnia ta mea ta *frabika* ta beste edozein gauzarekin ere.

—Ori ere *Ebanjelioa* bezela da.

—Ta dirua ematera datoztenean, asko poz-tutzen dirade j̄gizagajoak!! ¿Zer egiten zaio arraiari amuan arrapatzeko? *Karnata* edo amuzkia erakutsi ta gero *sapla* arraia etšera.

— Baiñan ¿zer nai dezu egin dezaten nekazariak, dirua begien aurrean ipintzen dietenean, ¿zuri ipiñi dizuten bezela?

—¿Zer egin bear luketen? Nik egin eztetana, baiñon egin bear nuena: makiñla bat artu ta bizkarra ederki berotu.

—¡Ui!

—Au *Ebanjelioa* ezpada, *Epistola* izango da.»

Au esandakoan, Donostiko emakuma ark farra gogotik egin zuen, Aitonak berriz pipa, ezer esan ezpalu bezela, *pauta pauta* artu.

ZAZPIGARRENA

ZAPATU-GUREN EGUNA

Aspaldit̄suon Gipuzkoa-aldean nenbīlela Bilborako gogo andia neukan, EUSKALZALE zelan bizi dan, Garizuma onetan euspenez loditu ala argaldu etedan, aurrerantzerako gaur-arteko adorerik etedaukan iakin nairik.

Eldu nintzaneko asi nintzan zazpi kaleak aratu edo arakatuten: lengo tokian egozan guztiak. Goienkale, izenak berak dirauskunez, goienean; Barrenkale, barrenean; Artekale, euren artean. Guztietan ikusi nebazan arpegi larriak, guztietan sumau neban arrain-sunda edo usaiña. Baru-saru (edo euskera t̄sarreko *bijilia*)-eguna zana iakiteko etzan besterik bear.

Baterik bestera arrain-sundaturik nenbīlela gzer gogoratu iatala esango zenduke? Goialdeko it̄sasuetan makail̄orik ezpalego, edo Eliza Amak zuen errukiarren, baru-saruak ulduta, aragi edo okelea iaten laketu edo it̄siko leuskezuela, edo etzendukeezala iru aste santu bizirik iraungo: bat edo bestea.

Eguasten-guren edo Gipuzkoako asteazken santu-eguna zan ni Bilboratu nintzan eguna. El-

du zirean beste aste guztietan legez banan da alkarren atzean eguena, bariku edo egubakotša ta zapatua. Eztakit iñoiz entzun izan dozun e-gun onei Bizkaiko toki askotan, batez bere Arratia ta Tšorierrin, ezarten dautsen goitizena: astelen guren, martitzen guren...

¿Guren au zer da? Vascofillok, baldin badaki ta esan nai badau, adierazo daigula. Latiñez, baneki, egingo neuskeo Vascofillori eskari au. Zeuk biurtuizuz latiñerderara nire berbak; eta nire eskariak direalako ezarren, latiñez egiñak direalako biotza samurtu ta eskua zirikatuko dautsaz zure adiskide gibel ederdunari. (1)

Eguen-barikuetan eliz-inguru edo birada edo *prozesiñoiak* baserrietan legéz emen bere izan dira. Aretan baiño emen lagun geiago ta one-razpen edo *deboziñoa* gitšiago: eztago esan-bearrik.

Zapatu-goizean Aretza edo *Arenala* deritšon tokira eldu nintzan goiz-erdian, edo obeto esateko goiz-beranduan; bada amaikak iausteko egozan Done-Nikolas-Elizako orduarian, ni eldueran.

Zeu bere, adiskidea, beste edozein legez ume izanikoa zara; ta umetan umekeriak egitea, astoak astakeriak egitea baizen bererakoa izaten

(1) Gauza erraza litzake, Tširrist, berbatšu orrek latiñeratutea; baiña aste santu-aurrean Aizkorri-mendian iausiriko edur-inatasea legez artuko neukez orren ordez Vascofilloren latinkadak. ¡Ona dok bera! Oba da baken.

da, ta alako eztizko egun doatsuen baten, kaltzatzetik makaiñua ta surretatik muskiña dingilizka erabilten zenduzanean, bein edo bein iaso izango zenduan bedartzaren baten arri andiren bat lurretik, eta iasoeraren baten zetzenduzan inurriak arri-azpian ikusi, iges nai ta iges egin-eziñik, alkarri galerazoten eutselako? Onelantše ebilzan Bilboko *Arenalean* gizon da andrazko, ume ta umekondo, atso ta agura, euskaldun da erdaldun, saltzaiñe ta erosle ta ikusletan nik ezin esan-ala.

Gipuzkoarren *berriya*, Markiñarren *jango juagu*, Tšorierritarren *oa* ta *ea* (erdaldunen esakerarik eztaidan aitatu) zugazti baten tšepetš, tšio, biregarro ta urretšindor edo *ruiseñor*-en tšioak batera entzuten direan atzera nentzuzan nik euskerazko esakera politak.

Euren artean mutil zaar-antzeko bat ebiñen, pekaztoa (1) bera, soiñeko koipeztoduna, gari-tzetako tšori-malo edo tšori-iagolaak eukiten daben lakoše kapela zaar bat buruan ebala. «Onek eta nik erosiko dogun okela edo aragiaz baru-saru egin leike», esanaz, beren atzetik asi nintzan ibilten.

Eldu zan nire lagun mutil zaar au Tšorierrin iaioa zirudian atso polit bategana ta oiño batzuri bularretik oratuaz «gonek zegan?» itandu eutsen.

(1) Erderaz *pecoso*.

—Orrez, laurok artzera, iru ogerleko ta erdi. Banan banan ogerleko bana: lauziri bere ez merkeago.

—Botaziñora etorririko Alkateren batek izan ezik-i...

—¿Zer? ¿Karu dala uste aldozu? ¿E?

—Ezteutsu bestek erosiko.»

—Arantzago ioanda, urdei-azpiko edo *pernil* bati begiratuaz. «¿Ori zegan?» esan eban.

—¿Au? Libraka artzera bost erreal librako, danau artzera barriz lau ta erdiñan; amairu libra daukaz da orra nun direan amairu lauko batetik eta amauri erdi bestetik: berrogeta amazortzi erreal da erdi. Erdi ori koipetarako izan daizula.

—Karu baizen gozoa bada...

—¿Zer dakazu zeuk? Giarra utsa da, guri guria, mamiñ utsa; gozoagorik eztozu aurkituko azoka guztian.

—Azur andiše dauko orrek, gauza ona izateko.

—¿Azur andia! Zeuk zareantšu orrek bere badaukazu mokorrean au lango irukoa, tšikia dala.»

Au entzueran, nire lagunak, barrezka zigarrondo amatauari pauta pauta tiratuaz, eskerre-rantz egiñ eban.

—«¿Zegan dozu urdei ori?»

—¿Au? Diruak eta berban.

—Esaizu zeinbategan salduko dozun.

—Zeuk esaidazu erosiko dozun, da esango iatzu onen balioa. Badakit nik zu nor zarean, ondo bere.»

Ioan zan gero nire laguna erdaldun kaltzalabur kapela-nasai este bete edo *embutido*-saltzaiñe bategana ta nik erderazko auturik ez entzutearren ibai-alderako bidea artu neban. Tabako-orriz ondo zamatu edo *kargauriko* pardel andi batzuk egozan baster baten. Pardel-ondoan *karabiñeru* bat egoan ontzi batera begira; pardel-artean, makur makur eginda, tabako-ostuten Ebrotik aranzko gizon gazte bat.

Arek ikusirik lenago otu edo bururaturiko tšori-iagolea etorri iatan gogora; ta neure buruari itandu neutsan: karabiñeru au gari-artean balego tšoriak au gora-bera ezeteleukee galbururik ustuko? Tširrist nazan legez tšoria banintz, bai bildur barik.

ZORTZIGARRENA

AUTALDI EDO ELEZIÑOIEN ONDORENA

Gauza ona legez tšarra bere esan bear da. Orregaitiño eztoz esango non iazo iatan esateko daukadan gauza tšar au.

Astelen goizeko zazpi ta erdietan, zeregiñik ez goserik eztaukan *indiano* baten antzera, odai zurizka alper baten atzean, berari neutsala apurren baten ibilita, geldi geldi (edo Lekeitio-aldean esaten daben *dzauan dzauan*) Bizkaiko erri tšikitšu batera ioan nintzan.

Lenengo lenengo ikusi neban etšea Iaungoikoaren Etšea zan, Elizea: Eliza-aurrean enparantza edo dantza-toki zabal eder bat, inguruetan alkarri ondo oraturiko bizitokiak, zokondo baten ardantegia.

Badakit, adiskidea, agerturiko zertzelada onekaz erririk ezin ezautu leikeala. Gizon bategaitik esango bagendu «lepo-ganean burua dauko, buruan arpegia ta gara edo kaskarra, arpegian bekoki begi surra ta ezpanak, garan edo kaskarrean ulea», gizon bategaitik au esango bagendu, Vascofillok bere eleuke nor dan ezautu-

ko. Bada gizonagaitik burua ta arpegia ta snrra ta ulea daukazala esatea legez izaten da gure uriakaitik esatea: «Eliza bat dauko, Elizondoan enparantza edo dantza tokia, enparantza-inguruan etšeak, etše-artean ardantegi bat.» Onenbeste esanaz ¿nok ezautuko leuke zein erri dan?

Nire asmoa ezta erria bera ezautu eragitea, errian iazoriko zer edo zertšu baiño. Ta onenbestegaz (ai latin baneki, latiñez esateko) aurre-ra mutilak.

Ni ara eldu-orduko emakuma bat ebiñen, berrogeta amar urte-ingurukoa, eskuak, batean buruko zapia ondo ipinten, bestean belaunak ioten erabilzala. Urreratu nintzakionean berba onek entzun neutsazan:

«Satz ori, zimaaur ori, astotzar ori, beti beti moskorrik abiñen agiñ-andi ori ¿etorriko az etšera? Gau guztian agertu barik, ardantegi-zuloetan sartuta. ¿Zorigaiztoko *elesiñoiak!* ¿Zorigaiztoko Diputauak! Bake urregorritan bizi bear genduala... ¡au dot au!... Nartišo, ene kurtze astuna ¿etorriko az etšera, satz ori?»

Onenbestegaz, aurreko berbaak nik entzun izan ezarren, aditu ta ulertu leike an gerta zana. Gizon bat egoan ardantegiko atearen kontran erdi lo ta oso moskorrik. Beraganatu nintzan, da »Nartišo» esan neutsan.

—*Piro lo palabra*, erantzun eban berak.

—¿Zer dok?

—*Piro la palabra*.

—¿Zegaitik diñok ori?

—*Diputau* egingo nabe ta ikasi egin bear da.

—¿*Diputau?* Gizon andi egin nai dok.

—Gizon tšiki kaskar tšatšarra izanarren, *diputau* izan leike: dirua eukitea da naikoa.

—¿Orrenbeste diru nundik etorri iak?

—Ameriketako osaba batek ontzakotan itši dau neutzat Elizea bete urre.

—¿Diru orregaz zer egingo dok?

—Lenengo Elizea lakoše zaragi andi bi ekarri etšera: bata ardao zuriduna, balzduna bestea.

—¿Ta ganera?

—Biai, iñoiz agortu eztaitezán, goitik egingo dautsagu bidea. Izaten dira bada gure solo-bartzetan zingo-zangoak, lurrak ureztau edo *erregetako* ura sarri ataruarren, zerutik datorren curiak iñoiz agortuten isten eztautsenak. Beralan edo modu berean nik edanala edanda agortu eztaitezán, zaragi batari ta besteari goitik egingo iake bidea, tšurru tšurru tšurru ardao u-sain ederreko eztizkoa barrurateko.

—Orretarako Eliza bete urre ez eze esku bete lauzuri-laumaraiko naikoa izango dira. ¿Zer egingo dok diru-enparauaz?

—¿Zer egingo dodan? Bolatoki bat, geutarrentzat bakarrik.

—¿Geiago?

—*Palazio* eder bat, zidarra baiño zuriagoa.

—Beti izango az i Nartišo: nai iauregi edo *palazioan*, nai ardantegian, nai etše-basterrean.

—Ez beti. Diputau egingo nabe gero. Geure *trabenerua* gobernadore egingo dot, onetarako mutiā izango da-ta. Soloan astoak eta beiak lan egin daiela. Gizonak geure bolatokira etorriko dira goiz da arratsalde: gogaitu daigunean, batean erbitara, bestean aingira tšikitara, ibili beti ta beti urdail ondo beteaz.

—Nartišo ez ¿da zer izango az?

—Gaur Alkate daukagun tšakiā, ni katigu eukiten naben oskiltšua (ta guztia da beren alde *botoa* emon eztodalako) aše neure *palasiara* etorri ta tšapela eskuan dabela Don Nartišo gora ta Don Nartišo beera ibiliko da.

—Satz ori, zimaur ori... ¡Zorigaiztoko eleziñoiak! Ordutik gora bakerik eztaukat-eta: beti ordirik, satz ori, zimaur ori.

—Eta gaur arpegira begiratu gura eztausteanak, burutsik erderaz berba egitera etorriko iataz. Don Nartišo izango da orduan erri onetako gizonik entzutetsuena, altsuena ta bizi obekoena.»

Au entzueran bururatu iatan umeak eta zoroak bakarrik eztireala egiak esaten dabezanak; baita ordiak bere: ta egi andiak.

Gero aurreko mendi-tontorretik gora ioan odai baldarraren lepura igonda, udan umeak belaunetaraiñoiko uretan igiri edo ugerrean ikasten ibiltzen direan baiño pozago, Durango-aldera ioan nintzan.

BEDERATZIGARRENA

TŠIRRIST ETA GOSEA

Ikusten dodan guztia esango banen, beteko neukez zuri zortzi orrialdeak. Igazko neguan arratseko seirak inguruan sutondoan egozan atso bat amama-antzekoa ta lau umekondo birlobak zirudienak. Umeak aoa pozen pozaz sarrratu eziñik eta begiak loguren logureaz edegi eziñik eukezan. Atsoa ipuiñak esaten egoala uste neban. Ume bat loak garaituta eskaratz edo sukaldean bertan erdi-erantzita oera eroanda gero, beste ume-enparauak atzetik ebazala sutondora ostera etorten zanean «zetan giñean?» itanduten eban; da umeak esan bear izaten eutsen zetan zirean, ipuiña noizbait amaituko bazan.

Amama-birloba arek gomutaratutea esango dot zegaitik dan. Azkanengo Tširristadatik ona gauzatšu asko ikusi dodaz; enekian zetan gelditu giñean; da zeuri atso ipuinlariak legez itanduteko egon naz «zetan giñean?»

Gomuta dot orregaitiño Durango-alderako usteaz odai baldar baten sorbaldara igon nebla. Gauza gozagarrria izaten da erritšuak goi goitik ikustea. Egun atan arpegia ta arpegian aoa ta aoan adurra edo lerdea euki izan baneuz,

pitšerdi adur gitšienez esuro edo isuri edo (zure adiskide batek esango leukean antzera) *derrama*ko neban, odai-ganetik Durango, Zornotza edo Zorrontza ta Etsano ta Maiñari ta Urkiola ikuseran. Onen onenean odaia norbaitek putz eginda legez ezereztu zan, da aidean gelditu nintzan nora ioan enekiala.

Onako baten tšiztu-ots luze gogor bat entzun neban. Begiratu bertara ta su-burdia. Zornotzako gelune edo estaziñoian purrustada bat eziñaz geratu zanean, eldu nintzan ni beren kontrara. Begiratu neban burdietara ta egin kontu beti ikusiriko arpegiak neukazala begien aurrean: sur-andi, gizon tšapel-tšiki, emakuma zapi-luze, erdaldun baltzeranen bat... betikoak. Gauza batek arritu nenduan: burdi guztietatik surrik andienen iaube zireanak bateratsu (1) tšiztadaka asi zirean, da lorarik lora ibilten dan erlearen antzera mutiltšu bat ebiñen burdurik burdi, besapean edozeinbat albistari ebazala.

Begiratu neutsan paper pīloari ta *El* ikusi nebanean, erderazko paper guztiak *El* edo *La* dauke asieran, da erderazkoa izango da ori bere: esan neban. Irakurten nengoan bitartean, «¿Zer dok Tširrist?» itandu eustan norbaitek.

—¿Eu az? (Gosea zan).

—¿Zer darabilk?

—Asarrez nago, tšotšo.

(1) *Erderaz casi á un tiempo.*

—¿Beiren bat il al-iak?

—¿Beia il niri? Oriše nai eukek ik, Gose biotz baako urdail-andi orrek.

—¿Amama gaisorik aldaukak?

—Barriketako gogoa daukak ik. Nik eztaukat ez Aitarik, ez aiderik, ez odolokerik ez iñor. ¿Zelan eukiko iok odolekoa, odolik eztaukanak?

—Iatuna baintz, pertzeba edo lanperna zaarrak ian etedoazan itango neuke. ¿Zer dok, Tširrist, asarre izateko? ¿Erdaldun maisu barriren bat etorri alda Amorebietara?

—Nik dakidala ez.

—¿Zeren asarre az ba?

—¿Zeren asarre nazan? Arra bateko sur andidun baserritar kirtenko batzuk erderazko paperak irakurten: kaiku, astaki, taket...

—Euk errua.

—¿Nik orren errua? Tšotšo, enaik ipiñi na goan baiño erreago.

—¿Eu ezaz Bilboko EUSKALZALE-ren adiskide andia? Esaiok *astean asteango albistaria* diñoan lekuan ipiñi daijala *egunean eguneango albistaria*; ta ik erderazko paperak irakurten ikusi doazan kaiku kirten astaki taket asko euskerazkoa irakurten ikusiko eukezak.

—¿Baete!

—Gizonak gaur bururako nai dau urdailera-ko nai daben langoše iaki egin-barria. Urdailera-ko *egun eguneango ogia* eskatuten dau, buru-

rako *egun egunearago* albistea. Esaiok auše ire adiskideari.

—¿Baiña ik uste dok, garriko edo gerriko toleztua luzatuten dan baizen erraz, luzatu leikeala asteroko albistaria egunerokoa izatera?

—Nik eztiñot erreza ala gatša dan ori egitea, ona dana baiño. Ta euk ondo baderitšak, esaiok ire adiskide orreri nik oraintše esango dodana (ta iazorikoa eida.)

—Bein apezpiku edo obispo iaun bat ioan zan beren eskuerako (1) Elizak ikustera.

Eldu zan baserri batera ta tšilintorrea erdi iausita ikusi ebanean, abadeari esan eutsan: «¿Zelan da au? Eliz-torre barri bat ezin egin dozue?

—Iauna, zegaz balego, egingo genduke; baiña dirurik eztaukagu ta...

—Onelangošeetan ikusten dira gizonak.

—Balego, bai; eztagoanean ¿zer egin leike?

—¿Zer egin leikean? *Ingeniamini.*»

—Ik bere, Tširrist, esaiok auše ire adiskideari; ezin egin leikeala badiño, *ingeniamini* esaiok, burua ausi daiala; bestela eztabela gauza onik egingo.

—Nire esatean egitea balego, laster egingo litzateke gauza ori.»

Au esanaz iges egin eustan Goseak; eta urren-go Tširristadarako itšiko dot gero egin nebana.

(1) *Eskuera, erderaz jurisdicción.*

AMARGARRENA

KONTRABANDOA

Adiskidea: lengo Domeka edo igande-arratsaldean Bizkaiko Eliza polit baten sartu-urtena eginda gero zer uste dozu etorri iatala gomutara? Ez Aitearen-ka asi: karakiñeru izateko iaio izan banintz, urte bi igaro baiño lenago gitšienez *Teniente* egingo nenduela.

Barri-bila nabilenean gelune edo estaziño batera banoa ta *drapa: kontrabandoa*. Elizetara banoa ta *drapa: kontrabandoa*. Ta eskoletara ioanezkero barriz *ufff!* eztot esan nai zer egingo neukean.

Esan dautsudanez eldu nintzan Eliza batera, goiztšuegi nire asmorako: abadeak organo-zaratan da ain barik *beisperak* eresten eutsen; agura bat edo beste lo egozan, iarleku geienak utsik; eneukan oraindiño zer-ikusi andirik. Onetan nengoala tšakur bat eldu zan, anka-zuria bera, usainka, burua iasota ate-ondoan egonda gero; neu nengoan alderantz etorri ta lo egoan atso zimel bati arpegia mizkaten azi iakon. Astoak «zirin ori» esanda, Elizatik urten eban tšakurra ataratearren.

«Karlin ¿nok edegi deusk euri atea? Agiri da bai: auše da ba batek asko balio ta miñak bapuz. ¿Elizara sartzea pekatu dana eztaikik? Tira etšera, zirin ori.»

Bitartean tšakurrak bustanari eraginda, iaiki ta iaiki edo *salto* ta *salto* arpegia miskauaz, logurea kendu eutsan atsoari; baiña atsoak asarezko berbaren bat esanarren, tšakurrak ezaban etšera ioan nai ta atsoak berak ioan bear izan eban, Karlin, neska mutiltšua gomez lotuta erabilten daben pelotea legez, batean beian bestean goian ebilkola, etšera eroateko.

Bitartean Elizondoan neskatilatšu batzuk olgetan ebilzan, alkarri eskuak emonda, bira ta bira, berba onek eresten ebezala:

Ala kinkirriñera
Ala samurrera,
Maritšu plasa (?) barriko
bira bei beste aldera.

Badakizu umeak zer direan: gauza bati eragiten egun guztian egongo litzakez. Zori onean, *Maritšu plasa barriko* seigarren birea beste aldera emotera ioala, Elizara ioian atsotšu batek esan eutsen: «¿Zer darabiltzue, ume ziztriñok, emen? Tira Elizara.

—Elizara ioatea pekatu dala esan dau Mari Antoñak. (Zaarrentšua esan ebazan berba onek.)

—Tšakurrari esan deutso ori. (Urrengoak onek.)

—Tira arin barrura, organua loten asi da-ta.
(Atsoak.)

—Gu ezkara ioaten *kyrieleišonetararte*. (Zaarrentšuak.)

—Lotsabaga, lotsa gaiztoko, lotsa galduko...
Arpegian don ik agiri nor azan, sur-zapal orrek.

—Baita zu barriz lepo-okor, Tšimiztatšuneko amandre lepo-okor.

¿Badakizu zelan igesten daben mando-ondañik (1) baten artagarau bila gogoz dabilzan torretšori edo eliztšoriak, norbaitek arria iaurtigieran?

Alantše banatu zirean *Maritšu plasa barriko* guztiak, Tšimiztatšu erremuskada asi iakenean.

Orduko Elizan asi zirean zerbait eresten, sartu nintzan zer etezan iakin nairik eta *drapa: kontrabandoa. Venid y vamos todos con piores (?) á Maria...*

Orduantše etorri iatan gomutara len esan dodan gogamena—karabiñeru izan banitz, *teniente* laster egingo nenduela—baita beste gogamen bat bere otu iatan. Ona emen zein.

«Eliza onetan euskeraz eresi egin daikeenen artean, nai dala *organisteroa*, nai dala *parrokoa*, nai dala beste edozein, egongo da norbait Etšebarria edo Mendieta edo Goroztidi goiti-

(1) Egingo neuke *pekorotza* ez aitatutearren diñoala Tširristek *mundo-ondakita*. (Eusk.)

zentsat daukana. Nik olakoari Etšebarria-ren ordez *Casanueva* esango neuskio, Mendieta-ren ordez *Montes*, Goroztidi-ren ordez *Acebedo*.»

Oriše otu iatan orduan: orain dirautsut, adiskidea, gure Elizetan *Casanueva* ta *Montes* asko dagozan artean, alperrik bear edo lan egingo dozula.

Igaz Euskalzalaren argitaratu zirean Maiatze-ko loretarako euskerazko eresiak. ¿Da zer? Zuk egiñiko gauzarik Elizetan eresi bear bada, *con piores á porpia* ipiñi bear izango dozu, nai ta gure euskaldunak berba orrek Mari Antoñaren tšakur *Karlin*-ek legez ulertu edo aditu.

AMAIKAGARRENA

PILATOS-ERRIAN

Ikusiko zenduzan, adiskidea, zeure uriko iai-arratsetan ziziriko edo *bolandera* otsik egiten eztabenak, gora goraka ioan da berantz asita-koan erraietatik bost edo sei *kolore* edo margotako argiak ataraten dabezanak. Ikusiko zenduzan umetan igiri edo uger egitera ziñoazanean, goitik beera leia edo *priesa* andi barik etorten zirean azi apoztuak, *seruko tanborra* zuen errialdian esaten iakenak. Ikusiko zenduan *globo*-ren bat, katakumeak dingilizka ebazala, gorantz ariñeketan da beerantz astun etorten. Ni Soñubetik beera Bermeo-aldera iatzieran ikusi banenduzu, edo ziziriko margoduna, neska papauak aoa zabalik begiratuten dautsena, edo *seruko tanborra*, edo *komedianteen* katakumeak bururatuko zenduzan.

Nik orduan eneban onelango gomutarik izan. Esango dautsut izan nebana, arako Pilatos-en etsea deritsona ikuseran. Gizon entzutetsu askoren iaio-terria ezta ziur iakiten: onak direanean, erritarrak eurak izaten dira gogaitu-arte esaten dabenak: geutarra da. Colon nungoa dan iakin nai badozu, guztiak esango dautsue. Ge-

nova-n iaio zala; baiña urreratu zaitez Erri atarra, ta batzuk esango dabe onen baserritakoa zala, besteak orren auzotegikoa, besteak ain etšetakoa; eta guztiak: geutarra da. Done Martin Gipuzkoatarragaitik Beasaindarrak Loinazkoa zala diño, Bergararrak Agirrekoa zala: bitzuak euren darra dala uste dabe.

Gizon entzutetsua donga-samarra bada, errikoak bertakoak eztabe ainbeste ardura artuten nungoa dan esateko. Pilatos nungoa dan iakin nai badozu, etzaitez Tarragonara ioan, Bermeora bere ez: eztautsue esango ta; baiña alberrietan itanduko bazendu, batzuk Tarragonara dala esango leuke; Mundaka ta Bakion itanduezkero barriz, ez Bermeotarra dala bakarrik, baita, iaioletšea bere erakutsiko dautsue: naganeko etše orizka bat, Mundaka-aldeko Berastegitik ondo begiratuezkero, Holandako gaztazati bat dirudiana.

Onenbestegaz eldu nintzan Pilatosen etšekontrara. Goizerdia zan da euria, lur egarrituak nai baiño geiago: euri ona, euri berera ederra, euri maniña. Iru edo lau atso, gazteren bat bere bai, ganeko goncaz burua estalduta, Pilatosen etšeko etarte edo atarian sartu zirean.

—¿Zer diñostazu Burduntzali?

—¿Burduntzali-arpegidše dakoooot? (1) ¿To

(1) Daukat, daukat.

piñien arpegi basto baltza dakonak (1) iñori esan biar dotso ezeeeeer?

—Andraaaaak: umore tšarra dakogu gaur.

—¿Burduntzali ñeu? ¿Zorrian batiatu nenduela uste aldozu, uzena (1) ipiñi-biarrian ori ipintšeko (2) alaaaa?

—¡Ave Marie! Bestia pe (2) esan eitšen (3) dabe ta ni-pe (4) esan, baiña tšarto badiñooot, parkatu.

—¿Eztakišu Kuakiña Manuela Maria esateeen? ¿Edo irurok esango ezpadira be battšu ezin esan, Burduntzali baiño laburrago ezandaaaa (5)?

—¿Zer diñotsu Bilboko alabiaaaaak?

—Ogi ta okela ta gauza guztiak dagozala karuago; ta lebatza karutu nai leukiela eurak bere ta itši gura ez.

—Bakit nor dan ori egin gura dabena.

—¿Nooooor?

—Makiñen edo Makaiño: Ameriketako Errege. Aše eidabiltzu geu gosez il gurarik: batian gari guztiak erosten, geuk ogirik dšan eztaigun; bestian ontzidšak amarraten, piñitu (6) guztiak etšera otorri (7) daiñezan; bestian *ijiñanu* guztiak andik ataraten, onaše etorri eragiñarren.

—¿Bermioko astodunakaz sartuko eteda ba

(1) Izena. (2) Ipinteko. (3) Egiten. (4) Besteak be, nik be. (5) Izanda. (6) Erderazko *piloto*. (7) Etorri.

Makiñen ori? Ezin siñiztu dot neuk oriše. ¿Ai baletor!

—¿Eziñ eiñ dabe zure alabiak eta lagunak neuk sarri diñodana? ¿Santoñako lebatz merkia erosi ta Bermiokua dalakuan saldu?

—¿Ta uste dozu eztabela eitšen al dabenian alaaaa? Baiña Bilboko neskatilak eztira sur ba-kuak eta igarri eitšen dabe. ¿Zer dakar beronek?

—¿Semien barririk, Burdun... parkatu?

—Gero topiña lanbasa morkotzarra esango-tsut eta...

—¿Eztot esan ba parkatutekoooo?

—Neuri be parkatu zeuk, baiña nik esan. Semia Lebrefuelen daguala, Saandarera datorrela, piliñuen kartia egon dala... ¡Neuk zer esan baneki!

—Ontše ekarriko deutso Amari gona barri-dša eitšeke dirua.

—¿Gona zarrak baiño eztakotazala esan nai dozuuuu? Andraaaaak; ez urreratu onegaiña, loiñu eztakidšoan sedazko soiñekuak. ¡Eeeene! ¿Zu lango bat oiñez ibiliii? ¿Gu langotšuen onduan bizii? Banua etsera, ni lango arlotetšua eztabe zugaz egon biarda. Agur *Doña* Florentzia.

—¿Ori esan dodala ta asarratu? Urrenguan be esango detsue Burduntzali.

—(Urrunetik). Morko, itšuski, lanbas, satz»...

Beste euri-zaparrada batek Burduntzaliri alde eragiñ eutsan.

AMABIGARRENA

GIZA-ESKINTOKIA

Adiskidea: Enekian oraintsurarte nagia zer zan.

Zuen artean esan oi da beti oiġoa nai lebatza iateak aspertu eragiten dabela urdailik nasaiena.

Nire iakia badakizu zer dan: barria, albistea, edo T̄sorierrin esaten danez, baiġeja. Barriak alkarren atzetik eta alkar barriraztuten dabilzanean, pozik ibili leike euren atzean; baiġa alkar barriraztu-bearrean, iribiau baiġo besterik egiġ ezik, edozeiġ barrizale aspertuko litzake.

Erririk erri ibiliarren, eztot besterik entzuten izan *Cuba*, *Filipinas*, *Sampson*, *Mac-Kinley*, *Cervera* ta *Dewey*-ren izenak baiġo beste esatekorik.

Ondo da piper aldian piperrak iatea; baiġa beste gauzarik urdaileratuko ezpazendue, zuen arpegiak arpegi baiġo aratusteetako mozorroak obeto irudi izango leukee: surra, odol en odolaz gorritu ta anditurik, usan-eske eukiko zendukee.

Egunero batu al izan dodazan barri guztiak gabean gabean pilotuta bialdu baneutsuz, zeu-

re indar guztiakaz barri-piġo guztiak lauskitua rren, etzenduzan lau barri-tanta atarako, sutauts edo *polvora*-usain bagakorik.

Eztakit orain esatera noan barri onek begia beteko etedeutsun. Bada-ezpada or ioatzu: ego-
kia baderitšázu, argitaratu; bestela, gorantziak emon Vascofillori ta berak bete daizala nire utsuneak.

Mundaka-ko Talan nenbiġen oiġasko-oiġanden edo neska-mutiġen ondorik. An neskatġlai *pollak* esaten iake; mutġlai *polloak*. Zeuk nai badozu, oiġasko-oiġanden izena emon lekieoe.

Zurt nenbiġen euren atzetik, zer entzungo. Oiġanden esakeraak geienak zirean erderazkoak, oiġaskoenak euskera ta erdera ainbanan euken.

Arraidšo-tan entzun neban onen aotik ezin esanala-ko beste. *Kyrie-eleison*-etan *ora pro nobis* esaten dan baizen sarri esaten eben oiġaskoak *arraidsue*.

Oiġandak erderaz: *Ješús ;qué Florentino más grasióso*.

Florentinok: *;Arraidšue!*

Oiġandak: *;Pero mirar qué desvergonsao!*

Florentinok: *;Arraidšue!* ġsilduko nai (1) ala? Nik diñodana da ze Sanson-eri, neure esana eingo balitz, ederrak emon lekidšoza. ġZer baaaa? *;Arraidšue!* ġMerri-Mac ekarri dabe eu-

(1) *Nais* edo *naz*-en ordeaz esaten dabe *nai* Mundaka-aldean.

rak Santiago de Cuba-ra *entradie* sarratuteko? Neuk eruango neuke Nueva-York-era beste Merri-Mac bat, *dinamiñaz* okotzeraiño *kargata*. Ipiñiko neuskidšo popan *bandera* bat, sekula ikusi eztaben lakua ta Florentiño *seridšo* sartuko litzake Nueva-York-en bestela baiñakuan. Sanson-en lagunak papau batzuk egiñik *banderia* zelakua dan igarri eziñik dabilzan-artian, su emon da *bra bra bra bra*. ¿Zer da? Gure Merri-Mak ondora ta Bruklin-go zubidša ta Nueva-York-eko etsiak aidian ibiliko litzakez. ¡Arraidšue! ¿Zetarako dagoz Liverpul-en *Euskaro* ta *Navarro* ta beste asko amarrata? Eruan orrek be *dinamiñiagaz* Nueva-Orleans-era ta Filadelfiara. Mac-Kinley-k orduan bialduko leuskigu *mariñuak* paper bat: *sibilizasiñuak* eztabezala olako gauzak aginduten esanda. Baiña Florentiñok dšakingo leuke zer egin. ¿Zer egiten da *periodiku* zarrakaz? Komunera eruan da neuk badakiñ ¡Arraidšue!

Adiskidea: erdera polita entzun nai badozu, zoaz Mungakako oilanda edo *pollen* ondora. Euskera barre eragitekoa entzun nai izan ezke-ro, bertako ta itšasaldeko oilasko edo *polloak* egiten dabe zelakoa nai ta alakošea.

Eztaukat zer esan geiago.

AMAIRUGARRENA

TŠIRRIST EIBARREN

Berandutšu ibili nintzan Doniane-goizean, ez nagi nintzalako, lodiegi ta astunegi nagoalako bere ez; ¿baiña zer da egitea? Amaika ta erdiak ondo iota eldu nintzan Eibar-ko uri zaratatsu edo barailatira. Zaratea ta baraillea zer direan eztakienak, betoz Eibarrera iaiegun bazkal-ostean, sartu beitez kafetše batean, da gortuten eztan belarria belarri ona da.

Meza nagositarako berandutšu zala ikusirik, gauza bat bururatu iatan: zer esango eteeben Eibartarrak, bein ara-etzkeroko *San Juan-go pietak* oso osorik ikusi enebazalako.

Iakiñ neban orregaitiño bular onekoak izan zireala meza-kantalariak.

Ordu biak baiño lentšuago eldu nintzan kafetše batera. Atera eldueran iakin nai izan neban zein etezan, begiratu neutsan ateburuko iragarriari ta *Cafe de...* irakurri nebanean, erderakada geiago ez ikustearren, *sapla:* barrura.

Ezta gauza erraza ango gizategia zeaztutea: keiaren keiak atzeko alde guztia estaldu ta es-

kutau eustan; tšaloaren tšaloak, deadarraren dearrak eta kantuaren kantuak aurrekoai entzuten bere ezeusten itši. Puzkatšu baten egonda-koan, erdi gortu ta erdi itsutu nintzanean, asi nintzan zerbait ikusi ta entzuten.

Zoko-baster baten andoil edo tabako-taket galant bana aoan eukela gizon bi egozan, alkarrren antzik soiñekoetan da tabako-taketean baiño bestetan ezeukenak. Zaarrena, argalena ta berbaldunena orma-kontran lepoa ebala egoan; aurrez aur egoanak bederatzi arroa zaar, amazzapi libra-nako arroak, aragi utsetan eukazan, da Eibarren bertan iaio ezpazan, bertan luzaro egon zana berbetan agiri eban.

Ni eurakanatu nintzanean, orma-kontrakoak ziñarduan:

«¿Eztitzut ba esaten? Eibarren otsa bai, alaitasuna ere bai, jende aundia ere bai ta gaiñera *korridak* eta *baileak*; baiño, gizona, erdalkeri oiek kentzen badituzu, eztezu Eibarren Urnietan izaten eztan ezertšo ere arkituko. ¡Ango Meza! ¡A gizarajoa! ¡Ango laisterkariak! ¡Ango bolakariak eta bertsolariak eta...!

—Esan dotsut jan dogunian zuek baiño *sibilizaugo* dagozala Eibartarrak.

—¿Zuek zer dezute guk eztegunik?

—*Ilustraziñua*.

—Zer dan eztaikit; baiño sagardo onari orla esaten badiozute, Urnietan ere ¡ala Jaiña...!

—¡Ze Urnieta ta Murnieta! Donostiaren urren-

go Gipuzkoan Eibar; eta gauza askotan Eibar aurrerago.

—Gizonak ilteko tresna oiek egiten bai.

—Baiña beste gauza askotan be. ¿Eibarko San Juan lako Santurik nun dago? Oba da Eibarren *El Aseao* ikusi Donostian *El Reverte* baiño.

—Eztitut ezagutzen. ¿*Erreberte* ori *ministro mariña* alda?

—Ezagun dozu *ilustraziñuaren* kontrakuak zariena. Zuen lasterkari orrek *el año uno*-kuak dira.

—Eta zuen *korrida* oietan zezenen aurrean ibiltan diran ezurrutzezko gizontso oiek ¿zer dira laisterkariak baizik?

—Edaizu edan, gero *El Aseao* ikustera fuateko (1).

—Eta ¡aizu! An nere aurrean neri begira dagoen gizon ura ¿nor dezute? ¿*Aseao* edo ori? Aren mingaiñak eztu iñoiz euskerarik egin. A-postu egin lezake.

¿Zeiñ? ¿An daguan gaisoki, naparreri-pikatu, *biboteduna*?

—Bera.

—Ori Bilbotik etorri da. *Periodiko* baten *directoria* izan da ta aberats batzun kontra ein dabelako, berrogei *kilometru*-kanpora bota dabe.

(1) Eibar-inguruetan *juan* esateko askok esaten dabe *juan*.

—¿*Periodikerua* ta Eibarrera etorri? Beltza izango da.

—Beltza baiño obia: gorriša da.

—Enekien gorri-berririk.

—*Sosialistia, obreruen* aldekoa.

—Ori gutšiago ¿Euskeraz egiten aztu alzaitzu?

—Laster aiñuko dozu. Aurtengo neguan egon zan emen Espaiñiako *sosialista* guztien Burua: *Iglesias* da bere izena.

—*Iglesias* zer dan badakigu guk ere, Urnie-tarrak izanarren. ¿Eliza berriren bat egiteko asmoa al dezute? Nik uste nuen Eibarrerako bat ere aski zala.

—¿Eliza berria zetarako? A etorri zan guri *sosialismua* erakustera.

—Eztakit zer dan.

—Nik be enekišan; baiña *Iglesias*-ek ederki erakutsi euskun. ¡A da *oratoria!* ¡A da etorriša! ¡A da *ilustraziñua!*

—¿Zer zan bada erakutsi zizutena?

—Gauza asko. Orduan beste tšalo sekula ez-tot nik jo. Erderaz esango dotsut:

Serbisio obliatorio. Sosialisasion de los medios de producion. Ocho horas de trabajo. Abolision de la propiedá.

—Egia esango det. Gure apaizaren latiñia-soak aizago aditzen ditut itz itšusi oiek baiño.

—Onetšek dira *Sosialismuen ebanjelisuak.*

—¿Zer esan nai dute?

—*Serbisio obliatorio* da mutil guztiak naiz

aberatsen semiak naiz gure morukuenak *kin̄tara* fuatia.

—¡Arraio pola! Eibartarrak, gerratean *arma* gobernuaren alde artu zendutelako, eztezute se-merik kin̄tara bidaltzen izan. Ori bezelakoak badira beste *ebanjelioak*, Iglesias etzenduten izan Ebanjelista tšarra.

—Gutzat egiša esateko beste iru ebanjelišua obiak dira. *Sosialisasion de los medios de producion*. Onek esan nai dau langiē guztiak alkarrekin ta alkarrentzako lan egin biar dabela.

—¿Zuek nola egiten dezute?

—Guk bakoitzak bere etšian.

—Orduan bigarren *ebanjelio* ori ere ezta Eibarrerako ona.

—Irugarrena *ocho horas de trabajo*.

—Ori aditzen det: lanerako zortzi ordu, ¿Zuek ezaldezute geiago egiten?

—Astelenetan ez; baiña *priesaka* gabiltzanean amar... amaika... Ta irabazte andiše euki-ezke-ro, amalau naišago.

—Ikusi dezagun laugarren *ebanjelioa*.

—Laugarren *ebanjelišua* da *abolision de la propiedá*. Onek esan nai dau zure gauzia neretzat izatia.

—Ta nerea neretzat ¿ola da? Ori dek mutiā, ori.

—Guztiontzat guztia.

—¡Arraica! Urrengo sagarrik ezteguncan, Urnietar guztiak Eibarren izango gera; ateratu-

ko degu Iglesias-en laugarren *Ebangelio* ori ta ezkera gaizki bizi izango. ¿Ta ori esan zuela ta tšalo?

—Tšalo jo neutsan nik ez esandakuagatsik, esateko moru ederragatsik baiño. ¡A zan *oratoria!* ¡A zan etorridša! ¡A zan *ilustraziñua!*

—Ta ¡aizu! Or dagoen *periodikeru* orrek *pagatu* egiten otedu emen egiten duen *kastua?*

—Ori geure lepotik dabil. Abariak esango dabe gugatsik, astegumetan Elizan, andrarik ez-palitz, geunak urtengo leukiela; baiña Eibartarren bišotza lakorik gitši: bakiše eurak be.

—¿Ta nola du izena orrek?

—Orrek Hernandez.

—¿Nork esan neri zer ikusi bear nuen?

Eibartarren biotzak Urnietarren burua balu, erdalerriko arlote oriek *mantentsen* egon gabe, Gipuzkoan elitzake bertan jaioriko eskale bat ikusiko.

—Urnietarren burua bagendu, *El Aseao* ez-kenduke oraiñ ikusiko, lasterkari matraiña-esturen bat baiño. Oba dogu Eibartarrak bišotzez da buruz Eibartar izan. Edaizu edan.

—¿Ta orain *Erreberte ta Asao* ta oiek ikustera joan bear aldegu? ¡Erreberte, Asao, Iglesias, Pernandes! San Juan bizkarrean eramateko ¡a ze lau!»

Kafetšeko guztiak iagiten asi zirean, da eneban ezer geiago entzun al izan.

AMALAUARRENA

DONE IÑIGO LOIOLA-TARRAREN EGUNA

«Ignacio, gure Patroi aundia»-ren egunean inok esan barik dakit zer egin bear neban: Azpeitira ioan, Azpeiti-tik Loiala-ra ta Loiola-tik Euskalzalera etorri; ta auše egiteko nengoala, aurre-egunean Azpeiti-Azkoiti-alde ar etako še berbetadun mutil gazte bi edo iru, idizko batzuk legez akitika, Atšuri-n zear ioazan, da urreratu nintzakenean, batek esan eban «mutilak: *El Aseao* toreru ederren bat dekala esan zidatek.»

- Au entzun nebanean, eneban Atšuri itši nai izan. «¿Zer? ¿Euskalerriko biotz biotzean erdal-keri orrek ikustera neu? Enabil.» Auše esanda, naiago izan neban Bilbon gelditu, emen bere Loiola-ko Iñigo andiari ariguri edo Vascofilloren erri-inguruetan esaten daben *osekišo* asko egitea uste zan da.

Eldu zan eguna gabaren urrengo, iagi zan itšasotik eguzkia, asi zan mendien sorbaldak berotu ta astunduz orduari edo erloio-orratzai bira eragiten; da arako Bilboko orduariak berderatzi ta erdiak entzun eragiñ ebezanean, gizon-aldra andiak (nire ustez ondo gosalduta, bada izerdia galanto zerioen) asi zirean Begoñara-

ko aldatzean zear puzka, burutsik eta kokot mamintsua (azurtsua ezeukenak) zapiaz igozten. Begoñarako torrean, erleai sartagin zaarrakaz legez, tšilin zaar motelakaz elizmutilak *erdu* zirautesen Bilbotarrai. Santiago-Elizako ta Iesusen Lagundikoen tšiliñak bere, zoli zoli ta durundu biguna zabalduaz, *erdu* ots egiten eben. ¿Zer zan egitea? Begoñarako leia ta gar andia neukan, *Euskeria* izeneko Orfeoiak Mezea eresiko eballa zabaldu zand-a; Santiago-Elizarako bere guraritšua etorri iatan, Diputaziñoia «domeketa-ko iantzita» ioango eizalako; Iesusen Lagundiko Elizara ez ioatea uts anditzat eukiko neban, bertako eguna zanezkero.

Aizea ta argia langoa banintz, alda batera toki askotan egotekoa, eneukan buru-austerik: iru Elizetara ioan da kitu.

Iatun onak, mondšor ugari baten iaki asko dakusanean, eztau batetik bete-arte iaten, guztietatik zerbait baiño. Nik bere beste ainbeste egin nai izan neban. Santiago-ondoko kale-baster baten *aguasil* edo amameru edo albiente edo tšinel-antzera nengoan: geldirik. Gizonak tšapel-kapelak erantzi ebezanean «ontše iatozak» esanda begiratu neban eskuma-aldera: eurak. Tšapel gorridun *soldau* batzuk erreskada bitan, kanpotar-antzekoak geienak, urrengo tšartes-gorri bi ;;mai ondo beterako a ze iagunak!! eta atzetik eurak, Diputauak: bat, bi, iru, lautšu. Beste amaseirak? Iainkoa lagun dakioela.

Begoñara eldu nintzanean *Kyrie eleison*-ka gogor ziarduen mutilak. Zireanak zireala, bular sendokoak zirean. Baserriko aize asko daukela birietan esango neuke, sur luzedunak direala ezpaneki bere.

Elizearen erdi-ingurura emakuma zaar gordin biren artera ioan nintzan, zerbait iakiteko gogotan.

Lenengo berbetan asi zana bardin izan zeikean Ea-ko *erroskerea* nai Otšandioko untzegin baten emaztea: berbetea beiñik beiñ etzan bes-telakoa.

—;Ene Andrie! ;Zein Meza da!

—;Gorra zagoz ala? Beti betikoa: *Kirieleișon*-duna.

—Ori bai. Zeiñen Mezia dan.

—*San Inaziona*.

—*Musikie* esan gurot.

—;A! Neure senarra onetșen *sosio* da ta ementșe daukat atzo ekarri euskuen papera. Aor.

—Nitzat iluntșu dago ta zeuk edo ene andrie...

—Bai irakurriko dot. *Solene funsion...* beerrago dago.

Amen, Amen: «... *del maestro* Gounod.»

—;Ene!! ;*Maestro* diño? *Maestro* bada erdalduna izango da: ziur. ;Zelako euskaldunak dira onek?

—;Euskaldunak zelakoak onek? Zu ta ni bai-zen zintzoak.»

Eresleak *Laudamus*-ean egiñ eben, zarata e-derrak burua atzera bira ta isildu eragin eutsen emakuma biai.

Gloria amaitu zanean, bigarrenak lenengoa-ri ukondoaz ziri egin da esan eutsan:

—«On zer diñozu ba?

—Eztodala damu bertora etorridše. Asko di-re eurok ze? Onek irabazi be ederto eingo dabe.

—Onek izena, dirurik ez.

—Izenagaz eztire ba asko lodifuko.

—Tira, zagoz isilik pizkatšu baten.

—Da bagoz euron artien nik baiño okotz-aldie lodidšago daukenak. An bat. A gitšienez izango da *alondikerue* edo alantše.

—Iššššš.»

Onetan agertu zan altara-aurrera sermolaria, asi ta amaitu zan Ebanjelioa; iezarri zirean nun-iezarri euken gizonezko-andrazkoak; irakastegi-ra begira egozan guztiak; sermolariak isileko berba batzuen ostean «aunque soy polvo y ce-niza» esan eban.

Nik au entzunda, geiago entzuteko asti barik, urten neban Elizatik. Ziur nengoan: sermola-riaren eskuetan itši balebe euskeraz ala erderaz egitea, askozaz pozago iarduko eban geure ber-betan; baiña zana zala, Begoña lango Eliza ba-ten, bizkaitar guztiak Ama dauken Etšean, eliz-tarrik onenak eta Elizara geien doazanak euskal-dunak direan Eliza baten, nire ustez elitzake iñoiz erderaz egin bear. Bitatik bat: edo Eleizako

berbakunea, latiña; edo Errikoa, euskerea.

Gogamen onekaz eldu nintzan Iesusen lagun-di-ko Elizara: argi, garbi, apain da ondo betea egoan. *Credoan* egozan, *et iterum* orduantše asita. Dantzarako soiñu politagorik eztot aspaldion entzun. Berbaldirik edo sermorik etzan goizean egon.

Andik urtendakoan, eskeko batzuk, kanpotarrak gorputzez *da gogoz, aurkitu nebazan, Algorta nun egoan galdeka edo iakin nairik; eta euren atzetik Algorta-aldera niñoala aaztu iatazan iru elizkizunak.

Gero iakin nebanez, auresku polit bat egin eieben Begoñan eresle edo kantariak eurak; bai Begoñako ta bai Santiago-ko berbaldiak ederak izan eizirean.

Nire damurik andiena zan gabaz Biltoki edo *Teatro*-ko eresi ta dantzetara ez eldu-bearra; baiña neu elduko ezpanintzan bere, gogamen onetšek poztu nenduan: EUSKALZALE-ri bialduko dautse *Euskeria* deritšon Orfeoikoak sarbide bat edo sartu al izateko tšantel bat; eta au olan dala, EUSKALZALE-k batetik Orfeoiari bear dautsan begi onagaitik eta bestetik esker onekoa dala erakusteko, norbait bialduko dau ara beren izenean da zerbait esango dau.

Onenbestegaz Algorta-aldera ioan nintzan.



AMABOSKARRENA

MANU ERRAMON

I

Eztakit, adiskidea, zure orri-artean egia ikusi daben mila esakune-artean agertu etedan au: *Lekuan lekuan ardiak, baltzen artean zuriak*. Onek esan gura dau argia dagoan lekutik urrun eztabilzala gerizea ta iluntasuna, zorigatza ta zoriona eztireala alkarregandik urrun bizi izaten, lapurrak eta lapur eztireanak alkate baten zigorpean bizi izaten direala; errudunen artean erru bakoak, zikotz edo zekenen artean apatzak, gaizkiñen artean ongiñeak.

Bilbon dagozala, esatea da, beste edozein euskaluritako aldean gaizkiñik geien, erdaldu-nik ugarien, iokolararik eurrezen, lapurrik or-niduen, arloterik nasaien. Egia da. Ostera ber-ton dagoz ongiñerik geien, euskaldunik uga-rien... berba baten: ardi baltz asko dagozan to-ki onetan ardi zuriak eztagoz gitxi.

Lengo egun baten *tranvia urbano* deritson mandoburdi baten sartutea otu edo bururatu iatan.

Arakiñ edo karnazeru bat, bui izateko alaga-lakoa zirudien atso lodi arpegi-gorri begi-andi

bat, erdaldun maisu-antzeko gizontšu bat eta ganera Elantšobe-inguruko aguratšu polit bat gipuzkoar emakuma otseiñagaz euskeraz berbetan ziarduenak eta beste norbait ioazan barruan. Orratzetik arakoak zireala esango neban aguratšuaren kapela, tšartes, tšupil edo gorantz, kaltza, alkondara ta soiñeko- enparauak. Arpegia tšimurra zan, eguzki asko arturiko baltzeran erdi-kiskaldua; baiña usain gozorik artu ezpaneutso bere ezautuko neutsan bizargintzaren batetik eta bizargiñen baten esku-artetik urtenbarria zana.

—Andresa gero, ondo artuzo dozue gure Kildotšu; ta esango dotsazu Aiñiñak esan dabela, negarrik eifen ezpadau egun onetan, Zaldibarren daguan *erroskarik* andidšena berentzat izango dala. ¿Entzun?

—¿Zer dio berrerek? Berori etšean eztagoenean beti negar egiten du ¿ta nola nai du ez egitea berori bañuetan dan bitartean?

Aiñiñak ezpanakaz barre da begiakaz negar egin eban. Enekian nor zan; baiña ardi zurizat neukan.

Eurak autuan eutsela edo eragoioela, ondo iantziriko gizon bat (nire ustez ardi baltza) iezarri zan Elantšobetar irudikoaren ondo ondoan, da iñori berreun esateko astirik emon barik, urrengo kale-ukondo baten iatzi zan.

Arik gerotšuago eldu zan mando-burdia Atšuriko gelunera; iatzi zirean guztiak; gipuzkoar

otseiñak artu eban agurearentzat bigarrenetariko tšantela edo *segunda*-ko *billetea*; agur egin eutsen alkarri ta aguratšua orri biko eginda (1) baiotan tšantela emotera. Au zulatuta gero sartu eban eskua kaltzen eskerreko sakelean, eskumakoan, tšarteseakoetan, kolkoan... da uts: oratu eutsan esku biakaz buruari ta begiak zabal zabalik ebazala zurturik gelditu zan.

—¿Zer dozu, Manu Erramon, ene gizona? esan eutsan Elantšobe-aldeko emakuma ez gazte ez zaar batek.

—¿Zoritšarreko *bañuak*, nik ezetarako biar eztodazanak! ¿Zoritšarreko ibilēria! ¿Zoritšarreko *tranbidsetan* ibilēiak, oiñez ibilēteko gauza gariala! ¿Ta zoritšarrekua neu bere!

—¿Zer dozu, Manu Erramon?

—¿Zer izango dot? Neure erranak, diru larregi eukiña edo, bañuetara dšuan biar dodala ta bañuetara dšuan biar dodala; au dala ta ori dala; emon deustaz esku bete ogerleko eder, sartu dodaz *pañeluan*, da... ondo merezidurik, arro batzuk gara-ta.

—¿Galdu?

—Galdu beintzat.

—Etzañtez estutu orrenbesteraiño.

—Baia esan dotsat nik Andresari, gaur egunian...

—Tšarrago izango zan istar bat austia ta...

(1) *Birbistu* bere esaten da; *gaztetu* bere bai.

—Istar bat ausiarren beste bat osorik daukana eztago ain tšarto be; baia *boltsa* bat euki ta bera galdu dabenak...

—Emongo iatzu biar dozuna ta gero *konponduko* gara.

—Eskerrik asko. ¡Neu esaten! «Andresa: gero ondo dšantziña dago, baia gero gitšien uste danjan...

—Iges barik gero, Manu Erramon.

—Bai gura badau. Aišek ostu deust: begidša letše.

—Bost edo sei ogerleko neuk emongo dotsudaz.

—¿Zetarako? Gurozu erosi neuk artu dodan *biletia*?

—¿Norakua da ba?

—Zaldibarrerakua ¡ta gure arro berezi! ¡A da onelakua! *Segunda*-kua artu bere ein biar.

—Gernikarako balitz, izan leike...

—¿Ezetedago ba Zaldibarrerakorik?

—Iges egingo dotsu ta geratuko zara diru barik eta *tren* barik.

—Nok erosi ezpadago, banua. Pekatu da, nik beti esaten dot, pekatu da ni Bilbotik iñorako astia.

—Ez estutu. Eutsiz bost ogerleko ta *maleterru* bat edo bategaz bialduko deutsagu mandatua erranari.

—Bai ta bera arrua dalako, *košian* bialdu nabelako, *segundan* ibiltia gura izan dabelako,

bañurik biar izan eztodalako, ostu deustela e-sango deutso gero. ¿Entzun? Arro bat dalako. ¡Eskukada diru ederra! Urte beterako ta biñarako naikua neban dirua. ¡Zoritšarreko Zaldibarreratia! ¡Baia neu beti esaten!

—Manu Erramon: Ara ointše irugarren tšiliña.

—Guuzan: aurtengua azkana.

—¿Segundara zuaz?

—Ni zeu zuazan lekura, dirurik emon biar ezpada, ezer ostu eztaisten. ¡Eguno onakorik dšazoteko bere!...

—Zagoz išilik. ¿Istar bat ausi baiatzun?

—¿Beti istarra? ¿Nire istarragaitik nok emon niri ostu dostezan diruak? ¡Emonguria izan nai leuke! ¿Salda garbidša eiñeko ala?

—Etzaitez baiña sutu. Urrengo *estaziñuan* ardao-tinditšu bat edo zerbait artu biar ko dozu-ta.

—¡Ai zuek! Ezagun da nok irabazten daben. Zuek or batian Almíkara, bestian Natšitura, bestian Arrietara Santu guztiai baketan itši gura eztotsezuela zabiltzenartian, gu ta gure modukuak (ni gaur ez, baia bardin da) itšasuak austen, dšo mutiñak, aurrera beti...

—Beti betikua zara zu, Manu Erramon. Barre eizu.

—¡¡Demorridšua!! Diru barik itši dabe bat, iñor biar dot, aurreratuko banaz; da lenengo lenengo *estaziñuan* ardaua dala, *sangridša* dala... ¡¡Demorridšua!!

—Ikaria kenduteko...

—¿Ikaria kendu neuri? Eruan dostena ekarri baleiste...

—¿Zelan izan da ba?

—Neuk baneki. Arro bat da gure errana. Oinenez etortarik bere gura ez. ¡Barrangeluko sasi-basuak balekidše zelan bizi dan bakotša! Sartu gara ba zoritšarrian ¿*tranvia urbano* edo zer da bera? ¿Ta zer dšazo da? dšazo biar zana. «Andresa: ¿*seguru gagoz?*» neuk gure neskatuari, *probentsiana* da bera, neskato ona, biargiña ta dzartadakua.

«Bai Jauna» berak.—«Eztakit ba.» *Karnaseru* bat papau-arpegiduna, atso lodi lodi upela lakoše bonbil bat...»

Adiskidea: irakurrizu barrero neuk len esan dodana ta gitši bat gora-bera iakingo dozu Manu Erramonek eta lagunak Zornotza-ingururaino eukir!ko autua.

II

Zaldibar-ko gelune edo *estaziñoiak* eztauko ezetariko ikustekorik. Alper izango litzake bertako barri emotea. Zer-ikusit andiak baleukaz bere, niri neuri Manu Erramonegaz ioan nintzanean ezeustela uste dot ardura andirik emongo.

Bertara elduteari luze eritšola, aurretiaz egoan zutunik Manu Erramon, esku batean eu-

ritakoa edo *guardasola* ta bestean narruzko kutša edo *baula* ebazala.

Iatzi zanean urreratu iakon mutil gazte bat; kendu nai izan eutsan eskuetakoko zera ta iaramonik egin ezeutsanean «Jauna, ezaldago zer eruan?» esan eban mutilak.

—¿Zer eruan? Ene semetšua: daukadan nai-bagia eruan albadok, eruaik ordu onian.

—*Maletatšu ori...*

—¿Au eruateko beste indar eztaukagula uste al dok? Erakutsidak mesedez ostatu bat, bakar-tadekua ta euskaldunena, dotorrerdša bakua ta ona.

—Neure izeko batek dauko baserri-etše galanta. Gipuzkoako senar-emazte batzuk dagoz bertan ostatur, etšeke legez dagoz.

—Orduan araše.

—Baiña bekart maletatšua. Gure izekuarenera datozeanai duarik eruan biar izaten deusat.

—Orretara bada, eutso.»

Ostatura ioazala arraindun batzuk ikusi ebezan lebatzak salduten da Manu Erramonek esan eban:

«Adiskidia: nik uste neban Zaldibarren da onetan, arrankariak eta eskailuak eta aingira tšikiak izan ezik, bestelako arraiñik ezeguala. ¿Baetadakie bertan lebatza zer dan?

—¿Zer dan? Bai ondo be: edo Zaldibarren edo iñun ez.

—¿Errekan artuta ala?

—Errekan artuta ez, Ondarruatik ekarrita baiño.

—Orduan isilik nago; baiña Ondarrutaren azalian neuk dakidazan batzuk balegoz, sarri iruntsiko zendukie zuek toila, lebatza dalakuan.

—Eztakit toila zer dan.

—¿Toila zer izango dok? Toila: arrain mamin-zuri gozo gozua, oberik egon ezik eta gose izan ezkeror.

—Onetan orretan eldu zirean ostatura, agertu zan etšandera edo ugazaba-andrea, ostatuko egosaria zeinbat izango zan iakin eban gure gizonak, kendu ebazan bideko soñekoak eta etše-ko gizan iantzita agertu zanean, «ongi etorri» esanda urreratu iakazan len aitaturiko senar-emazteak.

—Etše-ko mutilak esan deust *probentzianuak* zariela; baia esan ezpaleust bere, igarriko no-tsuen.

—Guri ere esan digu etše-ko andreak bizkaitarra zerala ta ezagun dezu bai izketan.

—¿Eztakizue nun dagon Ogoiño?

—Guk ez.

—¿Matšaku?

—Ezta.

—¿Ibili zarie gero zeuek iñoiz itšasuan?

—Ezkera ibili ta ibilteko asmorik ere eztegu.

—Aolan bai ¿bestela nok eztaki Ogoiño zein dan? Ni naz Elentšu eta Ibarrangelun biñartian dagon etše bateko semia: liorrian baiño itša-

suan luzaruago ibilidša. Amaika urte oindiño bete barik neure osaba edo bigarren osaba bategaz urten neban *katšamarin* baten tšotšo edo eskaratzeko mutil. Dirurik baiño zapladakorik geidšago ibabazi neban lenengo bost urte ta erdidšetan: lapikuari (zuek *eltzea* esaten dozue guk *lapikua* esaten dogun tresniagaiñik) lapikuari gatz gitši egiñen neutsala ta zapla bellarrondoan, goizetan lo-gura izaten nintzalako, zapla; aparidša egin-ariña edo egiñegidša eguala ta zapla. Ni neuriak ikusiña nago.

—¿Gaur orregatik etzera gaizki bizi?

—¡Gaur! ¡Balekidše eztakidšenak! Gero berrogeta amar urte ondo bete-arte itšasuak austen ibili nintzan; lenengo *mariñeru*, gero *piliñu* ta gero *kapiñan*, Cuba-ko itšas-basterretan. ¡Amaika izerdi eder!...

—Amaika diru eder ere irabaziko zenuen-ta...

—¡Dirua! Gaur nire ustez errezago irabazten da; orduan obeto gorde. Seme bat daukat, gizon ederra bera, nik baiño geidšago asko geidšago irabazten dabena ¿baia zer? Zelan irabazi, alan irazi. Ezkonduta dago, andra ona da bere emaztia, baia arrotšua, albokua baiño gitšiago izan gura eztabena. ¿Albokuak *pianua* dauko? *Pianua* berak bere. ¿Albokuak *kolejidšora* daruaz umiak? *Kolejidšora* berak be beriak. Len esan dodana: zelan irabazi alan irazi. Nik irabazi baneu semiak irabazten dabena, urrezko etsia egingo neban.

—Ta zuk ere kapitan ziñanean emango zenituen zapladak.

—Orretan bai, egidša esan biar da. Gu gaurko gizonak baiño gogorraguak eta gaiztuaguak giñian. ¿Gaur zer egiñen dabe? «Tšo-tšo ¿eztok egin gura? Tira kanpora, nor-artu egongo da.» Guk ez: guk egin gura ezebanari *leña* emoten geutsan ¿da zer dšazoten da? Orduan tšarrian tšarrian, zapladaka ta zartadaka, mutil zintzo menak urteten eben; gaur barriz onian onian bertan bera itši ta *tunantekeridšan* maisu dira gaurko itšas-mutilak. Orain zeuek esango dozue zein dan oba: ala ordukua ala gaurko bizi izatia.

—¿Nola dezu zuk izena, guk iñoizko *denboran serbitzeko*?

—Nire neuri *Bautismuan* ipiñi eusten izena *Manuel Ramon de Jáuregui y Arrasate*; baiña beti esan deuste Manu Erramon.

—Orduan Bizkaiian ere, Gipuzkoan bezela, erderarik eztakitenen artean ere erderaz ipinten dira *Bautismoko* zer oiek.

—Bai, ene andria. Oraingo elizgizonen artian badagoz orregaitiño edo latiñez edo euskeraz Elizako liburuak egin biar litzatekezala diñuenak.

—¿Baiño zeñek utzi ordea?

—¿Itši ez? ¿Euskalerridšan ezalgara bizi? ¿Geure Erridša ezalda au?

—¿Eta Bilbo-aldean ze berri?

—Bilbo-aldian barri tšarrak. Eulirik aiña lapur gitšienez etorri dira. Aurrerantzian nik ez-tot etsetik surretako zapirik bere atarako.

—¿Ezer, *komedi* tšarrrik gertatu al zaitzu?

—Tšarragorik ezin, diru barik itši nabe-ta. Erranari *kartatšu* bat egiteko nago; betaurrekorik ez-tot ekarri, ta ni betaurreko bariko nako arazuetan galdua naz. Mesede eiazue zeuek ipin̄ia paperean neuk esango dotsuedana: orduantše dšakingo dozue nire *komedi*dša. ¿*Karta*-paperik eztago?

—Gu geunden oraintše *eskribi*-tzeko; baiño pozik egingo degu.

—Eskerrik asko ba ta lenengo lenengo ipin̄izue berba onek:

—Zaldibar-tik diru bako egunian, urak artzera natorren azkenengo urtian.»

Gero beeko aldetšuan (zeuek ondo dakizue-na) ipin̄i beste onek:

—«Neure erran asko badauko asko biarko dabena: Luma bako tšoridša legez nago. Zuk zoritšarrian asmauriko *tranvidša* zoritšarreko aretan igarri barik lumatu nenduen. Zeuk daki-zu zeinbat ogerleko eder zirean, da *periodikeru*-artian ezaunik baldin badaukazu, ipin̄i eikezu nire galtzaidša. *Periodiku* an duarik ipin̄iko ez-padabe, oba da isilik egon: batetik, alperreko gauzia izango dalako; bestetik, lengo diruak naikua ta larregi dirialako, barririk emoten asi barik be. Bost ogerleko emon eustazan Ibarran-

geluko andra batek, Kosepa Mamiñen alabiak. Ainbat ariñen bialdu urrengo dan bategaz.

Kildotšuri aurten ezteutsat erroskarik eruan-go: bakizu zegaitik. Ostatu merketšuagora etorri biar izan dot. Osorik eldu banintz be, eneuke damu izango emen sartua. Ondiñok ez-tot ezer artu ta ezin esan neike zelako maidša daguan; baiña garbitasuna baiño besterik ezta emen agiri ta *majo* egongo naz.

Senar-emazte probenzianuak dagoz ementše. Eztiñot ezer eurokaiñik, eurok dirialako *karta* au egiten dagozanak. Neure arimientzako *meza* batzuk atarateko ustia neukan; da niri osturiko diruak agiri ezpadira, aretšek izan daitezala neu-re arimiaren onerako.

—Baiño adi zazu Don Manuel; guk ezin ipi-ñi genezakegu iñola ere zuk diozun *dša dše* ori.

—Gure erranak berberdigaz osua adiñuten dau ta *jota* nai *je* nai *ekitš* ipiñiarren bardin izango da.

—¿Nai dezu berriz ta geldika esaten asi?

—Tira ba.»

Onetan itši nebazan, ez luzeegitutearren.

AMASEIGARRENA

EUSPEN-ESKEAN

I

Adiskidea: oraingo ibilera au eztoz egin zuk iakin daizun, zure irakurleak iakin daien baiño. Zuk beste alde batetik iakingo dozu.

Arako *Euspén-eskean*, kamaleon deritson aberetšua legez aize utsez bizi izatekoa etzarea-la, esan zenduanean, neuk neure bururako esan neban: «¡A gizagaisoa! ¿uste dok ik, EUSKALZALE, ori esan doalako beste barik, culiak eztitzara legez, eusleak dirua eskuan dabela Bilboko Jardines-kalera ioango direala? ¡A gizagaisoa! Itšaraik puzka baten. Nor edo nor diru-eske bialduten ezpadok, cuspenok aidean ibiliko dozak.

Bilboko ta Erandioko ibarren bitartean mendi bat dago, Artšanda izenekoa, burua lotsaz legez lurpean daukana, bizkarra ta egi edo egalak baiño eztabezana.

Egal onetan zear bizkarrera elduteko bide ziorrak ugari dagoz, bai Bilbo-aldetik eta bai Erandio-aldetik.

Bizkar onetantše arazo barik nengoala Son-

dikako Eliza-aldean, zer bat ikusi neban, zer zan enekiana. Urreratu nintzakion, begiratu neutsan arpegira, sur galanta eukan: zana zala euskalduna zan beintzat.

«Aizu, esan eutsan berak ume-koskor bati:
¿Sondikako apaiz nagusia non bizi dan baal-
dakizu?»

—¿Zeeeer?»

—Abadea, Abade nagusia, Erretorea, Parro-
koa.

—Aortše bizi da. Ortiše aurrera ta aurrera
zoaz, eskerreko aldean etše bat dago andi andi
bat: antše bizi da.

—«Miñ esker».

Arik gerotšuoago, kisket-ots batzuk iota e-
makuma bat agertu iakon.

«¿Goiean alda Abadea?»

—Abadeak asko dagoz goian.

—Obe, etšerik etše ibili bearrik eztet izango.

—¿Nor zareala esango dot?»

—EUSKALZALE-ren izenean diru-bila dato-
rrena».

Emakumea goiko gizategi edo *salara* eldu
zanean, *orkesta* ta guztiko *koro* baten antzera,
bonbil edo *botela* ta tšaramel edo *plater* da ka-
tilu ta edontzi ta beste tresna batzuren zaratea
lagun zala, mormošieta andi bat entzun neban:
zer ziñoen enekian.

Igon eragin eutsen dirutan ebiñenari ta arik
lastertšura mailetan beera etorrela igarri neba-

nean, urreratu nintzan atera: lengo mutil gazte sur galantđunak *Aitearen* egiñaz urten eban.

Urten da gero beste bein edo birritan *Aitearen* egin eban, agiñ-arteana esanaz:

«¡Au dek au! Amaika apaiz gutšienez bazeuden, eta amaikaren artean eusle erdi bat baizik ez: erdia bakarrik ordainduko duela. Besteak aitzakia *franko*: batak Bilbaora joaterakoan *bueltatšo* bat Jardines-kalera egingo duela, besteak euskerarik eztuela bear...

Onek baiño euskaldun oberik basterretan arkitzen ezpada...»

Irugarrenez *Aitearen* egin, bekokiko izerdia kendu ta eguzkitakoa zabalduaz, Elizaldera ioan zan.

Elizpean burdin-sare-ondoan gizontšu zaar bat egoan, eguzkiaren igesi atsedeten. Onegana eldu zanean, itandu eutsan gure ibiltariak:

—Arratsalde on Jainkoak diola.

—Alaņ ekarri daizula.

—¿Egingo zenuke mesede esatea zein dan urren dagoen erria?

—Urren dagoana Sondika da.

—¿Sondika ezalda auše?

—Orregaitik dago urren.

—¡Gizona! Nik baiño obekišeago bazkaldu bear izan dezu gaur. Emendik irtenta ¿zein da erririk urrena?

—Or beera artuezkero Asua, Erreal de Asua; gorantza bazoaz, Luio.

— Miġa esker.

— Zuk...u berbetan beintzat Probentzianoa dirudizu. Bertsoetan bere iakingo dozu arean.

— Bazkalaurrean izketan ere doi doia; ta arean edo marean goizeko zortziretatik onera ezta nire barrenean aizea ta autsa besterik sartu.

— Orretara ezkerro bertsoen ordeztarrausiak urtengo deutsu ta zoaz, gizagaišo ori, norabait zer edo zertšu artutera.

— Agur, Aita.

— Agur, seme: ondo ibili ta osasunagaitik egin.

II

¿Nun itši neban neuk, EUSKALZALE, zure batzailea? Sondikako Elizpean auza. Arrezkero asko ibili naz: etzan bera bere gitši ibiliko. Nik, egia esan bear da-ta, galdu dot beren azatza; ta eneuke esango, urkamendira eroan banendie bere, nundik nora ibili etedan; baiña iakin ezarren, igarriko neuke gauza bat: ordutik onako egunetan goiz atan baiño diru geiago batu ezpadau, eztautsela ostatuetako otseiñai eskupeko andirik itšiko.

Ni orra ta ona ibili naz: batean Zestona edo Zestua-ko euskal-iaietan, gizakumeai *ji-ja*, astakumeai arrantzea ta idi-beai muurrusa gogorra entzuten.

Badakit EUSKALZALE-ren izenean norbait an

izan zana ta ak esango dau beste irakurkizunen baten nik orain esango neukeana.

Gero ikusi dodaz bai Bizkaian da bai Gipuzkoan arrenbide edo *errogatiba* andiak egiten, aspaldiko legorte au ainbat ariñen euritu daitean.

¿Badakizu zer otu edo bururatuten izan iatan *ora pro nobis* entzuten izan dodan bakoťean? Nasai-aldietan gizona zeruaz aaztuko ezpalitz, elitzatekeala estualdietan zerua gizonagaz onenbeste aaztuko. Sermolaria banintz (Vascofillok beste gauza bat uste izanarren) enintzakeala uste dot tšarrena izango: garratza bai beintzat; eta nire esanak bat edo bati tšut edo min eragiñarren, enintzake isilduko: aragi mindua osatuteko, min eragin bear izaten da.

Onetan orretan Azpeiti, Urrestiā, Errezil edo Rejił edo dana dalako erri ezil ori ta besteren bat lepo-aldean itšita, mendi-tontorrik tontor, lorarik lora erleak legez, apurren baten ibiñi ta gero, Tolosan sartu nintzan. Nire poza, adiskidea, zure mandatari batzañlea an ikusi nebanean, Eskurik euki izan banau, pozaren pozaz lepokada eder bat emongo neutsan.

«Erri, esan eutsan gizon lodito eder batek ¿i ere emen aiz?»

—Ez emen, ni Pekin-en.

—Ongi etorri.

—Bai etorri, baiño irten uste det gaizki egingo dedala.

—¿Zer dek ordea?»

—Dirua biltzera etorri ta diruak iges egiten zirak.

—¿Ta nori ez?

—Iri ez beñik bein. ¡Alegia! Ire lepoa ta eskumuturra ta gilbor aundi ori ikusten dituen guziak esango likek diru asko sartzen dekala urdaiñean. ¡Ezaiz gaizki bizi!

—Osasuna iduki, jateko gogoa ere agiñak puzkatu ala eta geiago diagu ¿ta *flakatsea* nai dek? ¿Badakit zer esango liketen, ni gizona ez-paldin banengo?

—Laister il bear dekala.

—Ori ere bai, baiñon edo zor asko norbaiti diodala, edo gosez bizi naizela.

—Orduan orain esango ditek artzeko asko ta sartzeko geiago ditukala.

—Baita, gaiñera *ultramarinoak* saldu bear dituenak, *jenero* onak dituela jakin-arazteko, *muestrariotzat* gorputza artu bear dik: gizen badago, *muestrario* ona badu, bezeroak edo erosleak, kanpotar aberatsengana *musikoak* bezin arin, bilduko zitzaizkio.

—Ori orrela dek; baiñon *Ultramar* argal argal, ia ñean dagoela, *ultramarinoak* gizen gizen egonezkeroz, edozeiñek esan lezakek ire *jenero* oiek eztirala izatez izenez diotenak.

—¡A tšatšo tšatšoa! Ezagun dek aspaldi ontan Tolosan ezaize¹a. Gure Ultramar, ardotan beintzat, Naparroa dek erdia, beste erdia or aurrean ikusten dekan ibai edo erreka ori.

—¿Bapo! Orrela ni ere...

—¿Ze diru bear dek ik, edo zertan ari aiz?

—¿EUSKALZALERen entzuterik ezaldek? ¿Bilbo-ko albistari edergarridun edo *errebista ilustrazio* ta guztiko bat? Uraše zabaltzera etorri nauk.

—¿Ortarako badakik zer egin bear dekan? Apaizen etšcetara joan. *Agur Mariarik* ere etzekitek euskeraz.

—¿Ezetz? ¿Ori ere esan? I beti berdin.

—Baita aiek ere. Joan ai bigar, astirik badek, Elizara Meza guzi guziak entzutera; ta batek bakar bakarrik euskeraz esaten dizkik *Agur Mariak*; beste den den denak *Dios te salbe Maria*. Ik ikusiko dek. ¿Gero nola nai dek Azpeiti-aldean Gartzia, Tolosa-aldean Tobar, Zumayan Santillana ta Bergara-aldean Toca Diputautzat ez edukitzea?

—Ta aizak ¿beste berririk ezaldakik?

—Bat bai gutšienez. ¿Badakik zein dan *Calle de San Francisco*, oraingo izen berriari *Prailekalea*? Tolosa ko kalerik bikaiñena. Erdaldun baten izena ipiñi bear omenziotek.

—Ori eztek egia izango.

—¿Egia? Begia bezelakoa.

—¿Ezalda Tolosan izan euskaldunik, ortarako balio izan duenik?

—Bai amaika. ¿Baiño zer nai dek? Elizak eta eliz-gizonak (oraiñarte onek izan dituk gure euskerazko gauza ta izate egiazkoenak) erdaldundu

edo erderazkotu-ezkero, kaleak euskerazkoak izatea? ¡Tšatšoa!

—Tširristek au baleki, negar egingo likek.

.....

Tširristek au badaki. Negar egitea emakumeentzat itši ta lan egitea dau gogotan.

Euskalerria maite dozuen elizgizonak: egunik tšarrenak ioan iakoz euskereari ta Euskalerrari.

Aurrera: lan, lan.

~~~~~

# AMAZAZPIGARRENA

BILBO-KO AZOKARAKO BATZUK

## I

Igazko EUSKALZALEK argitaratu eban *Goizaldeko loa* izena daben bertso edo neurtitz-talde eder bat; eta koblakariak lurreko zerua dala esaten euskun goizaldean lo ta lo egitea. Ni koblakaria banintz, *Goizaldeko eguskia* izentzat ipiñita zerbait egingo neuke. ¿Nun dago gauza ederragorik?

Umetan, izaterik itñusi ta motsenak bere eder da ikusgarriak izaten dira. Asto zaarrari ezin begiratu leio, biotza errukiz da begiak bekarrez edo makarrez edo pistaz bete barik. Umetan barriz, astoa astakume dan artean, gauza zoragarria izaten da ikustea. Gauza itñusiak edertuta ikusten doguzanean ¿zein ederrak etñakuz izango, eurenez ederrak direan izateak, umetan, jaioparritan ikusi-ezkero? Eguzkia eguerdi-inguruan da arratsaldean dakusanak eztaki eguzkia zer dan.

Erdu, lotia, neugaz mendi-tontor batera: ikusi eikezu egun-sentia, itñaso-barrutik eguzkia tenka tenka geldi geldi ekarriaz, izarrak banan



banan puzka amata edo itzali edo itzungiten; ikusi eikezuz bedar da lora zimel garuz edo in- tzez bustiak, euren buruak iaso ta eguzkia noiz urtengo pozarren; ikusi eikezuz tšoriak lumaa azkortu, burua egapetik atara, gorputza astindu ta eztarritšua labanduten, egun-sentiaak dakarren argi bizigarriari lenengo agurrak entzun eragi- teko gogo berotan; entzun eikezuz gero solora astiro doazan idi-beien murrusa ta arran-otsak, itzaiñen «aida gorri, aida naparra» eurrez esa- teak, tšorien tšioketaak, oiño arrautzagiñen kar- karašak, ardi-bildotsen beekadaak, burdien i- rrintza zoliak. Arrausika nai amesetan nai zurru- ka begoz oe bigunetan, gaua luzatu nairik, goi- zaldean lo ta lo egiten daben nagiak.

Zu, irakurlea, bizi-maitea bazara, tira neugaz Bilbo-ondoko *Santo Domingo* deritšon mendi- burura; ta len esan dautsudazan otsak entzun da gero, eguzkiak matraiña-ertza gorrituten dau- tsun-artean, begiratu eikezu Derio ta Zamudio- aldetik piñan piñan datozen emakuma zaar- gazteai: Bilboko azoka edo merkaturakoak dira.

Ibiñeran ezin esan leike zein dan zaarra, zein gaztea: uriko lotiak aldatz-beeran baiño aldapaz gora ariñago egiten dabe orrek; anka zordunik eztago euron artean, guztiak datoz bizkor biz- kor da tšairo tšairo.

Urreratu gaitezcan eurokana, ezautu daiguzan. «Antoni, gaztetatik asi zara zeure birlobatšu oni Bilbora-bidea erakusten.

—Zer da egitea? Aspaldion egon iat esaten: Amama ¿noz eroango nozu Bilbora? Bilbo ikusi nai dot. Eta nik eguraldi ederra dala ta aritik arako soiñekotšusakaz ekarri dot. Nik egin dodazan osterak egitekoa bada, erruki dot enetšu au.

—¿Zeinbat urte da, Antoni, Bilbora-ostera zabilzala?

—¿Ni amabi urteko neskatilatšua ekarri nenduen da arrezkero banabil. Irurogeta lau urte daukadaz lepoan, da orain zeuek kontuak atara.

—Bai, Antoni, lepoan izango dira urteok; oiñetan beintzat erdiak bere eztaukazuz.

—Kontze: oriše gura neuke; baiña nik esaten dodana. «Antoni: Bilboratea isten dozun egunean sartuko da zure zanetan eriotzea ta egungitši barru biotzeratuko iatzu».

—¿Batetik ori ta bestetik beronek ataraten daben diru ederra! ¿Konturako ezalda?

—¿Bai! ¿bai! ¿Konturako dira atzamarretan darabilguzan lauzuriko-laumarikoak! Begiratu egiten dautsuguela; aše, ze bestela ¿tšulut! Ondo begiratuan laumaraiko diruak zortzi maraikoa iruditen dau.

--Birlobatšu nagosiari bere *kintako* sei mila errealak drangada baten emonda, etšaguntzeari bere solo barri bi geituta, azkenengo alabea Derio-ko etšaguntza onenean sartuta...

—Kontze ¿besterik ezer eztakin, ene alabatšu ederra? Astotšua, tira aurrera ¿ala Katalin-



tšuren astuntasunak zaukaz atzeka ta nakar? (1).

Kontze, ene alabea, iauregi aundiren bat edo itšasoko ontzi ikaragarririk erosi dodanik? ezta zabal?

—Antoni: etzauguz salatu zeu mindutearren. Urte on askotan atsegindu zaitezala zeure ondasunokaz.

—¿Urte onak diñon, Kontze, urte onak? Orrek ioan zirean.

—¿Urte onak ioan direala ta birlobatšuari Bilbora-bidea erakutsi?

—Tšarra ta ona ezaututea gauza egokia izaten da. Nik neure leena esan daiodanean, iakingo dau zeintzuk zirean urte onak; eta berak beren begiz iakingo dau zer dan tšarra.

—¿Urte orren tšarrak dira onek?

—¿Onek? Ez eder ederrak? eta etorteko dagozanak? Nik neuk eztakit ezer, baiña geure etše-ondoko abadea guztiz argia ta adimen andikoa da; ta ak diño Bilbora, leenak nora eztireala, edonundik bideak betean datozala erdaldunak, zeinda neguan otzez igesi toki biguntšua goetarra urrunetatik etorten direan egaztien gizan. A diño berak. Guk bere badakusku.

—¿Ikusten dogula?

—Bai, Kontze. ¿Zegaitik uste dozue Bilboko uriak ipinten dauskuela gauza bakotšeko onen-

(1) *Erderaz: retraído y desgano.*

beste sartsari (1) edo *petšur*? Arrautzakaitik au, oiñoakaitik ori; esnea bada, edo ura ezarri bear edo ezer ezin irabazi; artšo edo bildotsakaitik... esan bere eztot egin nai. ¿Au zegaitik? Gauza agiria da. Kanpotarrak edo arrotzak arrausika gosez datoz, Bilbok ezin leioe orrei egin, musturreko edo *mosal* barik dabilzan tšakurrai egiten dautsena: Bilbok, zelan edo alan, iaten emon bear. Onetarako udaletšeko kutšetan (gure auzoko abadeak diño udaletše *Ayuntamientoko* e-tšea dala) udaletšeko diru-kutšetan eztauko guztiai iaten emoteko beste ¿ta zer egiten dau? Errazen iatorkana. «Antoni Derio, Kontze Zamudio, ¿bildotsak eta oiño aketa areik arakoa saltzera zatoze? Emoizue onenbeste, arrotzen arrausia osatuteko, bestela eztago saltzerik».

. . . . .  
Onetan orretan eldu zirean Santo Domingo-ganera.

## II

Antoni, Kontze, Katalintšu ta beste emakuma zaar-gazte bizkorrak *Santo Domingo*-burura eldueran, Antonik buruko otzarea beeratu, eskua luzatu ta birloba Katalintšuri berba onek esan eutsazan:

«Kutuntšu, Amamaren maitea ¿zer egiten

(1) Berbatšu au *sar (tutko) saria* adierazoteko da; zeinda *eskontsaria* (berba oitua, *ilote* adierazoteko) *eskon(duteko) sari*-tik legez.



daun Aitak, Bilbo erakutsiko dauna!a esaten dabenean?

—Okozpetik esku biakaz oratu ta jaupa! goratuten nau.

—Bada nik orain, okozpetik oratu barik, erakutsiko daunat Bilbo. Orra.

—¡Ene! ¡Ori da bat! Errekan bere etšeak eta... zubiak bere aaaaundiak eta... ¡ene! Amama: an erreka-ondoan dagoan etše orizka zabal zabal zabala ¿zein da?

—*Umibersidadea*, Jesuiten etšea.

—¿Zetarako da?

—Īlun dagozan buruak argituteko.

—¿Ta an onantzago oker-okerka dagoan etše gorria?

—*Aduana* dau izena.

—¿Ori zetarako?

—Ori zakel utsak bete ta esku otsak bertuteko.

—¿Ta or dagoan arri zuri-piĪo ori?

—Orrek *MaĪona* dau izena. Orreri euskera onean obieta (1) esaten iako, Derioko euskeraz *kanposanto*. ¿Eztakin, maitea, Derion bertan egiten dagozan obieta zabal ederra? Au aren Ama da. Au ilten dago, a iaioten. Au ĩl-orduan, iaioko da gurea.

—Amama ¿astorik eta idirik eta burdirik eta... badago Bilbon?

(1) Gipuzkoarrez, *ilĪrri*.

—¿Astoak? Bai, enetšu, edonun legez emen bere: kadera bikoak, laukoak baiño geiago ta andiagoak.

—¿Ta arrantza egiten dabe kadera bikoak?

Bai ta murrusa bere: erderazko arrantza ta murrusak geienak.

—¿Bolatokirik? ¿Sakristaurik?

—Esango dogu ori bere. Goazan orain aurrera ta ordu-lauren-barru ikusiko donaz, enetšu orrek, ordu-erdian esan ezingo neukezan gauza asko. Orain *Salbe* bat esan bear da emen, Begoñako Elizea ikusi dogu-ta.»

Begoñara-artekoa nik esango neukean baiño lenago egiñ eben. Andik Bilbora, oinkadarik aña itaune ta erantzupen Amama-birloben artean eginda, eldu zirean *Instituto*-aurreko azoka tšikira.

Katalintšu asi zan, aoa zabalik ebala, alde guztietara begira: berbaz utsitu edo ustutu ta adurrez bete iakan ao barrua. Sei bidar gitsienez Amamak esan bear izan eutsan «tira aurrera».

Otzarak agertu ta salgeiak zabal zabal ipinten egozala, urreratu iaken Amameru edo tšinel edo *abuazil* bat; eta umeak nor zan itandu ebanean, Kontzek erantzun eutsan: «ori Bilboko Alkatea».

—Ez siniztu, maitea. ¿Badakin, euria danean, zelan egoten direan gure etse-aurreko teilatuti itušurak aoan artu nairik, Simon da Blas da maisuen seme mokotia ta gure Balentin? Are-



šek baiño bere zer-egin gitšiago dauke onek. Maitea, iezarri orain neure ondotšuan, da lo-gura baaz, burua neure altzoan ipiñi ta lo, maitea: gero aratuko doguz Bilboko basterrok».

Onetan Askao-kaletik agertu zirean iru asto tšiki, garbi ta lepoko estalki erdi-gorri, erdi-areakaz ikusgarrian apainduak. Izen da guzti-koak zirean. Euren izenak estalki-barrenean, saiats-ondoan egozan ezarrita. Bata zan CORALA, bestea CAPITANA, irugarrena LUCERA. Iru-rak koskabiłoz edo tšintširriñez beterik (eztakit zıur koskabiłoak ala tšintširriñak zirean, zaratatsuak eta zarata zolidunak zireana bai) tšaka tšaka etozan azokara, iagolea edo astazaiña atzetik ebela.

«Tšotšo, Deustu-ko astoduna ¿zer dakak gaur bere? ¿Geure aza-orriakaz bete gura aldautsek bestetan legez pizti orrei urdaıla?»

—Kontze: atzo bere tšarto esaka ipiñi zenduan mutıla ta ezeiñ iñor zirikatu.

—¿Zer dago ba? Barre egin daigun, eraz gagozan-ezkero. Tšotšo ¿nora dakazak piztiok?»

—Piztia nor dan atzo entzun zenduan.

—Tšotšo: onik aurrera goizaldean otz egingo dau ta estulka asiko iatzuz lagunok, bularretik gaisotuko iaazak eta gero euron esnea, gitši dala, eurontzako bear izango dok.

—¿Estulka? Estul egiten dabe onek, aldapaz gora doazanean, udan bere; baiña neuk bada-  
kit nundi.

—Eta esnea ¿zegan emoten dok?

—Atzo bere esan neutsun: erdiak eta beste ainbestegan.

—¿Eta nor da euron esne-zale?

—Ezpan-ganean surra dauken batzuk.

—¿Euk edango euke, tsotšo, salgei darabilan esne ori?

—Atzo bere esan neutsun: eztaukadala barriketa-gurarik.

—Esaten badok, iru azorri emongo dauadaz: irurontzako bana, alkarren apeta edo zelorik euki eztaien.

—Zeure bei pekorozgiñentzat oba zenduke gorde aza ustelok.

—Ara, tšotšo: gaztaiña-gorringo-aldia laster dator, da orduantše tšapelkadea emongo dauat neure itaune bati erantzun gura badautsak.

—¿Benetan?

—Benetan. Asto orren esnea osagiñe edo medikoak agindua izango da, eztiñot ezetz ¿baiña eztabe egingo esne orregaz, osagarri edo *botikako* mingots askogaz egiten dabena? ¿Loitegi edo *komunera* egotzi edo bota edo iaurti; ta gero osagiñeari artu dala esan?

—Emakuma tšorierritar barritšu: zuen bei-esne dontsu ori, guk legez, zeuen etšean barik, kalean eratziko bazendue, etzendukeez eukiko belarri-ertzok orren mardo, soiñekook orren a pain da garbi ta barri.

—¿Zer bada, tšotšo?



—Etšean pitsarkada bi eratzi-ekero, bidean iturria ta osin edo pozua ugari dago ta Bilbora sartueran etšeko pitsarkada bi lauturik saldu-ten dozuez. Neu bere bei-zaiñ edo iagolea izan naz gero.

—Tšotšo guzurti: oa eure bidean, iñor iraki-ten guzur orrekaz ipiñi barik.

—Emakume adurti: lapiko tšikiak arin dira-ki; ta zuri ta zu-lakoai esan leioe... neu badakit.

—¿Zer?

—Lapiko tšiki.

# AMAZORTZIGARRENA

## TŠIRRIST ONDARROAN

Aspaldi guztion nenbilēn, lagun zaarra, itša-saldera eldutšu bat egiteko. Baiña, badakizu bada, batean au dala, bestean ori dala, egunak eta gabak neska-mutil-kondotšuai opor-egunak edo *eskolarik* bakoak legez ioan iataz: igarri barik.

Zuk, astun-zamarra zagoz-da, goietako barri baiño obeto dakizu beietan zer dan edo zer ez-tan. Da enintzake arrituko egunen baten esan-go bazeunst Oiz da Anboto ta Kanpanzar da beste mendi askoren entzutea baiño eztaukazu-la: iñoiz etzareala euretan egon.

Ni sua langošea naz: goi-zalea. Ikusgura andiren batek beietara ezpanaroa, odeietatik urrago bizi izaten naz ni errekazto ta arro edo troka-arteetatik baiño: gizona izateko iaio banintz, baserritarra izatea naiko neban; egazia izan banintz, arranoa; piztia izan banintz, euli makurra (erderazko *tábano*); aberea izan banintz, ba-sauntsa.

Gorputzik ez arimarik eztauken izateen artean, neu nazala uste dot goi-zale bakarra: go-



sea, egarria ta eriotzea neure antzera ez gorputz ez arima bakoak dira; ¿baiña noiz ibilten dira ni legez odairik odai, edurra ta euria ta tšingorra zelan sortuten direan ikusten? Goseak urdaiġetik eztau urten nai izaten; egarria ao-barruan bizi da; eriotzea osagiġe edo *medikuen* mando zaarrai arin ibili eragin eziñik ibilten da. Ni barriz, zuek odaipean otzez kikilduten, euriz zukututen, nagiz arrausika zagozen-artean, ni odai-ganean eguzkia ta izarrak bira-biraka alkar batu eziñik ikusten nabil; ni, nai goizaldea dala, nai ġluntsea dala... baiña gatozan arira.

Ataun deritšon auzotegi batetik Miiġudi-kora, Miiġudi-tik Ojola-ra, Ojola-tik Mugartegi-ra *tipi-tapa* nenbiġela (zuk ez eze *karabiñeruak* bere eztakie nun dagozan Markiña-Lekeitio-bitarteko auzotegi oneek) Ondarroa-aldera Berritu-ko bidet barrian zear zalpurdi edo *koġše* bat ikusi nebana, leiatsu edo *priesa*-ka etorrela. «Alagala ia-tort» esanda barrura sartu nintzan.

Zortzi bidazti etozan: lau alderdi banatan. Eskerreko aldean atsotšua polit bat, berrogei urte-inguruko gizon sendokote bat, zazpi-zortzi urteko mutil bat eta Elizgizon galant bat. Eskumako aldean beste lau: lenengoa mizpiġa-arpegidun erdaldun maisu-antzekoa, bigarrena alargun gaztea, irugarrena atso zaarra, laugarrenari sei bat urte leporatu-etzkeroko agurea ao-betean esañ leio. Atso biak zirean berbaldunenak; mizpiġa-arpegidunak, ordurarte eztakit, baiña ordutik aurre-

ra beintzat zigarroak erre ta erre baiño besterik ezeban egin: ez murtik, ez irri-barrerik; alargunaren lepo-atzetik gorroa bota kappora, ori bai, ta noizean bein estula, estul sendoa: dana dala-koa dala, nire ustez, bularretik ezta ilgo. Elizgizona, liburu mardo bat eskuetan ebalá, argi geiago artutearren burua kanpo-aldera okertuta, *erresoak* egiten egoan. Mutiltšua, gorputzari estuaren estuz zirkin eragiñ eziñik, bideari luze baileritšon, aurrera begira ebilen beti. Alargun gazteak ezeban berba andirik egin, barre bai, barre lotsazkoa, onetarako esku bata edo besteagaz ezpanak estalduten ebazala.

Ni sartu nintzanean, atso zaarrenak cutsan: da onetšek izan zirean nik entzuniko berba osoak:

«¿Patšiko ori nor dozu ba?» Eneuke orregaitiño esango «dozu ba» ala «dozu be» entzun cutsan.

—¿Nor izango dot? Semea. Ez neurea dodalako; baie (1) mutil esanekoagorik, mutil zintzoagorik, menagorik, maratzagorik, goiztarra-  
gorik, gordeagorik gitši; egongo dira banakak: nik ¿zetarako da bestera esatea? ezto bat oin-  
diokarren ezetu (2).

—¿Da luzaro daa (3) berton?

—Sei ilebete ta iru egun: egin eginek (4).

(1) Baiña. (2) Ezanttu. (3) Dago. (4) Egin eginak, erderazko *cabales*.



Maiatzaren ogeta batean etorri zan da kontuek atara.

—Ezin jausi naz nor dan.

—¡Asko da! Zu egongo zintzen, bada, aren dendan: *konfiterue* da.

—¡Konpiñeruu! Ori esan bazendu lenaa (1)... Aiko esateutse orri Ondarruun.

—Mutil egileagorik, artezagorik, onagorik... ikustekoa leiteke. A artu bear daben-neskatilea ezta tšarto izango.

—Ezkondu bakuu da orretaa-ezkeotz (2).

—Gura genduke bada, beren gogoa alan dala, neskatotšu onik balego.

—Leku onera zatoz ba orretaiko kontuun. Baiña zuri nik arpegidšan igarteotsut (3): Karutšu nai izangozu *tratu* ori. Mutil ederra bai; baiña gero buruuri be begiitu biir jako (4).

—¡Buruu diñozu, ene andrea!

—Eztaukala esan baneu, Añiarenka astii (5) ondo zan.

—Sei ilebete naikoa izan ditu *konfiteru* ikasteko. Maisuak eta erriko abadeak eta edonok esaten ostien (6): Inesa, *lastimarik* asko da mutil orreri Abade edo eskribau edo ez irakastea; baie berak esaten osten (7) beti: «Ama, ni *konfiteru*; ni ez besterik, *konfiteru* ni, Ama.» —Izan

(1) Lenago. (2) Orretara-ezkero edo ezkeroz. (3) Igarten dautsut. (4) Buruari here begiratu bear iako. (5) Astea. (6) Eusten. (7) Eustan.

ai, bada», ta ekarri nendun (1) Bilbora ta aor dakozue: mutil zintzoa, iasekoa, argie, inor bada.

—Eztiñot ezetz: baiña Ondarruu ezta gero eguzki bako baserri eskola. Zeu Aifiarenka asi etzaitiin ze esango neuke nik gauza bat.

—Arira datorrena bada...

—Baiña jostorratzera be. Inogaiñik argidša dala ta argidša dala esaten daniin, da argitasunik ikusten eztaniin, guk alakuugaiñik esatogu ze ezpaiñiin kruseluu ipiñi-ezkeotz edonor dala argidša.

—Esaten notsan nik Patšikori. Ene semea: geien balio dabenari izaten iako ikusi eziña.

—¿Ikusi ezin neuk? Jateko balitz ba, agiñik pe ez taukat gauza danik eta...

—Itši daiogun oni. ¿Zeu Ondarratarra zara?

—Bai bat; eta ezpanintz, izatiarren buruko uliik emongo niñuke.

—Ongarroa erri barregarrie dala esaten d...

—¿Zeure erridša, zein dan be eztakit baiña, negargarridša alda? ¿Nun daa beste erri bat, Bilbo kendu-ezkeotz, plaza obakorik? ¿Nun pelota-leku ederragorik? ¿Ondarruu zer dala us-tozu?»

Onetan Elizgizonak abots edo au-ots lodi lodiaz «*Dominus det nobis suam pacem,*» esanda Aitearen andi bat egiñaz, atsorik zaarrenari be-

(1) Neuan edo neban.



giratuta, onelan edatsi edo berba egin eutsan:

«Jaungoikuak osasuna ta bakia deigula.

—Bai oriše: orrek euki-ezkeotz, ezkaa (1) tšarto izango.

—¿Zer darabizue?

—¿Eztau entzun beorrek ala? ¿Aiko baki nor dan? Ba ašen Ama dala ta mutil ederra daukala ta Ondarruun *kabidu* ezindako moduun dator. Da, biir bada (2), beonen erridšan tšalupaik be ezalduke, ezta pelota-tokiik be. Elizatzat barriz—aako *trostak* eifen difue ba olezko e-tše luziik eta *bašuk*—alakošii aldauke Elizatzat. ¿Da eztau beorrek entzun Ondarruugaiñik esan dabena?

—Agustiña ¿ikusi barik zelan jakingo dau ba zer dagon?

—Ikusi ezpadau, isilik egotii onena.

—Zeuk erakutsi ta orduantše jakingo dau.

—¿Neuk! Gobernadoriin Ama edo banintz, bai; baiña ¿ze uste dau beorrek? Onek daukan seme besteik ez lakuu, iñun eztaan lakošii eukitā, egon pozik, naiko dabela-ta.

—¿Ene andrea!

—Andrea nai mandrea, zeuk esaazu-te (3).»

Onetan eldu zan zalpurdia Ondarroara ta nik mutil esaneko, zintzo, men, maratz, goiztar, gorde, egile, artez, on, iaseko, argia ezaututea-

(1) Ezkara. (2) Bear bada. (3) Esan dozu-ta.

rrren, Tšorierriko atsotšuari ondorik iarraitu neutsan.

Geldi geldi ioazan Ama-semeak gora ta gora, zubi-ondotik Elizarako dagoan kale pendizean zear. Arpegian biotza ezautu al balei, gure Patšiko edo Ondarroa-ko Aiko-ren biotza eguzki-begiko sagarrak lango mamintsu zindo ta gozotzat eukiko neuke. ¡A da muti!a!

Berbakunea bere gero eztau ustela. Areri baiño politoago «bakutsu» esaten eztautsat beste bat neure egunetan entzun. Amak, ortiko ta emendiko barriak emoten ebiñela, arnasa artu bear izaten ebanean, «bakutsu» esaten eban Patšikok. Olakuetatik aranzko lagunak nortzuk izan zirean erakutsi eutsan gero: bateko atso berbalduna, besteko Abade morroskoa... (geuk lendik dazauguzan zalpurdi-lagunak) ta Patšikok irri-barrezka «bakutsu» erantzuten eutsan.

«Aiko» ezizentzat ipiñi ezpaleutse, «Bakutsu»-neko gozotegia entzute andikoa izango zan Ondarroan.

Bata barriketan, bestea bakutsu-ka, biak arnasaoska eldu zirean alango baten dendara. «Ama: zerbait ondo etorriko da orain: *sangria* edo...

—Ez, ene semea. Ori gero. Orain denda-zirkiluak arakatu bear dodaz. Ondo argi ederra daukazue berton: Bilbon langoa. Atso berbaldunak ezeustan guzurrik esan, Ondarroa edoze-lango erria etzala esan eustanean. Argirik bes-



te diru badago, eztaukak, ene semea, dendatšu tšarra. ¿Ezer salduten dok berton?

—Polito. Lenengo egunetan ez ainbeste. Bidea edegitea izaten da tšarrena: bein edegi-etzetiño, zabalduetea ezta izaten ain gauza nekeza edo gatša: ekin egin bear.

—Bai, Patšiko. ¿Zetan irabazten da geien?

—Edariakaz polito irabazten da. *Kafe* ta *azukre*-tan ez gitsi; ta gero zelan dan: udan gozoak bere asko salduten dira.

—Patšiko: eutzako baaz, neutzako neu bere banok oindiokarren. Iñoz besoak indarga ta anakak makalduko balitzakidaz, badaikit non daukadan ogia. ¿Ezta, Patšiko?

—«¿Bakutsu!» erantzunda irri-barrezka eroan eban Aikok beren Ama goi-aldera apalduteko ustean.

Urrengo eguncan eguzkia baiño lenago iagi ta azi zan Patšikoren Ama miña zeregiñetan. Gero or zortzirak inguruan Ama-semeak alkarregaz ioan zirean Mezea entzutera.

Elizpera odueran, alde guztietara begira ebiñen artean «mutil, erri ederrean bizi az, esan eutsan Amak. ¿Nok esango eustan niri onelango elizpe andi zabala ikusi bear neuala? Tšorri-erri guztian eztago, tšotšo, beronen antzeko bat.

—Au baiño gauza obarik ikusiko dogu oindio.

—Aor non datorren atzoko Abadea. Patšiko,

ene semea, ezta ona lotsorregia izatea ta egun onak emon edo zerbait esaiok.

—Ona nire atzoko bide-laguna. ¿Da? ¿Da-¿Zer deritšazu gure erri oni?

—Egun on asko geure Iaungoikoak emon daiozala, Abade Iauna. Geuk berorreri berba egin-bearrean, berorrek geuri. Esaten dautsat, bada, nik gure Patšikori ez izateko motsakoa, aurreregia izango ezpada bere.

—¿Ondo igaro dozu lenengo gaba?

—Ederto, Iauna. Badaki: aspalditšuan semeaganako garra cuki dot; zelan bizi etezan iakiteko gogoia bere bai ta ondotšu dagoala ikusi neuanean, nai legez edo obeto lo egin dot. Besteti *kotšeko* danbaladak atara eginda ezta goan gorputza abailduta, eiota isten daue: arriganean bere ondo lo egiteko moduan.

—¿Luzaroko etorri zara, ala betiko?

—Betiko ez, Iauna: etše-aldean bere beti dago buru-austea ta badaki. Orregaitiño amabost-tšu bat egun, semeak botaten ezpanau....

—¿Ori egingo etedau ba? ¿Patšikok zer diño?

—«Bakutsu» esanda, barrezka asi zan Patšiko.

—¿Orain dau Mezea?

—Bere beriala.

—Orduan berorren Mezea etzungo dogu».

Patšikok ur bedeinkatua Abade ta Amari emonda, irurak sartu zirean Elizan.

Arik ordu-erdi-garreñean, pelota-tokian pelo?



ta barik utsa ioten da utsari iarraika ebilzan lau mutiltšu ikusita gero, ioan nintzan eliz-ondora Ama-semeak aurkitu nairik eta uts: etzirean agiri. Andik gozotegira ioan nintzan da an bere ezegozan. Nasa edo *mołara* be alperreko ibiñe-rea egin neban. «Auše izango litzake barri barria» esanda, sartu nintzan azoka edo merkantuan. Zer edo zer iakin nairik, arraiña despizkaten iarduan emakuma bategana urreratuta, berba onek entzun neutsezan emakuma biri:

—«¿Konpiñeru? Eztot jaten. Mutiñ ederra ta guztii da, baiña Amaren alabii bada, konpiñeru bat gitsitzat eukiko dau Paustiñak.

— Ointše be ba, izer eiñen eztabelakuun, Paustiñaren etšeke *balkopetik* andikalea juun dii (1) eurak.

—¿Aiko ta beste atsuu?

—Aiko ta Ama, Ama dala esauste-ta (2).

—¿Nun ziir juun dii ba? (3)

—Zubidšan ziir».

Au entzunda, zubi-aldera ioan nintzan; da an egozan biak: Patšiko, eskerreko bigarren atza edo atzamarra luzatuta zerbait esaten; Ama, aoa zabalik, batean semearen arpegira ta bestean ibaira begira.

«Ortše egiñak dira Ondarroari ainbeste entzute emoniko traiñeru ariñak.

---

(1) Andiko aldera ioan dira. (2) Esan dauste-ta. (3) ¿Non zear ioan dira bada?

—¿Baita menditan aberatsa dala gero berau?

—Aberatsa menditan, Somorrostro edo onelango erriren bat izan ezik, eztakit zein dan Bizkaian.

—Ornidua bai beintzat.

—Motriku-aldeko mendi-tontor edo mendikume ori *Santa Kurts* da, kalbario-modura kurtzeakaz apainduta dagoalako. Lekeitio-aldean *Zezenmendi* dago. Besteen izenik eztakit.

—¿Nok esango leuke, Patšiko, Ondarroako Elizea barrutik ain ederra izan bear dabela, kanpoti ikusiezkeru?

—¿Kanpoti tšarra alda?

—¿Badakik zer dirudian? Lau erro edo sustraidun mando-agin andia: zimendua baiño eztau agiri.

—¿Bakutsu!

—¿*Ermitarik* eta badago?

—¿Egon ez! *Antigua* edo Andra Maria zaa-rra. Emengo atsoak lenago esaten cieuen zazpi aizta direala Andra Maria onek: Ondarroakoa, Iziarkoa, Lekeitiokoa ta beste lau: eztakit zeintzuk. Ganera itšaso-gane-ganean Lekeitiora goazala, Santa Klara-ren izenekoa dago. Onezaz ganera gauza eder asko dagoz: kaleak (ibai-ondokoak beintzat) azpi eder garbidunak; azoka edo *merkatua* burdiñazko aterpe Bilbo-ondoko Boluetan egiñikoaz. Oraintsu sortu dabez itšasgizonentzako Ikastetše edo emen esaten dan legez *Nautikako Eskolii*, Latin ikastekoa bere



bai. Orain urak ekarteko asmoa darabilē, ta emen goiz edo berandu, egin bear dana, bear bearra izanezkero, egin barik eztabe itšiko. Goazan orain, Ama, pelota-tokia ikustera. Erri tšiki baten obarik etedagoan eztakit.»

Atzerako bidea egiten asi zireanean, luzarotšu egon nintzala eritši ta beste toki batera ioan nintzan.

LENENGO URTE BIETAKO TŠIRRISTADEN AMAIA

## AURPIDEA

### *Orrialdea*

|                                                                                              |     |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| <i>Lenengoa</i> .—Tsirrist nor dan.—Tsirrist Ondarroan . . . . .                             | 5   |
| <i>Bigarrena</i> .—Tsirrist Arratian eriotzeagaz . . . . .                                   | 10  |
| <i>Irugarrena</i> .—Eriotzea ta Tsirrist Erririk Erri . . . . .                              | 17  |
| <i>Langarrena</i> .—Erestaldi bat . . . . .                                                  | 23  |
| <i>Boskarrena</i> .—Oñati-inguruko itzaifia . . . . .                                        | 30  |
| <i>Seigarrena</i> .—Oñati-tik Bergarara . . . . .                                            | 35  |
| <i>Zazpigarrena</i> .—Bergara-n . . . . .                                                    | 40  |
| <i>Zortzigarrena</i> .—Sasi-eskola . . . . .                                                 | 45  |
| <i>Bederatzigarrena</i> .—Anton da Aita . . . . .                                            | 50  |
| <i>Amargarrena</i> .—Durango-ko burdin-bidean.—Elantsobera bidean . . . . .                  | 55  |
| <i>Amaikagarrena</i> .—Gernikako Eliz-ondoan . . . . .                                       | 65  |
| <i>Amabigarrena</i> .—Bemoleko Elizkari batzuk.—«Euskalzale»-ren adiskide-arerioak . . . . . | 71  |
| <i>Amairugarrena</i> .—Ama-alabaak indiano baten-bila . . . . .                              | 79  |
| <i>Amalau-garrena</i> .—Ama-alabaak eta indianoa . . . . .                                   | 84  |
| <i>Amaboskarrena</i> .—Bermeoko Kaudira Erramona ta lagunak . . . . .                        | 90  |
| <i>Amaseigarrena</i> .—Asmo barriko Gernikarrak . . . . .                                    | 95  |
| <i>Amazazpigarrena</i> .—Lekeitioa-bidean . . . . .                                          | 99  |
| <i>Amazortzigarrena</i> .—Markiña-n.—Markiña-ko pelota tokian . . . . .                      | 105 |
| <i>Eneretsigarrena</i> .—Lekeitio-n arimen egunean . . . . .                                 | 117 |
| <i>Ogeigarrena</i> .—Denda baten . . . . .                                                   | 128 |
| <i>Ogetubat-garrena</i> .—Elantsobetarrak zerura begira . . . . .                            | 134 |
| <i>Ogetabi-garrena</i> .—Mundaka-ko Kipulatsurenean . . . . .                                | 139 |
| <i>Ogetairu-garrena</i> .—Peilo Bilborako ustean.—Peilo ta emaztea Bilbon . . . . .          | 146 |

### BIGARREN PILOA

|                                                              |     |
|--------------------------------------------------------------|-----|
| <i>Lenengoa</i> .—Atso batzuk eta Vascofillotzakoa . . . . . | 161 |
| <i>Bigarrena</i> .—Andra Maria de Aguirre . . . . .          | 166 |
| <i>Irugarrena</i> .—Eriotzea ta Tsirrist . . . . .           | 171 |
| <i>Langarrena</i> .—Santa Agedaren kantariak . . . . .       | 178 |
| <i>Boskarrena</i> .—Tolosa-inguruan . . . . .                | 187 |
| <i>Seigarrena</i> .—Aitona ta Amandre . . . . .              | 191 |



|                                                                   |     |
|-------------------------------------------------------------------|-----|
| <i>Zazpigarrena.</i> —Zapatu-guren eguna . . . . .                | 196 |
| <i>Zortzigarrena.</i> —Autaldi edo eleziñoien ondorena .          | 201 |
| <i>Bederatzigarrena.</i> —Tsirrist eta gosea . . . . .            | 205 |
| <i>Amargarrena.</i> —Kontrabandoa . . . . .                       | 209 |
| <i>Amaikagarrena.</i> —Pilatos-errian . . . . .                   | 213 |
| <i>Amabigarrena.</i> —Giza-eskintokia . . . . .                   | 217 |
| <i>Amairugarrena.</i> —Tsirrist Eibarren . . . . .                | 220 |
| <i>Amalaugarrena.</i> —Done Iñigo Loiola-tarraren eguna . . . . . | 226 |
| <i>Amaboskarrena.</i> —Manu Erramon . . . . .                     | 231 |
| <i>Amaseigarrena.</i> —Euspen-eskean . . . . .                    | 243 |
| <i>Amazpigarrena.</i> —Bilbo-ko azokarako batzuk .                | 251 |
| <i>Amazortzigarrena.</i> —Tsirrist Ondarroan . . . . .            | 261 |















































